

## *Lesaka*

Aurkibidea

**Udalerria: Lesaka**

**Sarrera**



Bortziriak eskualdeko udalerria. Iparraldean, Irun (Gipuzkoa) eta Bera ditu, Bidasoa ibaia tarteko. Bidasoa ibaiak Etxalar du ekialdean; hegoaldean berriz, Igantzi, Arantza eta Artikutza (Goizueta) dauzka, eta azkenik, mendebaldean, Oiartzun (Gipuzkoa). Muga-mugakoa ez izanda ere, udalerritik metro gutxira dute Ipar Euskal Herria. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko kidea da.

- **Biztanleak:** 2.803
- **Euskaldunak:** -

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **21**
- Zintak: **41**
- Pasarteak: **885**
- Transkribatutakoak: **34**
- Audioak: **34**
- Bideoak: **850**

## Proiektuak

- Atzoko Zegama
- Bera eta Lesakako Ondarea, Jon Abril
- Bortzirietako ahozko ondarea
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

## Hizlariak



**Amaia Abuin Arrasate** (1967)



**Eduardo Conde Rekondo** (1962)



**Rafael Eneterreaga Irigoien** (1942-2019)

Lesakan sortu zen, Barberenean. Guraso biak Lesakakoak zituen.



**Antton Erkizia Almandoz** (1951)



**Kontxi Erro Jauregi** (1951)

### **LES-004 Hizlari ezezaguna**

Lesakan jaio arren, Bilbon bizi izandakoa urte luzez. Besteak beste Santa Cruz apaizaren inguruko kontuak kontatu zituen Xabier Azurmendik egindako elkarrizketan.

### **LES-032 Hizlari ezezaguna**

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Lesakan jasotako lekukotza anonimoak.

### **Mañula Iantzi Telletxea (1925-2018)**



Lesakan sortu zen, Buxkon bordan. Ama Lesakakoa zuen. Aita, Oitzekoa, gazterik Lesakara joan zen.

### **Alfonso Igoa Mitxelena (1941)**

Txomineko Borda baserrikoa, aita bertakoa zuen (Irigoiñen zerrategian egiten zuen lana) eta ama ere lesakarra eta baserritarra zen. Zazpi senidetan seigarrena, apaiz eskolan ibili zen 12 urterarte; gero, pinuak botatzen eta ondoren zerrategian, bost urtez. 1962an Ameriketara joan zen artzain, Lee herriko (Nevada) Carpenter arrantxora, hiru urteko kontratuarekin. Gero ere hantxe jarraitu zuen hainbat urtean, baina enkargatu bezala. 1966an Mary Bajonetarekin ezkondu zen (euskal jatorrikoa hura ere; euskal ostatua zuten Leen). Bi seme-alaba izan zituzten eta umeak artean nahiko txikiak zirenean Elkora joan ziren bizitzera. Alfonsok 31 urte eman zituen gobernuarentzat lanean, bideak konpontzen. Elkoko euskal klubeko kidea da aspalditik. Hainbat mus txapelketa irabazi ditu, semearekin batera, eta dantza soltekoak ere bai batzuk, arrebarekin. Mery emaztea eta Patxiko semea ere elkarrizketatu genituen, Elkoko Star Hotelean.



### **Joxemari Iratzoki Elgorriaga**





**Joxe Irigoien Etxabide (1929)**

Lesakan sortu zen, Beheko erroetan. Ama Etxalarkoa zuen eta aita Lesakakoa.



**Maialen Irigoien Etxabide (1914)**

Lesakan sortu zen, Beheko erroetan. Ama Etxalarkoa zuen eta aita Lesakakoa.



**Pedro Lanz Antxordoki (1931)**

Lesakan sortu zen, Itturriko zubin. Ama Leitzan sortua baina urte bat gabe Igantzira joandakoa. Aita Lesakakoa.



**Joxe Mitxelena Abantz (1929-2022)**

Lesakan sortu zen, Pikuko bordan. Guraso biak Lesakakoak zituen.



**Pepi Olaetxea Altzugarai (1946)**



**Luis Olaetxea Ubiria (1930)**

Lesakako Makukoborda baserrian jaioa. Zortzi senideren artean zazpigarrena. Baserriko lanak eta lantegikoak uztartu izan ditu. Bertsolaria da. Elkarrizketa egin zitzaionean ere bere jaiotetxean bizi zen.



**Joxe Mari Ordoki (1949)**

### **Karmelo Orube Iparragirre (1932)**



Lesakako karrikan (Juangomizenea etxean) jaioa, eta beti Lesakan bizi izan da. Aita Bilbokoa zuen, eta ama Igantzikoa. Bi senidetan zaharrena da. Distantziara elektrizista ikasi ondoren, hainbat lanetan ibilia da; bestea beste "Laminaciones de Lesaca" fabrikari, baina hori utzi eta telebistak eta irratiak moldatzera (konpontzera) dedikatu zen. Oso musikazalea izan da beti, eta gaztetan klarinetea jotzen zuen herriko bandan.

### **Joxe Migel Rekondo Andueza (1941)**



Lesakan jaioa, plazako etxe batean. Ama lesakarra zuen eta aita Segurakoa: Lesakara ezkondu, eta Izarra izenekokindegia ipini zuten bertan. Zazpi senide ziren (bi anaia eta bost arreba). Hiru osaba zituzten Ameriketara, Nevadara, eta Joxe Migelek ere hara joatea erabaki zuen. 18 urte bete zituenean joan zen, Elyra (Nevada), artzain. Han urtebete igaro ondoren Oregonera bidali zuten, Burns Oregonera, eta 13 urte pasatu zituen bertan: lehenengo artzain, gero "campero" eta ondoren "mayordomo" lanetan. Zerrategi batean ere ibili zen. 1978an Euskal Herrira bueltatu zen; gozotegi bat erosi zuen Irunen, eta Irungo emakume batekin ezkondu zen. Bi alaba izan zituzten. Banandu egin ziren, eta AEBetara itzuli zen: 1992an Washingtonera joan zen lanera. Basogintzan aritu zen eta gero zerrategi bat erosi zuen. Bere bigarren emaztea izango zena ezagutu zuen bertan. Seme bat izan zuten eta Selah herrian (Washington) bizi dira. Lesakan elkarrizketatu genuen, urtero datorrelako bisitan.



### **Bittori Telletxea Maia (1957)**



### **Joxe Emilio Txoperena Zugarramurdi Txoltzan (1953)**

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

## **1. Aitareen lanbideak (LES-008/001)**

Aita, besteak beste, errementaria, errotaria , al baitaria eta bertsolaria zen. Albaitari kontuak nola ikasi zituen azaltzen du: idiekin ibiltzen zen menditik ikatza eta egurra Lesakara ekartzen; azienda anitz izaten zuen eta zaintzen ikasi zuen.

## **2. Gerran mandoak kargatzen (LES-008/002)**

Aita gerra denboran mandoak kargatzen ibili zen. Merkantzia eramaten zien eta , bueltan, hildakoak ekartzen zituen.

## **3. Gerra 1 (LES-008/003)**

Gerra hasi aurreko egunean (uztailaren 17an) kamioi bat etorri zen; "rojoak" (?) ziren eta altxatu behar zela erraten zuten. Eskopetak zituzten eta jendea izutu zen. Guardia zibil batek alto eman zien, eskopetak kendu eta gibelerat bidali zituen. Hurrengo egunean gerra hasi zen eta nazionalak eta falangistak etorri ziren. Abioiak bonbardatzera joaten zirenean, falangistek herritik egiten zieten tiro eta auzokide guztiak errota azpira joaten ziren. Amatei etxean gelditzen zen, bere ustez atea itxita bonbarik ez zelako sartzen. Baina bonba hurbil lehertu zen eta amateiri kalte egin zion.

## **4. Gerra 2 (LES-008/004)**

Aita ehizan ibiltzen zen errepublikano aberatsekin eta, hauteskundeetan, alderdi errepublikanoan izena apuntatzeko erran zioten. Gerra hasi zenean, errepublikazale anitz Frantziara eskapatu ziren eta bere aita atxilotu zuten. Alkateak defenditu zuen eta libre utzi zuten; beste batzuk, berriz, San Cristobalera (Ezkabara) eraman zituzten preso. Etxea frankistena zen eta alde egiteko esan zieten. Beste etxe bat erosita zuten ordurako, baina guardiek errekisatu zuten eta mahaia, atea eta abar erre zituzten. Etxea botako zutela-eta alde egin zuten 1937ko abuztuan ("toma de Guadalupe" izan zen egunean, hain zuten).

## **5. Aita errotaria (LES-008/005)**

Aita errotan lan egiten hasi zen. Ordainketa gisa, baserritarrek zer edo zer eramaten zioten (gazta bat, oilasko bat...) eta irin pixka bat kentzen zen (gero estraperloan saltzen zuten). Ortzeguneetan aita merkatura joaten zen eta bera (hamar urte zituela) gelditzen zen errotan lanean. Berak kendu beharrekoa eta pixka bat gehiago hartzen zien; Irundik arraina saltzera etortzen ziren emakumei (estraperlistak) saltzen zien. Aitak jakin gabe egiten zuen negozio hori amarekin. Bere ama Etxalarkoa eta kontrabandista amorratua zen

## **6. Ama kontrabandista. Trapitxerak (LES-008/007)**

Amak koltxoitan altxatzen zuen irina, poltsa batzuetan, eta trapitxerei ematen zien, etortzen zirenean. Ama-semeak negozioa egiten zuten, aitak jakin gabe. Gero errota saldu zen. Anaia okindegian lanean hasi zen. Gaixotzen zenean, bera joaten zen bere partez. Irin xuria oso garestia zen eta egunero pixka bat ebasten zuen, etxera eramateko (astean bizpahiru kilo). Egun batean, trapitxerak etortzear zirela-eta, amak irin gehiago hartzeko erran zion, baina ebasten harrapatu zuen gizon batek. Dena dela, ez zuen deus erran. Gero soldaduak hasi ziren okindegira joaten ogia egitera, orduan errazago ebasten ahal zuen irina.

## **7. Espartinak egiten zituen (LES-008/008)**

18 urterekin, espartzinak egiten hasi zen, Frantzian anitz saltzen zirelako. Ez zuten deus ere, gerran alemanek dena xehatu baitzuten. Azkoitira joan zen espartinak egiten ikastera eta hilabete batez egon zen. Denbora batez saldu zituen, baina, gero, biltegi-jabe batek merkeago saltzen hasi zen eta utzi behar izan zuen.

## **8. Añorgan eta Donezteben lanean (LES-008/009)**

Añorgara joan zen lanera eta bi urte eta erdiz izan zen bertan. Han ezagutu zuen emaztea. Gero txofer joan zen Doneztebera, hiru urtez.

## **9. Kontrabandoa. Kamioia 1 (LES-008/010)**

Kamioi zahar bat erosi zuen. Andreak 700 pezeta eman zizkion urtebetetzean eta pieza berria erosi zuen kamioian jartzeko. Konpetentzia handia zegoen. Etxalarko batentzat hasi zen lanean kontrabandoan. Anekdotak bat kontatzen du: guardiek alto egin zioten egun batez, ea Lesakara eramaten zituen; koarteleraino eraman zituen eta ez zuten kontrabandoko merkantzia ikusi.

## **10. Kontrabandoa. Kamioia 2 (LES-008/011)**

Etxalarko gizon horrek kontrabandoan jarraitzen zuen. Bi kamioi zituen. Egun batean, Endarlatzan harrapatu zuten: kamioia kendu eta multa handia jarri zioten. Hala ere, etxean kontrabando (merkantzia) anitz zuen eta bigarren kamioia kargatu zuen; baina bigarren kamioia ere kendu zioten. Etxean gelditzen zitzaion merkantzia ateratzeko erran zion teniente batek, Iruñetik heldutako brigada batek harrapatzen bazuen, etxea ere kenduko ziotelako. Berari eskatu zion laguntza dena ateratzeko. Plan guztia egin zuten, baita gauzak gaizki ateraz gero Ameriketara eskapatuko zela aurrikusi ere. Azkenean dena ongi atera zen; Donostian hartu zioten kamioia eta berak ez zuen ikusi non deskargatu zuten. Telefonikarentzat omen zen.

## **11. Kontrabandoa. Kamioia 3 (LES-008/012)**

Etxalarko esne-saltzailea kontrabandoan aritzen zen. Kamioian merkantzia pasatzeko eskatu zion, guardiek bazekitela eta pasatzen utziko ziotela erran ere. Alto eman zioten eta merkantzia hartzen hasi ziren guardiak, baina norentzat zen jakitean, joaten utzi zuten. Egunkarian albiste faltsua atera zen gero: kontrabandoa atzeman zutela, baina tiroak bota eta kontrabandista alde egin zuela.

## **12. Kontrabandoa. Kamioia 4 (LES-008/014)**

Irunen kamioia kargatu behar zuen, baina ez zen inor etortzen. Esperoan zela, guardia zibilen patrola gora eta behera ibiltzen zen bere ondoan. Azkenean, aretzeak ekarri zituzten eta kamioian kargatzen ari zirela, patrola agertu zen. Guardiak gazteak ziren eta animaliak sartzen lagundu zieten.

## **13. Kontrabandoa. Kamioia 5 (LES-008/015)**

Kamioian merkantzia gehiago eramaten zen eta gehiago kobratzen zen, baina mendiko kontrabandista errazago eskapatzen ahal zen, paketea botata.

#### **14. Kontrabandoa. Kamioia 6 (LES-008/016)**

Gero Logroñotik zaldiak ekartzen hasi ziren. Bidean bi hil ziren, baina albaitariak ongi iritsi zirela idatzi eta sinatu zuen. Frantzian zaldiki anitz jaten zen.

#### **15. Alberto Telletxea apeza hil zeneko bertsoak (LES-008/018)**

Alberto Telletxea apeza hil zenean, berak paratutako bertsoak kantatzen ditu. Ez zuen inon ikasi, berezkoa du, gaztetatik aritu da bertsoan. Lehen ez zen dirurik irabazten bertsoekin.

#### **16. Bere ama hil zenean paratu zizkion bertsoak (LES-008/019)**

Bere ama hil zenean hiru bertso paratu zituen: "Mundu honetan pasa ondoren gaixuak hainbat ordu txar, hil zaigu amatxo hau da tristia guk gehio ez ikusi behar...".

#### **17. Langileen batailoia 1 (LES-008/021)**

Gerraostean, "rojuak" ekarri zituzten, langileen batailoia ("batallón de trabajadores"). 4000 inguru ziren, zenbait etxetan eta barrakoietan bizi ziren. Kopetan "BT" letrak jartzen zizkieten. Futbol zelaia egiten aritu ziren. Goseak zeuden eta lurrera erortzen ziren; kapitanak uhalarekin jotzeko erraten zien beste soldaduei. Apez batek hori ikusten zuen, baina ez zuen deus ere erraten. Egun batean, bera errotan zela, langile bat oinutsik etorri zitzaion irin eske eta, trukean, bere botak emanen zizkiola erran zion; irina eman zion, baina ez zituen botak hartu. Anitz hil ziren. Kastigatzen zituzten, gau ta egun karga bat eramaten...

#### **18. Langileen batailoia 2 (LES-008/023)**

Langileen batailoitik eskapatzen zirenak hiltzen zituzten.

#### **19. Gerra. Hiru atxilotuak 1 (LES-008/024)**

Gerra denboran, hiru atxilotu ekarri zituzten Lesakako plazara. Margarita batek (emakume erreketean kide bat) erran zien soldaduei herrira ez eramateko, harrapatzen zutenean, bertan hil behar zituztela. Atxolotuetako batek Frantziara ihes egiten lortu zuen. Frantzian urte anitzez bizi zen gizon hura eta, amnistia eman zutenean, itzuli zen.

#### **20. Gerra. Hiru atxilotuak 2 (LES-008/026)**

Frantziatik itzuli zenean, Lesakara emakume horren etxera joan zen eta nor zen erran zion.

#### **21. Gerra. Apezak errepublikanoak salbatu zituen (LES-008/027)**

Gerra denboran, Lesakako errepublikanoak atxilotuta eraman zituzten. Berako harrobi txiki batean fusilatzen zituzten. Lesakako bikarioa (Don Felix apeza) enteratu zen eta harrobira joan zen; ilaran jarri zen, bera ere hiltzeko. Tenienteari bera lehenengo hiltzeko erran zion. Hori zela eta, ez zituzten hil eta San Kristobalera (Ezkabara) eraman zituzten. Jende anitz hil zen San Kristobalen.

## **22. Gerra. San Kristobal (Ezkaba) (LES-008/029)**

San Kristobaleko (Ezka) bizi-baldintzak oso txarrak ziren: lur azpian zirela eta, umeltasun ikaragarria zen, oso gaizki jaten zuten...Batzuk eskapatu ziren, baina gehienak hil zituzten.

## **23. Gerra. Tirapun gertatutakoa (LES-008/030)**

Tirapun fusilatuen hobia non zegoen nola enteratu ziren azaltzen du: apez batek, hilzorian, konfesatu zuen berak denuntziatu zituela eta hil zituztela.

## **24. Gerra. Lesakako ospitalea (LES-008/032)**

Kattu ostatua den lekuan ospitalea izan zen gerra garaian. Mojek zaintzen zituzten eriak.

## **25. Gerra. Lesakan fusilatuak (LES-008/034)**

Lesakako zubia pasatuta, eskuin aldean, lauzpabost hil zituzten; bat Iturengo medikua zen. Lesakar batek ikusi zuen dena. Urteak pasata, medikuaren andreari erran zion non zegoen gorpua, eta topatu zuten. Pobreei ez ziela bisita kobratzen omen zen bere delitua.

## **26. Gerra. Salaketak (LES-008/036)**

Erraten dutenez, gerran diruagatik salatzen zuten jendea: zorrak baziren, hori salatu eta ez zieten ordaindu behar.

## **27. Langileen batailoia 3 (LES-008/038)**

Langileen batailoiko presoek Oartzungo errepidea egin zuten, pikotx eta karrotxoekin.

## **28. Sagardoa egiten zuten 1 (LES-008/040)**

Irailaren amaieratik abenduaren hasierara bitartean egiten zuten sagardoa. Sagardoa egiten zuenak, afari on bat ematen zien laguntzen zutenei; sosik ez zen ematen. Barriketari gorde eta gero botiltzen zuten. Anekdotari bat kontatzen du.

## **29. Sagardoa egiten zuten 2 (LES-008/041)**

Sagar geza erabiltzen zuten sagardoa egiteko; hainbat klase izaten ziren: besteak beste, geza gorria, txori sagarra, frantsesa eta sanmartina. Bi hilabete pasatzen zituzten sagarrak 60 kiloko zakutan biltzen eta idiekin garraiatzen; egunero kamioia kargatzen zuten, sagarrak Gipuzkoara eramateko. Lesakako feritan kontuak egiten zituzten. Hiru zakukin karga bat egiten zen (180 kilo). Eskukin biltzen zituzten sagarrak karga xarira eta hortikan zakura. Emakumeak biltzen aritzen ohi ziren eta gizonak kargatzen. Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du: xehatzeko makina eta prentsa eskuz eragiten ziren. Baziren 2000 eta 4000 litroko kupelak; gaur egun barrikak erabiltzen dira.

## **30. Sagardoa egiten zuten 3 (LES-009/001)**

Sagardoa barrikan utzi behar den denbora, barrikaren bolumenaren arabera kalkulatu da. Esate baterako, 100 litroko kupela hilabete baten buruan itxi behar da. Itxita egon behar duen denbora ere (botiletan sartu aurretik) aldatzen da: gozoa nahi bada, bi hilabete itxaron behar da. Behin botiletan sartuta, urte batetik bestera hobetzen da.

### **31. Sagardoa egiten zuten 4 (LES-009/003)**

Aparra akitzen zenean ixten zuten kupela. Misto batekin egiten zuten proba: itzaltzen bazen, apar gehiagorik aterako ez zela erran nahi zuten. Barrikan kortxo bat sartu eta gero igeltsuarekin tapatzen zuten, aierik ez sartzeko.

### **32. Toberak. Pregoi afaria 1 (LES-009/005)**

Toberak anitzetan jotzen ziren. Toberek prestaketa bat eskatzen dute eta jende guztiak ez daki jotzen. Berak, adibidez, ez daki jotzen eta bertsoak kantatzen zituen. Pregoi afarian jotzen ziren toberak (andregaiaren etxean 40 bat lagun biltzen ziren). Jotzaileek tobera arratsaldean prestatzen zuten. Toberak jo ondoren, bertsotan hasten ziren.

### **33. Toberak. Pregoi afaria 2 (LES-009/007)**

Burdinezko palanka (bi metrokoa) berezia zen. Bi lagunek jotzen zuten (batek, behe-soinuak eta besteak, goikoak)

### **34. Toberak. Pregoi afaria 3 (LES-009/009)**

Duela 60 bat urte azken aldiz jo zituzten toberak baserri batean. Bi bertsolari, bi jotzaile eta paratzeko lau edo bost lagun joaten ziren. Pregoi afarira auzo guztia joaten zen; 50 bat gizon inguru (emakumeek afaria prestatzen zuten) izaten ziren afarian.

### **35. Urtezaharra 1 (LES-009/011)**

Urtezaharrean kantatzera eta eskera ateratzen ziren 10 bat lagun, etxez etxe.

### **36. Urtezaharra 2 (LES-009/013)**

“Dios te salve” kantatzen zuten urtezaharrean etxez etxe eskean ibiltzen zirenean. Kuadrila anitz ibiltzen ziren. Besteak beste, arrautzak, dirua, xingarra eta xolomoa ematen zizkieten; hurrengo egunean bazkaria egiten zuten. Zazpitan atera

### **37. Gabon-eguna. Olentzero (LES-009/014)**

Olentzerorekin kalekoak baserrikoak baino gehiago ibiltzen ziren. Olentzero Lesakakoa da; lehenago Lesakan bakarrik egiten zen. Olentzero bat trapu zaharrekin egiten zuten haurrek eta eskean ibiltzen ziren. Lehen haurrak besterik ez ziren ibiltzen. Hainbat koadrila eta olentzero izaten ziren (bakoitzean bozpasei mutil). Olentzeroren misioa Jesus jaio zela parte ematea zen. Besteak beste, “Olentzero buru handia” eta “Olentzero joan zaigu” abestiak kantatzen zituzten.

### **38. Gabon-eguna. Jaiotza (LES-009/016)**

Naskak ez ziren olentzerorekin ibiltzen, jaiotzarekin baizik. Mahai txiki baten gainean paratzen zuten jaiotza eta etxez etxe eramaten zuten. “Goazen guztiok Belenera” kantatzen zuten.

### **39. Euskara gerra denboran (LES-009/017)**

Gerra denboran, haur zela, euskara gutti erabiltzen zen; ez zen libre euskaraz mintzatzea edota bertsoak kantatzea kanpoan, etxean, berriz bai. Guardiek “cristiano” hitz egiteko erraten zuten.

#### **40. Lesakako feriak (LES-009/019)**

Lesakako ferietan azienda anitz ateratzen zen plazara: zezenak, behiak, behorak, astoak, zerriak...

#### **41. Baratzeko sorginaren istorioa 1 (LES-009/021)**

Gizon bati, ostatutik etxerako bidean, sorgin bat ateratzen zitzaion baratz batean. Behin tiro bat bota zion eta atso bati hanka hautsi omen zion

#### **42. Baratzeko sorginaren istorioa 2 (LES-009/023)**

Tiroa eman eta sorgina auzoko atso bat zela ikusi zuten.

#### **43. Ama ezkongabeak 1 (LES-009/025)**

Ezkonduta zegoen gizon batek neska bat haurdun utzi zuen. Egun batean, neskak su eman zion gizonaren belar metari. Gizonak bera izan zela jakin zuen, elurretan utzitako markak segituz.

#### **44. Ama ezkongabeak 2. Haur bastartak (LES-009/026)**

Ama ezkongabeak oso gaizki ikusiak ziren, mespretxatzen zituzten. Nahi ez zutenarekin ezkontarazten zituzten. Haur bastartak ere markatuak gelditzen ziren. Gauaz bataiatzen ziren haur horiek. Anekdotak bat kontatzen du: hiru haur eta abizen bera. Garai hartan, mendian lanean ari zirela abusu sexual anitz izaten zen.

#### **45. Anekdotak. Zezenak usaitikan sumatzen du susara (LES-009/027)**

Mutil batek neska bati erran zion: "zezenak behi horri eman dio"; neskak galdetu zion: "hori nola izaten da?" eta mutilak: "zezenak usaitikan sumatzen du zein dagoen susara" eta neskak zera erantzun zion: "eta zuk ez duzu sumatzen usairik?"

#### **46. Txistea 1 (LES-009/029)**

Gazte batzuek irri egin nahi zioten Pagolletako artzain zahar bati. Ea bidea Lesakara joaten zen galdetu zioten eta artzainak zera erantzun zuen: "ez, bide hau ez da joaten, bide honetik joaten da Lesakara."

#### **47. Txistea 2 (LES-009/030)**

Baserritar batean gizon bat hil zen. Ohitura zen errosarioa errezatzera joatea hildakoaren etxera. Baserritar batek zera galdetu zion: "atzo hil zen hura hemen bizi da?"

#### **48. Enetoren anekdotak 1 (LES-009/032)**

Eneto ari zen prensa batera saskiekin grabilla botatzen eta joan behar zuen maldan goiti; egun guztian lanean-eta, nekatuta zegoen eta mantso zihoan. Nagusiak zera galdetu zion: "¿Eneto, no tienes otro paso?" eta Enetok "sí, a menos" erantzun zion.

#### **49. Gaizki errana 1 (LES-009/034)**

Juan peoiari erran zioten: "no, eso no hagas así, hay que hacer de otra manera" eta peoiak erantzun zion: "si tú has venido yo ya te has visto"

## **50. Gaizki errana 2 (LES-009/036)**

Juan peoia bizikletaz ibiltzen ari zen gauez eta norbait jo zuen: “¿te he hecho daño?” galdetu eta “no, me has dado gusto” erantzun zion.

## **51. Enetoren anekdota 2 (LES-009/038)**

Enetok andrea haurra egiteko zuen eta medikua ezkontza batean zegoen, akordeoiarekin eta dantzari. Bitan abisatu zion, baina ez zen joan. Azkenean, medikua joan zenerako haurra hilda zen; medikua haurra mugitzen hasi zen eta Enetok zera erran zion: “con la acordeón a otra parte”.

## **52. Ehiza (LES-009/040)**

Lehen tiro gutti botatzen zituzten, kartutxorik ez zutelako. Aitak erbi anitz ehizatzen zituen. Erbi eta untxi anitz ehizatzen zituzten. Basurdeak ere harrapatzen zituzten. Usoak, berriz, urtean behin. Basurdea zakurrekin ehizatzen zen (bera ez da inoiz izan). Azeria harrapatzeagatik Udalak dirua ordaintzen zuen; artzainek ere dirua ematen zuten. Pototxak eta azkonarrak harrapatzeagatik, Udalak pagatzen zuen

## **53. Añorgan lanean (LES-009/042)**

Añorgan lan egiten aritu zen. Txabola batean bizi ziren. Handik kilometro batera zegoen errekan garbitzen zuten arropa. Tunel bat egin zuten eta, gero, Cementos Rezolarako lanak egiten aritu ziren. Andrearen etxean lo egiteko lekua emanen zioten (ordainduta, noski). Handik joan behar izan zuen gero, baina, arropa garbitzen zioten. Gero txofer joan zen Irunera. Senar-emaztegaiak egin ziren.

## **54. Txabola nolakoa zen (LES-009/043)**

Añorgako txabola egurrezkoa zen eta 40 lagun inguru bizi ziren bertan. Kamaina lurrean botatako zakuekin egina zen. Ez zuten deus ere: “hautsa eta zikina”. Jatekoa gaizki, merkeena (eta erdi ustela) erosten zuen arrantxeroak. Oihaneko gizonen moduan bizi ziren. Igandetan baserritara joaten ziren lanera, belarra moztzen, sagarra biltzen edota egurra xehatzen aritzen ziren; han jaten oso ongi ematen zieten.

## **55. Txabola. Garbitasuna (LES-009/044)**

Txabolan bizi zirela, errekan garbitzen zituzten hankak eta aurpegia. Rezolan dutxa bat bazen (ur hotza besterik ez zuten) eta hamabostik behin joaten ziren dutxatzera. Obretako lanak egiten zituzten

## **56. Lesakako fabrika (LES-009/045)**

Lesakan fabrika izan aurretik, ahal zen lekura joan behar zuten lanera: Ameriketara, Iratira mendira, barkutara...Fabrika hasi zelarik, kanbiatu zen gauza, jende anitz fabrikara joan zen. Berak ordurako kamioia bazuen. Lesaka ez da leku ona fabrikarako, garraioan anitz gastatu behar baita, baina lurra debalde eman zuten.

## **57. Inauteak (LES-009/046)**

Inautetan nola jantzen ziren azaltzen du (gona zahar batzuekin, kapelak...). Ez zen libre inauteetan ibiltzea. Baserritara joaten ziren. Batek amaren soina jantzi zuen, baina emateko erran zion amak, besterik ez zuelako. Gehienetan andreen arropekin jantzen ziren; neskak ere ateratzen ziren haiekin (galtzak

edo buzoak janzten zituzten). Behin Etxalarko inauterietara joan ziren neska eta mutilak autobusez; bikarioa enteratu zenean autobusean elkarrekin joan zirela, elizara deitu zituen eta eskomulgatu (eskumikatu) zituen. Inauterietan kantatzen zituzten bertsoak: "Agur gure herriko alkate jaunari eta errespetua eliz gizonari...". Astelehenetan bakarrik janzten ziren. Zakuzaharrak, berriz, igandean izaten ziren, baina gerran denboran ez zen egiten. Bere aita gaztea zela, karrozak egiten zituzten eta zaldiekin eramaten zituzten. Gerra denboran dena galdu zen, baina gero errekuperatu zuten.

### **58. Lesakako bandari paratu zizkion bertsoak (LES-009/047)**

150. urtemugan Lesakako bandari paratu zizkion bertsoak kantatzen ditu: "Lesakako banda eder hau ezagutzen degu aspalditikan 150 bat urte lehengo batin beterikan...". Bandako kideei emandako txanpain botiletan idatzi zituzten bertsoak.

### **59. Txoferraren anekdotak (LES-009/049)**

Apezak kontatu zion istorio bat azaltzen du. Lesakatik Iruñera neska "ejercicios espirituales" egitera joaten ziren. Txofer batek, iritsi zirenean, zera erran zien neskei: "los que vais a maniobras, bajad". Txofer horri berari gertatutako beste anekdota kontatzen du: gurpila askatu zitzaion. Almandozen jendea autobusetik jaitsi behar zen eta bulkatu, malda igo ahal izateko (berari gertatu zitzaion).

### **60. Ermita inauguratzean bota zituen bertsoak (LES-009/051)**

Salbatoreko ermitako zaharberritze lanak amaitu eta inauguratu zenean, honako bertso hauek bota zituen: "Lehendabiziko hasiko naiz ba zuei egun on esan ta, ermita hontako lanak ere orain ja bukatu dira ta..."

### **61. Bertsoak. 40 urte ezkontuta egin zituztenean (LES-010/001)**

40 urte ezkontuta egin zituztenean, emazteari botatako bertsoa: "Mundu hontan bizi naiz ahal duten bezala, berrogei bat urte dira ezkondu nintzala..."

### **62. Andregaiari paratutako bertsoak (LES-010/003)**

Andregaiari paratutako bertsoak kantatzen ditu: "Kontatu nahi dizuet zuei pasatutako kasua, asko kosta zitzaidan baina, nik eman nuen pausua..."

### **63. Bertsoak Lesakako baserritarrei (LES-010/005)**

Bertsoak Lesakako baserritarrei: "Lehengo batian hasia naiz ni besteek esan ta kantari, txiki-txikitik gustatu izandu zait ba lan hori neri..."

### **64. Telebote tabernari bertsoak 1 (LES-010/007)**

Telebote tabernari bertsoak: "Lesakan bada tabernatxo bat denai guztatzen zaiona eta zerbitzen ere honek oso ondo dakiena..."

### **65. Telebote tabernari bertsoak 2 (LES-010/009)**

Martzelino Sanjurjo akordeoilariak, laster hilko zelakoan, bertsoak kantatzeko eskatu zion Joxeri. Berak Telebote tabernaren bertsoak paratu zituen.

## **66. Rafael ilobari kantatutako bertsoak (LES-010/011)**

Rafael ilobari kantatutako bertsoak: "Aizu Rafael azken bersu hau zuk entzun behar didazu, txikia zinanin hemen askotan nerekin ibiltzen zinan zu..."

## **67. Ilobei Jaunartzean paratutako bertsoak (LES-010/012)**

Neska-mutilak etor zerate Jaunartzera gazterik, zeruko Jaunak zenbat egin dun mundu honetan gugatik..."

## **68. Haizea ilobari kantatutako bertsoak (LES-010/013)**

Haizea ilobari kantatutako bertsoak: "Ikusten zaitut goizian goitik behera heldu ziranean, guardasola eskutan eta motxila bizkarrian..."

## **69. Aitaren omenaldian kantatu zituen bertsoak 1 (LES-010/015)**

Aitari omenaldia egin zioten eta, mezan, bertsoak kantatu zituen Joxek.

## **70. Aitaren omenaldian kantatu zituen bertsoak 2 (LES-010/017)**

Aitaren omenaldian kantatu zituen bertsoen lehenengo zatia: "Aspalditikan deseio nuen ta ailegatu da azkenian, asmoa naukan hemen egotia ni zuen aldamenean..."

## **71. Aitaren omenaldian kantatu zituen bertsoak 3 (LES-010/019)**

Aitaren omenaldian kantatu zituen bertsoen bigarren zatia.

## **72. Hiltegiaren gertatutakoa (LES-011/002)**

Hiltegiaren borrarrekin jota hiltzen zuten ganadua. Behin hola izugarritzko soinua atera omen zuen kolpeak eta albatariak "animal!" deitu zion.

## **73. Harakinarekin zeudela gertatutakoa (LES-011/004)**

Harakinarekin bildotsak hiltzen ari ziren batean gosaltzeko garaian zeren zekor bat ekarri omen zuen hirugarren batek hiltegiara. Harakinak berak hilko zuela esan zuen. Joxek lasai egoteko eta zuzen jotzeko borra kolpea esan omen zion, baina lehenengo kolpea adarrean eman zion harakinak zezenari. Zezenak ufa egin omen zuen baina ustez loturik zegoenez ez zuen gehiagorik egin. Bigarren kolpea ematean ordea harakinak mutur muturrean eman zion kolpea zezenari kopetan beharrean. Orduan sortu omen zen iskanbila. Zezena saltoka hiltegi guzian barrena. Halako batean Joxek kopetan kolpatu omen zuen eta ziplo erori omen zen zezena.

## **74. Arantzako bestetan (LES-011/005)**

Dantzan ibiltzea asko gustatu izan zaie beti. Arantzako bestetan neska batzuekin dantzan aritu ondoren, denak elkarrekin afaltzera joango zirela erabaki zuten. Ostatu batera joan ziren. Hagitz ongi jaten zen erreka bazterrean zegoen.

## **75. Kontrabandoa eta karabineroen altoa (LES-011/007)**

Herriko kontrabandista ezagun bati karabineroek altoa bota omen zioten eta honek "vaca parir, ¡verinario avisar!" erantzunez alde egin omen zuen.

## **76. Mendian lanean (LES-011/009)**

Diputazioarentzat eta herriarentzat aritzen zen basoan lanean. Aritxulegira joaten ziren goizeko bostetarako jaiki eta amak prestatutako opila janda. Orduan ez zen ogirik razionamendu garaian zebiltzan. Aritxulegin zerbait gosalduta eta 10/12 planta ateratzen zituzten bakoitzak. Handik beste mendi batera eramaten zituzten landatzera. Bueltan sukaldariak normalean ilar gorria beroturik izaten zuen. Hura jan eta etxera.

## **77. San Anton egun batean mendian (LES-011/010)**

Guztia San Anton eguna batean hasten da. Anttonio bik lehertu arte ardo eman zieten eguna ospatzeko eta mozkortu egin ziren. Handik jaistean harriz betetako karro bat baserri bateko orman sartu zuten. Beste baserri batean ere armatu zuten zerbait. Ostatuaren estilora jende zaharra biltzen zen etxean "Dios te salve Maria" abestu zuten ateak ireki ziezazkien baina ez zuten lortu. Handik etxera joan ziren eta hurrengo egunean berriz ere arbolak landatzera joan behar izan zuten.

## **78. "Allagak" egiten Igantzin (LES-011/012)**

"Allagak" egiten aritu zirenean aste guztian gelditzen ziren mendian lo egiten. Autobusez joaten ziren astelehenetan eta larunbatetan bueltatzen ziren. Hemezortzi lagun ardi borda batean. Tripako errabia sartu zitzaion haletako bati. Medikua abisatu zuten eta etxera ekarri zuten. Gaixorik jarri zen harri ez zitzaion babarik jaterik komeni, baina han ez zen beste ezer ere jaten. Xamurrua izaten zuen gainera baba hark.

## **79. Txiste kontalaria ere bazuten mendian (LES-011/013)**

Martin izeneko txiste kontalaria izaten zuten lan taldean. Isilik zegoen egunetan ardo botila bat ardo aterako ziotela esaten zioten txisteak kontatzen hasteko.

## **80. Diruz justu (LES-011/015)**

Gutxi irabazten zuten ostatua ordaintzeko justu justu iristen zitzairen. Behin kideetako bat etxera joan behar izan zen ostatua ordaintzeko diru eske. Miseria bat irabazten omen zuten.

## **81. Nagusia, kideak eta diru kontuak (LES-011/017)**

Lanaren prezioaren negoziaketetan izandako gora beherak. Kide batengatik prezio merkeagoan lanean aritu behar izan zuten.

## **82. "Allaga" egitea zer zen? (LES-011/019)**

Basoan ibilitakoan "allaga" lanak. Zuhaitza bota eta gero, kiman aritzen zen bat egoten zen. Bihurrekin lotzeko lekua ziriz markatzen zen. Artesiak egin behar ziren zuhaitzekin. Makinaren bat ere ibiltzen zuten lanak errazteko. Ateratzen zituzten egur zati motak.

## **83. Basoko txabolak (LES-011/021)**

Ardi bordarik ez bazen lanean zeuden inguruan, txabola egin behar izaten zuten. Lo egindako bordak gogoratzen ditu.

#### **84. Basoko ohatzea 1 (LES-011/023)**

Hasieran iratzez eta ohatzea ongi prestatzen zuten, baina gerora egur gainean lo egiten omen zuten eta ongi. Asteburuan etxera joaten zirenean eta ohe bigunean sartu ezin loak hartu ibiltzen omen ziren.

#### **85. Basoko ohatzea 2 (LES-011/025)**

Mantak izaten zituzten ohatzean eta txabola barruan sua gau osoan zehar.

#### **86. Baba gauean egosten zuten (LES-011/027)**

Gau osoan zehar baba suan egosten izaten zuten eta lagun batek bueltaka egoten zen eltzea eta sua zaintzeko.

#### **87. Garaiko txiklea (LES-011/028)**

Etxean egindako behi gazta txiki bat izaten zuen kide batek. Harri nabalarekin zati txiki bat kendu eta txiklea bezala ahoan buelta eta buelta ibiltzen omen zuen.

#### **88. Basoko arropak 1 (LES-011/030)**

Ardi hilearekin eginiko zapinak. Bustitzen zirenean ez ziren bi edo hiru egunean lehortzen.

#### **89. Txabola barruan (LES-011/031)**

Txabolan 18 lagun biltzen ziren. Bustirik sartzen zirenean berehala hasten zen lurrina sortzen eta txabola sutan zegoela irudi omen zuen. Ez omen zen ezer ere ikusten.

#### **90. Basoko arropak 2 (LES-011/033)**

Txaketak, atorrak... ardi larrua zen hoberena eta arrantzale txapela ere erabiltzen zuten. Bustirik ere asko ibiltzen ziren.

#### **91. Euritan artesik (LES-011/035)**

Euria hasten zuenean estali bat egiten zuten artesik egiten aritzeko. Baina haizeak jotzen zuen egunetan arrisku bat omen ziren estali haiek.

#### **92. Lanerako erramintak (LES-011/036)**

Azia izena zuen bat erabiltzen zuten. Aizkora. Ezpelarekin egindako mingaina batekin.

#### **93. Txabolako lan banaketak (LES-011/038)**

Batzuk ura ekartzen zuten, besteek sua prestatu...

#### **94. Gaztetatik lanean (LES-011/040)**

Aitarekin hasi zen basoa lanean. Gero anaiarekin biak gelditu ziren anaia beste baserrira joan arte. Gero koadrilarekin jarraitu zuen Joxek. Uda aldean garbiketak egiten zituzten basoan.

#### **95. "Allaga" amaitu zen (LES-011/041)**

"Allaga" gazte zirela akabatu zen, gero eta adelantu gehiago atera ziren. Ondoren pinuak landatu, basoa garbitu eta antzeko lanak egiten hasi ziren.

### **96. Amaren taloak (LES-011/043)**

Egur ona bazuen taloak berehala erretzen zituen amak, egurra txarra bazen gehiago kostatzen zen.

### **97. Gorputza garbitzeko (LES-011/045)**

Zinkeko balde handi batzuetan garbitzen ziren.

### **98. Artoa zuritzeko lana (LES-011/047)**

Haurrek zirelarik ze zuten indarrik izaten artoak zuritzeko. Ez zuten hori egin nahi izaten baino okerragoa izaten zen arrosarioa erreztatzea tokatzen zitzaionean.

### **99. Sorgin kontua (LES-011/049)**

Neska bat ur eske joan zen apustu baten ondorioz. "Subila zuentzat eta etxe honetako neska ederra niretzat" esan omen zieten.

### **100. Talisman keinua (LES-011/051)**

Sorginen beldur zinen une batean behatzekin egin behar zenuen keinua erakusten du.

### **101. Sorgina zen txakurra (LES-011/053)**

Zakur bat hil zuten gau batean eta hurrengo egunean zakurra hildako lekuan herriko neskazahar bat agertu zen hilik.

### **102. Belea eta berpiztua (LES-011/055)**

Norbait sukaldean zegoen buruz beti hilik eta bele bat inguruan omen zebilen. Norbaitek esan omen zuen buelta eman behar zitzaiola hildakoari. Belea barrenean sartu omen zitzaion eta berpiztu zen hildakoa.

### **103. Maindirean estalitako gizona (LES-011/057)**

Mutil batek ba omen zuen andregai, baina beste mutil baten neska gustatzen zitzaion. Mutil hura maindirearekin estalita ateratzen omen zen, beste mutilak azkenean, eskopeta atera eta bi tiro tiratu omen zizkion. Akabo, ez omen zen gehiago agertu maindirearekin gizon hura.

### **104. Lesakako sorginak (LES-011/058)**

Mahastegian egoten omen ziren sorginak. Mahastegiko zuloa eta errotan ateratzen omen da.

### **105. Arropa bustiekin egoten ziren lanean (LES-011/060)**

Etxera bueltatzen bazinen lanetik, bazenuen arropa idorra baina txabolan bi lagun manta baten azpian egoten ziren elkarri beroa ematen.

### **106. Tabakoa errazionamenduan (LES-011/062)**

Errazionamendu garaian tabako eskasia egoten zen. Joxeren anaiak bere parte hartu eta saldu egiten omen zuen. Aitak aldiz kontsumorako tabakoa kosetxatzen zuen arto soro handi baten erdiko aldean. Tabako mota bi egoten ziren. Bata sasi motzekoa pikantea eta gogorra. Bigarren mota altuagoa eta motelagoa omen zen. Atautxik berriz arto zuritze garaian, zigarroa ahotik

kendu gabe izaten zuen. Zigarroak tripadunak egiten zituen, erdia erretzen zuenean boneta barruan gordetzen zuen eta gero berriz ere bildu egiten zituen. Txarra izango omen da baina bete atautxi 90 urtetan hil zen.

### **107. Amatxi eta aitaxiren kontuak (LES-011/063)**

Amatxiri (amautxiri) enboliak eman eta gorputz erdia gelditu zitzaion. Berako alabaren etxera eraman zuten orduan Amatxi. Aitaxi (atautxi) berriz astero joaten zen Berara larunbatean eta astelehenean bueltatzen zen etxera ezkontzako trajearekin. Oinez bueltatzen zen.

### **108. Igandero mezara (LES-011/065)**

Igandero igandero mezara joaten zen aitona.

### **109. Minara lanera (LES-011/066)**

Aitona nola joaten zen oinez egunero lanera. Lan orduak ez ziren oraingoak bezalakoak. Lau orduz

### **110. Dios te salve-ka (LES-011/068)**

Afarirako sosak biltzen zituzten kantaz. Granelean anisa eta kognaka erosi eta zurrutean ibiltzen ziren.

### **111. Gau bateko anekdota (LES-011/069)**

Juergatik gau batean etxera bueltzan zihoala gertatutakoa. Bertsotan zebiltzan etxera bertsotan ari zirela baserri batetik ura bota zieten. Erantzunean botatako bertsoa esaten du.

### **112. Inautetan juerga (LES-011/071)**

lantzikoekin, akordeoia jotzeko alkatearen debekua, neskak etxera lagundu, ostatura eta juerga.

### **113. Harategiko ostatura (LES-011/072)**

Idik sartzen ziren ostatura

### **114. Ostatutik irtetea maistruak esandakoa (LES-011/074)**

Ostatutik kantaz irten ziren batean maistruak ohu egin zien. Enfrentamendua izan zuten harekin.

### **115. Juerga eta biharamuna (LES-011/076)**

Ez zen guatzean gelditzerik

### **116. Maistruaren enfrontamenduaren ondorioak (LES-011/077)**

Kamioilari batek eman zion abisua igandean alkatearen aurrean aurkeztu beharra zuela berak eta goiko Anttoniok. Joxek Anttonio abisatua zegoela uste zuen, ez zen horrela izan eta bakarrik agertu zen alkatearen aurrean. Aterik jo gabe sartu zen udaletxean eta sekretarioa, maistrua eta gizonak zeuden han. Alkateak desafio egin zion igandean nola ibili ziren. Joxek hanken gainean ibili zirela esan zion. Kontu emateko erantzunekin esan zion. Gertaturikoaz jardun ziren orduan. Zigor eskaintza desberdinak eman zizkieten: bost egun lanean aritu bidea egiten, hogeituro ordaindu edo kartzelara joan. Kartzela aukeratu zuen Joxek.

### **117. Alkatearekin kontu gehiago (LES-011/079)**

Alkatea Iruñetik zetorren autobusez. Jaitsi zenean zera esan omen zuen: "De aquí para adelante mando yo"

### **118. Alkatearen beste bat (LES-011/080)**

Behiekin belar sorora zihoan Alkateak oihu egin zion ikusiko zuela behiak kaka egiten bazuen.

### **119. Arantzara dantzara (LES-011/082)**

Neska asko egoten zen Aranztan eta dantzara joatea asko maite zuen. Apaizek ez zuten "garrau" dantzatzen ere uzten.

### **120. Apaizak: Don Prudencio eta Don Jaime (LES-011/084)**

Erreka edo presa batean bidasoatik etorritako amuarrainak arrantzan zebiltzan batean, bi apaizak pasa ziren. Garrasi egin zieten: "Zuek ez al dakizue apaiza pasatzean ave aria purisima erran behar zaiola!" Joxek txaloak jo zituen. Apaiza atzetik atera zitzaion lasterka, beharrik oinetakoak hautsi omen zituen apaizak, bestela harrapatzen omen du.

### **121. Apaizen egunean berean hiru etapa burutu (LES-011/085)**

Apaizarengandik ihesi egin ondoren Joxek plazan zeuden soldaduei jateko granada fruitu bat hartu zien. Handik hirugarren etapa batera iritsi zen korrika. Denda bateko atarian laranja kamioi bat zegoen eta inguruan haur koadrila bat, haiekin gelditu zen Joxe. Kamioilariak dendara sartu behar zuen baina bazekien sartzen bazen hurrek laranja lapurtuko zizkiotela. Azkenean kamioilaria dendara sartu zen eta hurrek laranja lapurtu zizkieten.

### **122. Apaizen boterea (LES-011/087)**

Esaten zuten guztia sinesten zuten. Esaten omen zuten apaizek neskek ez zutela behirik jatzi behar tentazioa zelako.

### **123. Apaizek esandakoak (LES-011/088)**

Katuei ere ez omen zitzaien bizkarra ukitu behar isatsa tente jartzen dutelako...

#### **124. Apaizaren sermoikoa (LES-011/089)**

Sermoian San Anton zein ona zen esateko adibidea berriz neska eder gazte bat larru gorritan atera omen zitzaion eta ez omen zion deus ere ez egin.

#### **125. Apaiza eta amabirjina (LES-011/091)**

Txerriaren saiheskia baino hobe omen da amabirjina.

#### **126. Apaiza eta atakis, robatis, condenatis (LES-011/093)**

"El robatis que me atakis sera condenatis" beste sermoi batean

#### **127. Orduko apaizak gaiztoak izaten ziren (LES-011/095)**

Orduko apaizak gaiztoak izaten ziren-

#### **128. Apaiz hagitz ona Don Francisco (LES-011/097)**

Konbentuan egoten zen eta ongi tratatzen zituen guztiak. Konfesatu eta denei komunio ematen zien.

#### **129. Meza egun bereziak (LES-011/099)**

Jende asko etortzen zen mezara egun berezietan: corpora, aste santua...

#### **130. Inautetan eskean pasatutakoa (LES-011/100)**

Etxera joan ziren arropa aldatzera eta bertan ikusiak.

#### **131. Misioak etortzean altabozak (LES-011/102)**

Oroitzen du noiz jarri zituzten altabozak misioetako sermoiak emateko.

#### **132. Pulpitotik aritzen ziren (LES-011/103)**

Gurutze santua eskutan zuzenean akusazio pertsonalak eta barkamen ezak adierazten zituzten. Jendea negarrez paratzen zuten.

#### **133. Bulak (LES-011/105)**

Bijiliarik ez egiteko txartelak. Bijilia zer zen.

#### **134. Katua ostatuan (LES-012/002)**

Lagun batek ostatuko katua leihotik bota zuen etxeoandreak katurik ez topatzean 10na duro kobratu zien gosaria.

#### **135. Ameriketara joateko agurra (LES-012/003)**

Despedida egin zioten lagun bati Ameriketara zihoalako Afaria egin zuten eta 25 pezeta ordaindu zuten kriston afaria.

#### **136. Cadenas anisa eta 40 lagun (LES-012/005)**

Berrogei laguneko koadrila juntatu ziren eta Cadenas anis botilak berehala desagertzen ziren.

### **137. Almintea eta ronda (LES-012/007)**

Almintea erronda garaian iritsi zen 40 lagunak anisetu botilekin aritu zen gauean eta esan omen zien: "el que no quiera salir por la puerta saldrá por la ventana".

### **138. Almintek isten zituen tabernak (LES-012/009)**

Garai hartan almintea izaten zen tabernarik taberna hauek itxiarazten ibiltzen zena.

### **139. Almintea eta kamineroa (LES-012/011)**

Irrintzi bidez komunikatzen ziren.

### **140. Inauteak, joarea eta almintea (LES-012/013)**

Inautetakotan oiloa gosaldu ondoren afal garai arte juergan ibili ondoren almintea eta kamineroarekin gertatutakoa.

### **141. Inauteak astelehenetan (LES-012/014)**

Egun bakarrean ibiltzen ziren puska biltzen astelehenetan. Batez ere arrautzak biltzen zituzten, gero haiek saldu eta jan ere arrautzak

### **142. Inautetako jantziak (LES-012/015)**

Boneta, blusa, galtza urdinak, abarkak eta zapinak janzten zituzten guztiek. Ez zuten kantatzen.

### **143. Feriak Lesakan orain (LES-012/017)**

Azienda aunitz egoten da.

### **144. Lehengo feriak Lesakan (LES-012/019)**

Inguruko herrietatik ekartzen zen azienda eta tratuan ibili behar izaten zuten.

### **145. Tratuak (LES-012/020)**

Saltzailea eta eroslea egoten ziren. Borroka sortzen zen prezioaren inguruan.

### **146. Lesakako Sanferminak (LES-012/022)**

Entsegua egiten zuten bezperan. Egunean azienden bazka ondoren meza entzutera joaten ziren. Casinoan gosaria: txuleta eta gazta. Buelta bat eman eta meza nagusira. Hemendik karteroaren etxera joaten ziren zerbait hartzera. Berriz ere meza eta prozesioa. Ezpata dantzariak ondoren eta zubi gainean dantzatu. Bandera eske joaten ziren dantzatu ondoren. Plazan dantzatu eta bazkaltzera etxera. Joxek alkateari esan omen zion bazkari bat antolatzeko baserriraino joatean denbora pasatzen zelako. Karteroaren etxean bazkaltzen hasi ziren orduan.

### **147. Lesakako dantzak (LES-012/023)**

Neska dantza, jota, porrusalda eta aureskua.

### **148. Festetako tortila (LES-012/024)**

Patata tortila ematen zieten berendu, dantzatu ondoren. Berendu hori kendu egin zen bazkal ondoren berehala izaten zelako. Egun berriz bazkaria dantzatu ondoren egiten da.

### **149. Ezpata dantzariak (LES-012/025)**

Beti jantzi izan dira modu horretan. Zubian bandera eska joaten zen bitartean dantzatzen zen zubian.

### **150. Lesakako dantzak 2 (LES-012/027)**

Dantzatzean nola ibiltzen ziren, ardoa nola banatzen zuten dantza artean... Jota bakoitzak bere erara dantzatzen omen zuten ez orain bezala denak berdin.

### **151. Beztitzeko modu desberdinak (LES-012/029)**

Baziren etxe batzuetan desberdin janzten zirenak inautetan.

### **152. Olentzero (LES-012/030)**

Esposatu bitartean ez zuen Olentzerorik ikusi Joxek. Baserrian ez zieten inportantziarik ematen gauza horiei.

### **153. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 1. (LES-012/031)**

Jende aunitz ibiltzen zen. Lesakako jendeak paketek Bidasoan hartzen zituzten. Baserrietakoak ur handiekin txalupa batean pasatzen ziren soka batekin ibaiaren alde batetik bestera txalupa ekarrarazten. Harri kokkor bat uretara botatzea zuten seinale.

### **154. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 2: zibilak. (LES-012/033)**

Guardia Zibila bijilatzen ibiltzen zen. Bideetan ere kapote eta fusil handi batzuekin jende taldeen arrastoak bila

### **155. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 3: espiak. (LES-012/035)**

Noiz pasatzen ziren erraten zuten espiek. Guardiak ere egiten zituzten paketek pasatzeko.

### **156. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 4: espian lana. (LES-012/036)**

Espiek nola lan egiten zuten akaso aurreko pasartean baino garbiago adierazten du.

### **157. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 5: lana bazela, abisua (LES-012/037)**

Etxera abisatzen zieten kontrabandistei lana bazela. Askotan pasa bideak aldatzen ziren eta lan egiteko moduak.

**158. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 6. Nagusiak eta peoiak. (LES-012/038)**

Beste edozein lanetan bezala batzuk nagusiak eta besteak langileak ziren. Paketea pasatzen bazenuen kobratzen zenuen, ez bazenuen pasatzen kobratu gabe geratzen zinen.

**159. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 7. Bi beratar ito. (LES-012/040)**

Bi berako mutil bidasoan galdu ziren. Guardia zibilaren aurretik ihesi Lesakako zubitik aurrerago dagoen zurrunbilo batean ito ziren.

**160. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 8. Azienda gainean igerian. (LES-012/041)**

Aditua du ur handiekin, aziendek igeri egiten dutenez, behi gainean jarri eta gainean pasatzen zirela.

**161. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 9. Beste gazte bat hilik. (LES-012/042)**

Beste gazte bat hil zuten berako zubitik tiroa botata. Elementu edarra izan behar zuen, guardiei burlak gogorak egiten zizkietena eta horregatik espreski hil omen zuten.

**162. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 10. Guardia Zibil salduak. (LES-012/043)**

Bere garaian ohiko izaten zen guardia zibilak erosiak izatea. Kontakizun bat: behin guardia zibil bikoteak seinalea egin zuen gazte baten ondotik pasa zen. Bikotean bat erosia zen baina bestea ez. Erosi gabe zegoenak zein seinale mota egin zuen galdetzen omen zion. Azkenean erosi gabe zegoenak herrian esan zion gazteari berarekin hitz egin nahi zuela. Elkartzean harrek ere bere bikoteak bezala kobratzea nahi zuela esan omen zion.

**163. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 11. (LES-012/045)**

Asto bat harrapatu zuten hiru paketerekin eta herrira ekarri zuten guardiek.

**164. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 12 : paketeen bidea (LES-012/047)**

Zuk hartu eta puntu batera eramaten zenuen. Han beste batek hartzen zuen eta harrek aitzinera eramaten zuen.

**165. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 13: harrapatutako paketeak (LES-012/048)**

Harrapatzen zituzten paketeak kuartelera ekarri eta ondoren Iruñera eramaten zituzten subastan edo ateratzeko.

**166. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 14. Bi bidai egin beharra (LES-012/050)**

Kontrabando gau batetako istorioa.

**167. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 15. Galdutako bidaia (LES-012/051)**

Lau gauetan zain egon ziren bidai bati. Bidaia egin behar zuten unean Guardia Zibila atera zitzaien eta jornalik atera gabe geratu ziren.

**168. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 16. Lan gogorra (LES-012/052)**

-Lan gogorra? -Bai, ez zitzaidan gustatzen. Egin izan nuen sosa ateratzen baitzen eta lagunekin afariren bat edo egiteko ongi etortzen zelako baina ez zitzaidan sekula gustatu. Beti beldurka eta toki txarrean.

**169. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 17. Behatza paketearen sokaz apurtu (LES-012/053)**

-Goiti beiti nindoala paketearen soka behatzean bildua neraman. Erori eta behatza bihurtuta geratu zitzaidan. Etxean konpondu behar izan nuen egur bat paratuta.

**170. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 18. (LES-012/054)**

-Istripuren bat izanez gero? -Ez zen ez segurorik ez deus ere. Nori joan behar zenuen reklamatzera?

**171. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 19. Iratzargailuak jo (LES-012/056)**

Puntilak, iratzargailuak... egoten ziren paketeen barruan. Iratzargailu bat paketetik atera eta baten batek kuerda eman omen zion. Goiti-beiti dioala taaarrrrrrra!! iratzargailua joka.

**172. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 20. Penizilina (LES-012/057)**

Pakete txiki bat tokatu zitzaioan gau batean. Txikia baina txarra zen ez bai zen soinean geratzen. Zulo bat zuen eta usaia botatzen zuen.

**173. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 21. (LES-012/059)**

Hiru anai ezkongabeak, bizkorrak izaten ziren pasatzen. Txokolatea eta zato ardoarekin ibiltzen ziren pasan. Anaien estrategiak kontatzen ditu.

**174. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 22. Bidea eta gertakizun arraroak (LES-012/060)**

Batzutan Igantzitik barna ibili behar izaten zuten. Gau batean izugarritzko argi batek Igantzi guztia argitu zuen. Izutu egin ziren eta aurretik zioan mutila erdi hilik bezala agertu zen. Ez daki esaten zer izan ote zen hura.

**175. Kontrabandoa Bidasoa ibaian 23. Paketeen pisuak (LES-012/061)**

Normalean 30-40 Kilo. Batzutan rodamenduek eta pisu handia zuten. Nola moldatzen ziren paketeak eramateko.

**176. Sacamantecas Lesakan (LES-012/063)**

Kontatzen zizkiguten txakur errabidunak zeudela eta sacamantecasen kontuak eta izutu egiten gintuzten haur ginelarik.

### **177. Batallon de trabajadores Lesakan (LES-012/064)**

Lanean beharturik egon ziren bide egiten. Beste aldean arrapatuak edo izaten ziren. Goseak izaten zituzten.

### **178. Neskazaharraren bertsoak (LES-013/002)**

Neskazaharraren bertsoak kantatzen ditu: "Bertsoak jarri dizkiat neure buruari, nahigabeak badauzkat barrenean ugari, mutil gustukorikan ez delako ageri..."

### **179. Dotea eta etxeko parte (LES-013/003)**

Etxaldekoek, ezkontzen zirenean, dotea (dirua) eman behar zieten beste etxaldeko senideei. Etxeko parte zer zen azaltzen du: etxearekin gelditzen zenak, senide ezkongabeak asistitu behar zituen, haien kargu egin behar zuen.

### **180. Sunbildar bati paratutako bertsoak (LES-013/004)**

Duela hirurogei bat urte herriko etxean kantatu zituen bertsoekin (Pablo Iantzi sunbildarrari paratutakoak) irabazi zuen lehiaketa: "Bertso berriak jartzeko orain hartu det idea, iruditzen zait bai daukadala nahiko arrazoibidea..."

### **181. Bertsoak. Baserritarraren emaztegaia gozogilearekin ezkondu (LES-013/005)**

Mendian lanean ari zirela, kantatzen aritzen ziren; orduan ikasitako bertso batzuk kantatzen ditu. Baserritarraren emaztegaia gozogilearekin ezkondu zen: "Bertso batzuekin finitzeko hartu det pentsamentua, behar bezela hoi jartzeko baldin banu talentua..."

### **182. Bertsoak. Haserretutako ezkongaiak (LES-013/007)**

Haserretutako ezkongaien bertsoak kantatzen ditu: "Farrai eragin behar du asko gure ezkontza galduak, nerure andregai Martarengatik dira horrelako kontuak..."

### **183. Bertsoak erosi. Bertsotan aritzeko ohitura (LES-013/008)**

Lehen bertsoak saltzen zituen gizon besamotz bat etortzen zen herrira; hari erosten zizkion paperak. Bertsotan aritzeko ohitura izugarria zegoen; ostatutan biltzen ziren koadrilak eta kantari aritzen ziren. Batek kantatzen zuen bitartean, ostatuan zeuden lagun guztiek isil-isilik aditzen zuten. Gauza polita zen, orain dena aldatu da. Bere aitatzik erraten zion bezala, bizitzeko umorea behar da.

### **184. Multa, bertsotan aritzeagatik (LES-013/009)**

Frankistek hamar duroko multa jartzen zieten bertsotan aritzen zirenei.

### **185. Beste herritara bertsoak kantatzera (LES-013/010)**

Beste herritara joaten ziren bertsoak kantatzera; lehiaketetara eta inauterietara joaten ziren, besteak beste. Inauterietan bost edo sei saio egiten zituzten eta ederki jaten zuten. Bazkari eta afari horietan gauza anitz ikasten zituzten, pixka bat edan ondoren apezek, udalekoek eta maisuek kontatzen zutenarekin.

### **186. Anekdotak. Eratsungo apezaren kontrako bertsoak (LES-013/011)**

Eratsunera bi lagunekin joan zeneko anekdota kontatzen du. Mezara joan eta, ateratzerakoan, bi anaiak apezaren kontra hasi ziren.

### **187. Egoeraren araberrako bertsoak bota behar dira (LES-013/012)**

Jakin behar da non eta zer bota; tokia eta egoeraren araberrako bertsoak bota behar dira. Anekdota bat kontatzen du: San Juan egunean, lgantzira joan ziren eta, apaizak eskatuta, bertako urari buruz bertso batzuk bota zituen eta beste batek gaizki erantzun zion.

### **188. Santa Barbararen bertsoak 1 (LES-013/014)**

Santa Barbararen bizitzari buruzko bertsoak kantatzen ditu: "Santa Barbara zure bizitza kantatu behar det zabaldu, argitasun bat memoriara nahi badidazu bialdu..."

### **189. Santa Barbararen bertsoak 2 (LES-013/016)**

Santa Barbararen bizitzari buruzko bertsoen jarraipena.

### **190. Santa Barbarari errezatu (LES-013/017)**

Tximistak hasten zirenean, bere amak erramu bedeinkatua erre, kandela bedeinkatua piztu eta Santa Barbarari errezatzen zion. Duela urte asko, apezari eta herriko beste bati mendian gertatutakoa kontatzen du: erauntsia heldu zelarik arbola baten azpian jarri ziren eta Santa Barbarari otoitz egin zioten; bada handik alde egin zutenean, tximista bat erori zen zuhaitz horretan. Etxeko atean eta autoan ere jartzen dira erramu bedinkatuak.

### **191. Tximistekin ezbeharrak (LES-013/018)**

Behin bere etxean tximista bat sartu zen eta anaiari min egin zion. Beste batean, kalean tximista erori eta bost metrora bota zion

### **192. Adan eta Evaren bertsoak (LES-013/020)**

Jainkoa eta kreazioari buruzko bertsoak kantatzen ditu, Adan eta Evaren bertsoak: "Denbora, leku, zeru ta lurra, izar, laino (?), argi (?), eguzkiak..."

### **193. Linboa eta purgatorioa (LES-013/021)**

Bataiatu gabeko haurrak hiltzen zirenean, linbora joaten zirela erraten zuten. Purgatoriora bekatu benialak zituztenak joaten ziren hiltzerakoan, han pagatu eta gero zerura joaten ahal ziren.

### **194. Ordurik gabe, lasai bizi (LES-014/002)**

Ez zuten erlojurik eta, ordurik gabe, lasai bizi ziren. Itzalaren arabera jakiten zuten zer ordu zen. Lehen ordua ez zen kanbiatzen.

### **195. Kontrabandoa (LES-014/004)**

Lehenbiziko paketea 14 urtetan eraman zuen. Guardia zibilak atera ziren eta anaia kartzelara eraman zuten.

### **196. Anaia gerrara. Izeba moja (LES-014/005)**

Anaia gerrara eraman zuten eta han gertatutakoa azaltzen du. Izeba moja joan zen behartuta eta han maitemindu zen.

### **197. Apezak Lesakako 30 lagun salbatu zituen 1 (LES-014/006)**

Lesakatik 30 lagun eraman zituzten fusilatzerara. Apez batek bertan hiltzeko erran zien soldaduei, Iruñera eraman beharrean. Beste apez batek, berriz, bera hiltzeko lehenengo erran zien, bekaturik ez zutela, eta denak libratu zituzten. "Apez guztiak ez dira berdinak".

### **198. Fusilamenduak 1 (LES-014/008)**

Besteak beste, Oiartzun eta Iturenetik ekarri zuten jendea kamioi batean eta fusilatu. Oiartzungo batek, hainbat pentsonen izenak eman zituen eta gero fusilatuak izan ziren; bere semea (apeza zena) nola enteratu zen azaltzen du. Ez pagatzeagatik (adibidez musean galduta) salatzen zuten jendea. Errenterian gertatutako beste istorioa kontatzen du, bati hilko zutela erran zioten. Lesakako Inaxio izeneko gizon bat ere fusilatu zuten, hegazkinei seinaleak egiten zizkielakoan, soroan arropa jartzen zuelako usaia emateko.

### **199. Eskola (LES-014/010)**

Baserritarrak eskolara gutxi joaten ziren, baserriko lanetan lagundu behar zutelako, eta atzeratzen ziren. "Caseros tontos" erraten zieten. Maisuak herrikoei ematen zien lehentasuna

### **200. Soldutza. Euskaldunak ongi ikusiak (LES-014/011)**

Soldadu denboran segituan ikasi zuen teorikoa eta beste euskaldunei irakasten paratu zuten. Garai hartan euskaldunak ongi ikusiak ziren. Kapitanarekin ongi moldatzen zen; kapitanak bazekien bera kontrabandoan aritzen zela. Izan ere, kapitana bera kontrandisten kide izaten zen.

### **201. "Ejercicios" eta misioak (LES-014/013)**

"Ejercicios" urtero izaten ziren, Bazkoz egiteko. Misioak, berriz, hiru urtetik izaten ziren; oihuak botatzen zituzten pulpitutik eta jendea ikaratzen zen.

### **202. Bazkoz egitea (LES-014/015)**

Bazkoz egitea zer zen azaltzen du: apezarengana joan behar zenuen eta dotrina esan, berak txartel bat emateko. Gero, aldarean, komulgatzerakoan, saski bat pasatzen zuten txartelak hartzeko. Txartelak bakoitzaren sinadura zuenez, nor komulgatzen zen eta nor ez ikusten zuten.

### **203. Ama ezkongabeak (LES-014/016)**

Ezkondu aurretik ama izandakoak, ez ziren aldarearen parean ezkontzen, bazterrean baizik. Umea izan eta ez ziren urte batez etxetik ateratzen.

### **204. Aparte lurperatu (LES-014/017)**

Urkatzen zirenak edota Bazkoz egiten ez zutenak aparte lurperatzen zituzten; ez zituzten lur sakratuan lurperatzen.

### **205. Hilabetero konfesatu. Apez xelebrea (LES-014/019)**

Apezarengana konfesatzera joan behar zuten hilabetero. Belarritik tiratzen zuen musu eman zenuela erranez gero. Neska bati erran zion bizkarrean laztantzen ez uzteko, "hori peligrroso da, katuei ere eskua bizkarretik pasatuta, buztana goiti egiten dute". Bikote bat muxuka ikusi zuela-eta, zera erran omen zuen: "nik erran edo ez erran, igual da, el que pueda, pueda, cartucho al cañón". Saldiskoa zen apeza. Beste xelebreekiak kontatzen ditu: guardiei erran ziena eta San Anton mutilzaharren istorioa. Baratzeko ataka lapurtu ziotenean sermoian erran zuena: "errobati mi atacatis sea condenatis; horrek erran nahi du gure baratzeko ataka ebatsi duena kondenatuko dela". "Marimachos, ez arra eta ez emea".

### **206. Mezara joan (LES-014/020)**

Lehen jende guztia joaten zen mezara. Hiru meza izaten ziren eta hirutan eliza betetzen zen. Emakumeek mantelina eraman behar zuten komulgatzera joateko. Apezak neska bati kendu zion mantelina, sobera gora zeramalako.

### **207. Mutilekin dantzatzea debekatuta (LES-014/021)**

Mutilekin dantzan aritzeagatik, Mariaren Alabatik bota zuten neska bat eta medaila kendu zioten.

### **208. Inauteriak (LES-014/022)**

Baserrietan arrautzak biltzen zituzten inauterietan. Debekatu zituzten inauteriak. Guardia Zibilar baimena eskatu zioten plazan akordeoia jotzeko, baina ez zien eman, "ezta 100 dozena arrautza emanda ere"; ostatuan ibiltzeko bakarrik zuten baimena. Puska biltzera joaten zirela nola jantzen ziren: blusa, lastozko kapela, abarkak eta txapinak. Arrautzak, xingarra eta lukainka ematen zizkieten baserrietan. Gerra aurretik baziren zaku-zaharrak, gero galarazi zituzten eta Franco hiltzean hasi ziren berriz.

### **209. Alkateari bertsoa (LES-014/023)**

Alkateari bertsoa bota zion: "Begi gorri bat degu herriko alkate, horrek egiten degu makin bat kalte...". Hamar duroko multa jar riko ziola erran zion, baina, aita laguna zuenez, libratu zen. Ostatuan irrintzi egiteagatik multa eman zuen alkateak.

### **210. Gabon-gaua. Olentzero (LES-014/024)**

Gabon-gauan mutilak Olentzerorekin ibiltzen ziren, sosa biltzen, eta neskak jaiotzarekin. Olentzeroren panpina nola egiten zuten azaltzen du; kuadrilaka ibiltzen ziren auzoan barrena. "Olentzero buru handia..." kantatzen zuten.

### **211. Urtezahar-gaua. "Dios te salve" (LES-014/025)**

Urtezahar-gauan, "Dios te salve" egiten zuten. Kanta abesten du. Sosa biltzen zuten. Etxekoandre batek kaskoan jo zion, ustez aurretik pasatako taldekoa zela; izan ere, hoiek honako hau kantatu zioten: "...etxe hontako etxekoandrea, kantaroa kakaz betia".

### **212. Herrien fama (LES-014/027)**

Herrien fama: arantzarrak, harrikalariak; beratarrak, "burlosoak".

### **213. Bedeinkazioak eta errogatibak (LES-014/029)**

Apezek landak bedeinkatzen zituzten. Euria egiteko errogatibak egiten ziren eta San Migel ekarri.

### **214. Mezak atera, arimak uxatzeko (LES-014/030)**

Zerbait arraro sumatzen zela, sorginak edo arimak zirela-edo, mezak ateratzen ziren, arimak uxatzeko. Gizon bati hilda zegoen aita atera omen zitzaion, purgatorioan zelako; meza atera eta ez zen gehiago agertu.

### **215. Mamurra (LES-014/031)**

Gizon bati itzal arraro bat jarraitzen zion, buru gainean zegoen mamur batek egiten zuena, hain zuzen.

### **216. Sorginak (LES-014/032)**

Animaliak mugitzen ez zirelarik, sorginak zirela erraten zuten lehengo zaharrek, parte txarrekoak zirela. Leku jakin batzuetan, ematen zituzten parte txarrekoak sorginek. Istorio bat kontatzen du: gizon bat zubia egiten ari zen, baina ezin zuen bukatu, azkeneko harria erortzen zitzaiolako; infernuko deabrua agertu zitzaion eta erran zion oilarrak kukurruku egin orduko amaituko zuela. Andre batek arazoa konpondu zuen, oilategian zera esanda: "martxoko oilar gorria, badun gabaren erdia, jo zak jo behar badun".

### **217. Hilzorian (LES-015/002)**

Andre bat ohatzean hilzorian zen. "Zer moduz?" aditu behar zuen hiltzeko.

### **218. Sorginkeria pasatu (LES-015/003)**

Sorginak hiltzeko sorginkeria pasatu behar zuen. Sorgin batek behiari pasatu zion.

### **219. Katu beltza sorgina zen (LES-015/004)**

Katu beltza sorgina zen. Katu beltza joan, jo eta bertze etxeko atsoa eritu zen.

### **220. Zer erran sorginak agertzean (LES-015/005)**

Zerbait arraro sumatzen zutela, zer erraten zuten azaltzen du: "onazkoa bahaiz mintza hadi, txarrazkoa bahaiz, honda hadi".

### **221. Sorginek atea estutu (LES-015/007)**

Sorginek atea estutzen zuten eta defuntua ezin zen atetik pasa. Hori ez gertatzeko, limosna emateko atea ireki behar zen, ez zen ate gainetik eman behar.

### **222. Erreguak egin. Mezak atera (LES-015/008)**

Erreguak egiten ziren eta kandelak paratu. Soldatu bati gertatutakoa azaltzen du. San Antoniori eskaerak egiten zizkioten: adibidez, gizon baten behiak maldatik behera erortzeaz zeudela, gizonak San Antoniori behiak geldiarazteko erregutu zion eta, hala egiten bazuen, urtero meza atera eta kandela piztuko ziola agindu zion. Berari gertatutakoa: behi bat eritu zitzaion eta meza eskaintzera joan ondoren, sendatu zen. Orduetik egunero errezatzen dio San Antoniori. Txabola batean argia bueltaka ari zela-eta, izututa meza atera zuten eta akitu zen.

### **223. Sorginek animalien forma hartu (LES-015/009)**

Sorginek animalien forma hartzen zutela erraten zen.

### **224. Lamiak (LES-015/010)**

Lami zuloak badira. Lami zulo handi bat dago komentutik hurbil. Lamiak pertsonen modukoak omen ziren; ile handia zuten eta solas egiten zuten. Berrotan esnea edaten zuten. Behin puzkerra bota, tupinak buelta eman eta ipurdia erre zuten; "neronek nere buru" egin zuela erran zuten. Norbaitek zerbait egiten bazien, hiltzen zuten, baina haiek haien buruari eginez gero, ez zen ezer gertatzen.

### **225. Erremedioak. Kolesterolarentzat (LES-015/012)**

Kolesterolarentzat, tipularen ura edan behar da zortzi egunez, baraurik.

### **226. Erremedioak. Giltzurrunak garbitzeko (LES-015/013)**

Giltzurrunak garbitzeko, belar baten hostoak egosi eta ateratzen den ura egunean lau aldiz hartu behar da, hamar bat egunez.

### **227. Erremedioak. Tentsioa jaisteko (LES-015/015)**

Tentsioa jaisteko osinen zainak hiru egunez baraurik

### **228. Erremedioak. Hazizurrientzat (LES-015/017)**

Hazizurrientzat ardi ilea zintzurrean paratu behar da.

### **229. Erremedioak eta sinesmenak. Sugeen ausikientzat eta kalitxentzat (LES-015/018)**

Sugeen ausikientzat errezo bat izaten zen; andreek egiten zuten (Lesakan bi emakumek egiten zuten). Kalitxentzat errezoa, berriz, gizonek egiten zuten: aitagurea aldrebez erraztzen omen zuten; txapela kendu eta gurutzea ere egiten zuten. Azienden kalitxak kentzeko, apo bat bote batean sartzen zuten. Kopetan minbizia zuen gizon bati apoa paratu zioten gainean eta sendatu omen zen. Kalitxak eta granoak sendatzeko, San Juango iturrian garbitu, ermitan limosna eman edota bertan hartutako bederatzi hostorekin gurutzea egin behar zen.

### **230. Mando tratuak (LES-015/019)**

Inaxio Legasa ezkontza tratuak (mando tratuak) egiten aritzen zen Lesakan. Arropa saltzailea zen. Hasieran 100 duro kobratzen zituen eta, gero, 600 pezeta (denbora hartan behi bat erosten ahal zen diru horrekin). Merkatuetan ere egiten ziren mando tratuak, gurasoek beraiek egiten zituzten askotan.

### **231. Apezak Lesakako 30 lagun salbatu zituen 2 (LES-016/001)**

Lesakatik 30 lagun eraman zituzten fusilatzerara. Belatera iritsi zirenean, apez batek bertan hiltzeko erran zion kapitainari, baina honek Iruñera eramateko agindua zuela erantzun zion. Biharamunean, Lesakako bikarioa Iruñera joan zen; berak baino kulpa gehiago ez zutela eta lehenbiziko bera hiltzeko erran zion. Azkenean, denak libratu zituzten.

### **232. Fusilamenduak 2. Frantziara alde egin. Salaketak (LES-016/002)**

Lesakako Inaxio izeneko gizon bat fusilatu zuten, hegazkinei seinaleak egiten zizkielakoan, soroan arropa jartzen zuelako usaina emateko. Jende asko Frantziara alde egin behar izan zuen. Errepublikazale edo abertzalea izatea "delitua" zen. Oiarzungo Goñi batek, inbidiaz edo dirua zor zielako salatzen zuen jendea eta gero fusilatzen zituzten. Erreterian gertatutakoa azaltzen du.

### **233. Bertsoak. Ameriketara artzain joandakoak 1 (LES-016/004)**

Pablo Iantzik paratutako bertsoak: "Hitz neurtu berri batzuek Amerikera Euskadi aldetik, Naparrurako herri bat Lesaka izena duen batetik...". Lehenengo zatia.

### **234. Bertsoak. Ameriketara artzain joandakoak 2 (LES-016/005)**

Pablo Iantzik paratutako bertsoak: "Hitz neurtu berri batzuek Amerikera Euskadi aldetik, Naparrurako herri bat Lesaka izena duen batetik...". Bigarren zatia.

### **235. Bertsoak. Ameriketara joan aurreko agurra (LES-016/006)**

Bertsoak. Xalbador Etxarteren agurra Ameriketara joan aurretik: "Kantuz egin bihar det nere despedida banoialakoz guztiz urrungo tokira..."

### **236. Bertsoak . Bekaizkeriaren kontra (LES-016/007)**

Bekaizkeriaren kontrako bertsoak: "Landaretxotan kaltegarri da itzal gaiztozko belarra, beste guztiek galdu baino lehen dago atera beharra..."

### **237. Bertsoak. Emakumeen egoeraren aldaketa (LES-016/008)**

Emakumeen egoeraren aldaketari buruzko bertsoak: "Ai maite dela aiton batekin sarritan ditu tratuak, laurogei urte ditu oraintxe berengan egin dugu tratuak..."

### **238. Bertsoak. Semea hilzorian (LES-016/009)**

Semea hilzorian dela, sentimenduzko bertsoak: "Lagundurikan danoi gugatik hil zana, seme hazi zaitugu aitak eta amak..."

### **239. Bertsoak. Retegi txapeldun (LES-016/011)**

Berak Retegiri paratu zizkion bertsoak: "Hirugarren urtia Retegi txapeldun, Retegi txapeldun, hoberikan ez dala guk esan dezagun..."

### **240. Latasa eta "Luxia" aizkolariak (LES-016/013)**

Latasa eta "Luxia" aizkolarien arteko apostuari buruz mintzatzen da. Lehengo aizkolariak ez ziren orain bezala entrenatzen.

### **241. Euskararen ezberdintasunak (LES-016/015)**

Bortzirietako herri bakoitzeko euskara ezberdina dela azaltzen du.

#### **242. Jostun 18 urtetarako (LES-017/001)**

Modista eta sastra zen 18 urtetan. Luxiana eta Joxepanttoni bere irakasleak.

#### **243. Sastra lana (LES-017/003)**

Gizasemei trajeak egitea zen sastra lana. Komunioetarako eta ezkontzeko gizonezkoek.

#### **244. Esposatzeko arropak (LES-017/005)**

Emakumeak beltzez, aberatsek arrosa edo zuria zuten soinekoa.

#### **245. Gizonen esposatzekoak (LES-017/007)**

Gizonezkoek orokorrean bi traje egiten zituzten ezkontzekoa eta bidaiara eramatekoa. Berak bidaiara eramaten zutena josten zien. Nolako trajeak ziren gizonezkoenak.

#### **246. Anekdota (LES-017/008)**

Beharra zuen emakume bat nola etorri zitzaion eta Maialenek lasaitu zuen. Azkenean traje ederra egin omen zieten mutikoari komuniorako.

#### **247. Telak saltzen ziren (LES-017/010)**

Ez zen ezer ere ez eginik saltzen. Telak erosi eta dena josten zenez lan asko izaten zuten. Herrian ere saltzen ziren telak baina trajeak egiteko Maialenek Donostian eta Iruñean erosten zituen.

#### **248. Telak aukeratzekoan (LES-017/012)**

Muestrario bat izaten zuen erostera joaten zeneko bi etxeetakoa. Erostenak aukeratzeko eta Maialenek Iruñeako Ferrazetik edo Donostiatik ekartzen zituen.

#### **249. Pelaioen arropak josi zituen (LES-017/014)**

Berak josi zituen herriko pelaioguztien arropak.

#### **250. Telak ordaintzeko... (LES-017/016)**

Dendetan sei hilabeteko epea izaten zuen telak ordaintzeko. Orduan inoiz ez zuen arazorik izan denek garaiz ordaintzen zioten.

#### **251. Lan orduak (LES-017/018)**

Hogei orduz egoten zen goizeko 2:00etatik gaueko 20:00etaraino egoten zen apiriletik, uztailean. Apendizak ere bazituen garai hartan eta haie erakusten zien.

#### **252. Fabrikarako lan anitz (LES-017/020)**

Buzoak, "batas blancas", nagusiendako...

#### **253. Josteko makina (LES-017/022)**

Josteko makina, Expres handia izaten zuten.

#### **254. Igandetako arropa (LES-017/024)**

Igandeetako arropa txukuna izaten zuten guztiek baina astez ahal zen moduan konponduriko arropa. Asko probesten zen arropa

#### **255. Galtzak “pedaztu” (LES-017/026)**

Galtzak apurtzen zituztenean beste zati bat josten zitzairen.

#### **256. Abrigoak (LES-017/028)**

Senide batetik bestera pasatzen ziren.

#### **257. Barrengo arropak (LES-017/030)**

Ez zuten barruko arropa asko egiten.

#### **258. Eskerrak eta lotsak (LES-017/032)**

Opariak egiten dizkiote oraindik orain. Emakume bati lotsatu egiten zela oparia hartzez esan zion. Har erantzun zion hura ere lotsatu izan zela alabarentzat komunioko soinekoa egin zionean eta aretzea saldu bitartean nola ordaindu egon zenean.

#### **259. Kafea denentzat (LES-017/034)**

Arropak probatzera eta etortzen ziren guztiei kafea ateratzen zieten.

#### **260. Hilak beztitu (LES-017/035)**

Tela arrosa eta urdina izaten zuen beti etxean. Orduan haur asko hiltzen zen eta hiletarako “aingeru bat bezala” janzten omen zituen. Helduak ere prestatzen zituen hiletetarako.

#### **261. Ezkontzako arropak lurperatzeko (LES-017/036)**

Gehienek erabiltzen zuten ezkontzako trajea heriotzean. Gizonezko gehienek horrela lurperatzen ziren eta emakumeak ere asko. Gogora dakar bere amonaren hileta.

#### **262. Gerrako kontuk 1. Ustekabean (LES-017/038)**

Ustekabean etorri zela dio. Beheko errota bizi ziren.

#### **263. Gerrako kontuk 2. Endarlizko zubia botatzearen ondorioak (LES-017/039)**

Gerra 18an hasi zen eta santiago egunean hildako pila bat ekarri zituzten Lesakara. Endarlizko zubia bota zuten Gipuzkoara pasatu ahal ez izateko. Lesakatik barrena joan ziren orduan. Jendeak Frantzira alde egin izan zuen.

#### **264. Gerrako kontuk 3. (LES-017/041)**

Bere azkeneko etxea guardia zibilen kuartel bilakatu zen. Zorritz betea egon zen.

#### **265. Gerrako kontuk 4. Soldaduak herrian (LES-017/043)**

Soldaduak herri inguruan. Gorriak ere han ziren.

### **266. Gerrako kontuk 5. Esnea edan ziguten (LES-017/045)**

Soldaduek behia jaitsi zieten eta esnea edan.

### **267. Gerrako kontuak 6. Ama eta ahuntzak (LES-017/047)**

Ama basotik zetorren ahuntzekin. Gorriekin topatu zen eta agurtzeko esku eskubia jaso omen zuen. Hauek tiro eginez erantzun zieten nahiz eta ez zioten aztatu edo eman.

### **268. Gerrako kontuak 7. Anaia kamioilari (LES-017/049)**

Gerra amaitu arte soldaduen gidari izan zen anaia.

### **269. Gerran kamioiarekin (LES-017/051)**

Garraioan aritu izan da anaia. Gerra garaian berriz hilak eta ekartzen aritu zen kamioiarekin.

### **270. Gerrako kontuak 8. Ekonomia (LES-017/053)**

Goserik ez zuten pasa baina dirurik ez zuten.

### **271. Piszifaktorian lanean (LES-017/055)**

Han kolokatu eta 90 pezeta irabazten zituzten hilabetean.

### **272. Arraia jatez igundu zen (LES-017/057)**

Denetarik ekartzen zieten freskoak eta nazkatu egin zen.

### **273. Osaba inbentore (LES-017/059)**

Arrantzan erabiltzen den kainaberaren karretea bere osabak asmatua omen da. Donostian idatzia omen dago.

### **274. Pioi anaiarekin (LES-017/061)**

Astean sei pezeta irabazten zuten. Berendu pixka bat ematen zieten. Arto, patata... jorran. Bentan.

### **275. Haur bataioak. Lesaka (LES-017/063)**

Amautxi eta atautxik jaio eta berehala eramaten zuten bataiatzera haurre. Ondoren bazkaria egiten zuten. Oilo salda eta haragia, arroz esnea edo natila eta kafea. Bitartean ama gaztea ohean.

### **276. Haurren izenak (LES-017/064)**

Gurasoek aukeratzen zuten orokorrean, nahiz eta atautxi eta amautxiren izenak jartzea oso ohiko azen.

### **277. Bataiotako aberats kontuak (LES-017/066)**

Erramotsa botatzen zuten, dirua.

### **278. Konfirmazioa (LES-017/068)**

Segun eta obispoa noiz etortzen zen egiten zen. Hiru lau urtetik etortzen zen.

### **279. Komunioa zazpi urtetan eta solemnea (LES-017/069)**

Zazpi urterekin egiten zen eta solemnea 12 urtean.

### **280. Pregoiak (LES-017/071)**

Bazkari pixarra. Gazteak zorionak ematera joaten ziren ezkongaiengana.

### **281. Bere ezkontza (LES-017/073)**

Elurra ari zuen egun batean ezkondu ziren. Bazkaria eta akordeona dantzatzeko. Ezkon bidaiari Donostiara joan ziren. Garizuman ezin zen ezkondu. Astearte eta ostiraletan ere ezin ezkon zitekeen.

### **282. Elizakoak ematera hil aurretik (LES-017/075)**

Norbait hiltzeko zorian zegoelarik apaiza nola joaten zen haren etxera. Bertan oliadura eman, konfesatu, etxeok agurtu eta hiltzeko prest geratzen zen eria.

### **283. Hiltzean (LES-017/077)**

Hiltzean arrosarioa errezatu, eta biharamunean hileta.

### **284. Defuntua ez zen bakarrik uzten (LES-017/079)**

Beti norbait egoten zen hildakoarekin. Bitartean arrosarioa errezatzen zen.

### **285. Hiletak (LES-017/081)**

Aberatsek bildotsa eramaten zuten elizara. Bigarren klasekoek ogi pila bat eramaten zuten eta hirugarren klasekoek ez zuten ezer ere eramaten.

### **286. Lutoa (LES-017/083)**

Gurasoentzat bi urte eta urte bat mantonarekin urte bat elizara.

### **287. Sepulturak elizan (LES-017/085)**

Bakoitzak bere etxekoen sepulturan argizari olak jartzen zituen.

### **288. Argizaiolak (LES-017/086)**

Ola batean argizaria jartzen zuten bakoitzak bere tokian.

### **289. Mariengraxi sorgina (LES-017/088)**

Mariengraxi sorgina ospitalera joan eta bertan gertatutakoa. Eriak sendatzen omen zituen. Lesakako etxe txar batean bizi zen. Maialenen aldean oso zaharra zen.

### **290. Sorgintxulo baserria (LES-017/090)**

Bertakoak ezagutu ditu baina sorginkeriarik ez.

### **291. Lehengo jendeak fedea zuen sorginengan (LES-017/092)**

Sendatu egiten omen zuten. Etxeetan soinuak izaten omen ziren eta apaizak bedeinkatzera etor behar izaten zuten.

### **292. Kalaberekin beldurtzen zituzten (LES-017/094)**

Haurrak kalaberak aterako zirenaren beldur izaten ziren.

### **293. Kalabereak gordeak (LES-017/095)**

Gelan kalaberak gordeak izaten zituen gizonaren kontakizuna.

### **294. Arropa arroparrian garbitu (LES-017/097)**

Saboiakin garbitu ongi arroparrian, akklaratu eta sekatu. Lehenengo maindireak, gero burukoak. Bokatak zer ziren.

### **295. Eguberriak (LES-017/099)**

Lau neska jaiotzarekin ibiltzen ziren. Pezeta bana biltzen zuten. Eguberri bezperan ateratzen ziren etxe etxe eta mutilak Olentzerorekin. Jesusi kantatzen zioten. Orokorrean erderaz kantatzen zuten.

### **296. Kanta (LES-017/101)**

“Haurtxo txiki eder bat jaiotzen zaigu...” Baina gehiena erdaraz.

### **297. Azokak Lesakan (LES-017/103)**

Igandetan jubilatuen ondoan pikua saltzen ibili zen. Asko atera omen zuen. Denetarik saltzen zen azoka hartan. Beste azoka bat ostegunetan hamabost egunetik.

### **298. Feriak (LES-017/105)**

Ferriak azaroan izaten ziren orokorrean. Bigarren egunean kanpotik etortzen ziren eta denetarik egoten zen saltzeko. Denetarik egoten zen salgai.

### **299. Ferietan besta (LES-017/107)**

Igantzi, Arantza, Bera eta inguruko herrietatik zetozenak bazkaltzen geratzen ziren eta besta egoten zen.

### **300. Lesakako serorak (LES-017/109)**

Bi serora egoten ziren, Urbana eta Franciska. Eliza garbitu, azkilak jo... egiten zuten. Elizak soldata ordaintzen zion.

### **301. Presenteak partitu (LES-017/111)**

Txerria hiltzean parientei banatzen zitzaizkien presentea.

### **302. Espartinak egiten egon zen (LES-017/113)**

Anaiak Tolosan ikasi zuen. Harrek zola egiten zuen eta Maialenek tela jarri.

### **303. Noiz ezkondu zen (LES-017/115)**

30/01/41an ezkondu zen. Urtarrilen ezkondu eta ekainean joan ziren ezkon bidaian Donostiara bi egun pasatzera. Ordurako haurdun zegoen lau hilabetez.

### **304. Anaia egunero Donostiara (LES-017/116)**

Donostira joaten zen egunero anaia Bautista. Bretxara eramaten zuen esnea eta askotan berarekin joateko probesten zuen.

### **305. Aita sarritan Iruñera (LES-017/118)**

Sagar asko ateratzen zen Lesakan eta aitak idiak eta gurdian Iruñera eramaten zuen. Harekin ere joaten zen batzuetan.

### **306. Orduko bizia eta oraingoa (LES-017/119)**

Bizi tristea iruditzen zitzaigun. Orain orduko aberatsak baino hobeto bizi gara. Haiek orduan, egun baterako jana izaten zuten, orain lau egunerako igual ekartzen dugu.

### **307. Galtza motzak (LES-017/121)**

Komunio solemnea egin arte galtza motzak ibiltzen zituzten. Denek ere soin luzeak erabiltzen zituzten eta elizara oso estaliak joaten omen ziren..

### **308. Baserriko lanak (LES-018/001)**

Senideen artean hamaikagarrena zen; nagusiak kanpora lanera bidaltzen zituzten (zerbitzatzera) eta gazteenak (lau) baserrian izan ziren beti lanean. Baserriko lanei buruz mintzatzen da: laborantza egiten zuten: artoa, ilarra eta patata, besteak beste. Azienda ere bazuten eta behiak, txerriak, eta abar bazkatu behar zituzten. Aita itzaina zen. Hamaika urte zituela amarik gabe gelditu zen. Opilak eta altzaria ere egiten zituen: ilar gorria eta patata batez ere eta jaietan, berriz, garbantzua. Ura ekartzea ere eguneroko lan bat zen. Esposatu arte ez zen baserritik atera.

### **309. Gaineko eta beheko sarrera (LES-018/002)**

Baserri handia zen. Sarrera nagusia gainetik zegoen eta, beheitik, ukuiluena.

### **310. Gerran eta gerraostean, miseria (LES-018/003)**

Gerra eta gerraostean miseria izan zen. Errazionamenduan ematen zieten ogia ezkurrekin egina zela erraten zuten. Jaietan bakarrik jaten zuten oilaskoa. Hiru ume zituelarik, bere senarrak Berako fabrikari lan egiten zuen; han ematen zieten errazionamendua hilabetero: besteak beste, olio, arroz, garbantzua eta azukre pixka bat.

### **311. Errotak itxi ziren (LES-018/004)**

Gerra denboran errotak itxi ziren. Arantzakoa, berriz, gauez irekitzen zuten eta hara joaten zen inguruko jendea. Baina, errotaria denuntziatu zuten eta kartzelara eraman zuten. Bere anaiak etxean egin zuen errota bat, artoa xehatzeko; ondoren, zetabeatik iragazten zuten

### **312. Errekisak (konfiskazioak) (LES-018/005)**

Errekisei (konfiskatzei) buruz mintzatzen da. Udaletxera hainbat kilo ilar eta arto eraman behar zituztela abisatzen zieten. 30 urteren buruan, konfiskatutako jakiak herriko jauntxoek jaten zituztela enteratu ziren (frontera ez zituztela bidaltzen). Bere aita asto eta behiekin soldaduei mantak-eta eramatera behartzen zuten.

### **313. Soldadu bat hil zuten (LES-018/006)**

Soldadu "rojo" bat hil eta herrira ekarri zuteneko istorioa kontatzen zion bere lagun batek.

### **314. Presoak (LES-018/007)**

Presoei arto irina ematen zieten ezkutuan (aitak jakin gabe) toalla zurien truke; toalla horiekin gonak egiten zituzten. Presoak oso egoera txarrean bizi ziren, erdi-oinutsik izaten ziren. Erreketeren menpe zeuden eta "salbajada ikaragarriak egiten zizkieten prisioneroei". Preso hilak ere izaten ziren (Lesakan bi lurperatu zituzten). Artikutzarako errepidea egin zuten

### **315. Kamioian preso eraman. Bikarioaren bitartekotza (LES-018/008)**

Lesakan bizi zen Oiartzungo gizon batek kontatutakoa azaltzen du. Oiartzunen preso hartu zuten eta kamioi batean ekarri zuten Lesakaraino; plazan azienda lotzeko aroetara lotuta utzi zituzten presoak eta Lesakako beste zenbaiten bila joan ziren erreketek: besteak beste, bi neska gazte (errepublikarrak), bi gizon eta bi zahar. Guztiak kamioian sartu eta Iruñera eraman zituzten. Bidean, neska gazteak "si los curas y frailes supieran..." abestia kantatzen hasi ziren eta soldaduek bertan hilko zituztela esaten hasi ziren. Lesakatik Iruñera preso eraman zituztenak fusilatuko zituztela esaten zen. Bikarioa Iruñera joan zen ez fusilatzeke eskatzeko eta salbatu zituen. Senarra eskapatu zelako eraman zuten haurdun zegoen emakume bat preso; senar-emazte zaharrak ere hiru semeak eskapatu zirelako eraman zituzten.

### **316. Bartzalekuko fusilatuak (LES-018/010)**

Baserritar batek kontatu zion Iturengo medikua, Berako gizon bat eta hirugarren bat Bartzalekun fusilatu zituztela. Urte batzuk pasatuta kontatu zion gizonak, bere baserrira odolkiak egiten laguntzera joan zenean. Baserrian, gauez, tiroak entzun zituzten eta gero, bi orduz, gizon baten oihuak, laguntza eskatzen; bera baserritik atera eta laguntza ematera joan nahi zuen, baina bere emazteak ez zion utzi, hilko zutelakoan. Bestaldetik, bere aitak herriko igeltzero guztientzat harea ekartzen zuen handik, Bartzalekutik (seme-alabak laguntzera joaten ziren askotan). Behin, karroan zihoazela, behiak gelditu ziren eta zapata baten muturra ikusi zuen, lurra mugitu eta hanka bat ikusi zuen. Ordutik aurrera beste zonaldera joaten zen harea bila.

### **317. Seboa (LES-018/011)**

Behi zaharrak eta eriak hiltzen zituzten hiltegian soldaduentzat. Jende guztia seboa eroatera joaten zen goizean goiz harategira, errazionatuta baitzegoen. Bere ahizpa nagusiak (neskato egona eta ama hil zenean etxera itzuli zenak) sebo eroatera bidali zuen eta errenkadan jarri zen, baina lokartu zen eta deus gabe gelditu zen. Seboa olioaren ordeaz erabiltzen zen.

### **318. Mezarako zapatak txandaka (LES-018/012)**

Anai-arreben artean zapatak txandaka ibiltzen zituzten mezara joateko. Bat seietako mezara joaten zen eta bestea hurrengora, eta bidean aldatzen zituzten zapatak.

### **319. Oinutsik (LES-018/013)**

Gerraostean oinutsik ibiltzen ohi ziren, espartinik ez zutelako.

### **320. Anekdotak. Ogirik gabe (LES-018/014)**

Hogei urte zituela, ogia razionatuta zegoen eta egunero okindegian erosten zuten. Bere anaia soldaduskara joan zen egunean ogiarekin gertatutako anekdota kontatzen du.

### **321. Eskolara hagitx gutxi (LES-018/015)**

Eskolara hagitx gutxi joan zen. Baina dotrinara egunero joaten ziren hamaiketan. Mojek ematen zuten gau-eskolara joaten hasi zen gero, baina hiru hilabeteko ikastaroa besterik ez zen. Amaitu zenean, medikuaren izebak esan zion egunero bazkal ostean haren etxera joateko eta lezio bat emanen ziotela. "Erderaz leitzen, eskribitzen eta restar, multiplicar y dividir" ikasi zuen etxe hartan.

### **322. Igande arratsaldeak. Trena (LES-018/016)**

Neska koskorra zela, igande arratsaldetan errepidera paseatzera joaten ziren. Ortzegunetan merkantzia-tren handia pasatzen zen eta hura ikustera joaten ziren. Igandetan, berriz, bagonetan sartzen ziren eta trenbidean alde batera eta bestera ibiltzen ziren. Baina jendea enteratu zenean, albintiarengana (aguazila) joateko eta koartelera deitu zituzten guztiak. "Albintiak egiten zion justizia herri guztiari"; "mamurru" izengoitiz paratu zioten. Kuartelean guardia zibilek hurrengoan eskuak lotu eta kartzelara betiko eramane zituztela erran ondoren, ez ziren gehiago joan.

### **323. Udan igeri egitera (LES-018/017)**

Errota ondora joaten ziren udan igeri egitera. Aita siestara joaten zenean korrika abiatzen ziren ibaira; han errotako 12 senideak izaten ziren jada. Hainbeste haur eta gazte zeudenez, ura "txokolate bezala" jartzen zen.

### **324. Jostetak 1. Kantak (LES-018/018)**

Tortolosean aritzen ziren, "maxurrak" erraten zieten. Lurrezko "harri borobilekin" (puxtarriak) ere jostetan aritzen ziren (baten batek kristalezkoak zituen). Soka saltoan aritzeko, eskolan erakutsitako abestia kantatzen du: "las campanas de Tetuán piden pan...". Eskolan "cara al sol" irakatsi zieten eta egunero kantatzen zuten dotrinara joaten zirenean.

### **325. Maisuak jotzen zion euskaraz mintzatzeagatik (LES-018/019)**

Bere anaia eskolatik eskapatzen zen, maisuak jotzen ziolako euskaraz egiteagatik. "Habla en cristiano" erraten omen zion eta eskuan eta buruan jotzen zien makil batekin ikasleei.

### **326. Jostetak 2 (LES-018/020)**

"Kunkiri-kordaka" (gordeka) jostatzen ziren. Zotz egiteko erraten zutena: "han butz hiretako haren butz". "Sorginka" ere aritzen ziren.

### **327. Beste herritako bestetara (LES-018/021)**

Bera, Arantza eta Igantziko bestetara joaten ziren oinez. Behin Igantziko bestetara eskapatu ziren, aita ez baitzien uzten, eta leihotik atera ziren. Herriko batzuek bizikleta zuten eta batzuetan barran eramaten zituzten.

### **328. Sorginak 1 (LES-018/022)**

Bere ahizpak sorginekin sinesten zuen, berak ez. Zortzi urte zituela, gauez soinu arraro batzuk entzun eta aitak sorginak zirela esan zien; baina, geroago, soinu berak entzun zituen egunez eta karro batek egiten zituela ikusi zuen. Bera jaio aurretik, ahizpa bat eritu zen; zortzi hilabete besterik ez zituen eta sehaskatik atera nahian omen zebilen. Apeza deitu zuten eta honek sorginak zirela erran zuen. Ebanjelioa eman zion hainbat aldiz bederatzi egunez sendatu omen zen.

### **329. Sorginak 2 (LES-018/024)**

Sorgina fama zuen emakume bat zen. Berak saldutako esnea edan ondoren haur bat eritu zen. Eguraldi txarra zela-eta, etxe-mazela erori zen, baina emakumea pareta batetatik zintzilik gelditu zen eta bere azienda salbatu zen. Istorio biak kontaktzen zizkion bere ahizpak, sorginak bazirela erakusteko.

### **330. Sorginak 3 (LES-018/025)**

Sorginek animalien forma hartzen zutela erraten zen. Auzokide batek kontaktzen zuenez, Zalain aldera andregaietara joaten zirenean, zaldi handi batzuk ikusten zituztela, eta sorginak zirela. Baina gero hasi ziren erraten hango mutilek egindako trukua besterik ez zela. Katu beltzak sorginak zirela erraten zen. Sorgina ikusiz gero, behatza gurutzean paratu behar da.

### **331. Sorginak 4. Intxixuak (LES-018/026)**

Sorginak, hiltzen ari zelarik, norbaiti pasa behar zion sorginkeria. Aitak kontuz ibiltzeko erraten zien. Sorgina jotzen bazen, nola egin behar zen azaltzen du. Intxixuak erraten zieten ere sorginei. Mari Grazi emakumea intxixu zela erraten zuen bere ahizpak; beti gona beltz luzez jantzita joaten omen zen.

### **332. Sorginak 5. Lamiak (LES-018/028)**

Lami-zuloa non dagoen azaltzen du. Lamiak hortik sartu eta Zalain-zokoan ateratzen omen ziren. Lamiak emakumeak ziren, baina animalien forma hartzen zuten.

### **333. Sorginak 6 (LES-019/002)**

Aitak sorginei buruzko istorioak kontaktzen zizkien. Sorginak printzesaz jantzita edo animalien (asto, zaldi, katu...) forma hartuta ateratzen omen ziren. Katu beltzek ondorio txarrak ekartzen zituztela erraten zen. Gaueko hamabiak baino lehenago oilarrak kukurruku egiten bazuen, sorginak zirela erran nahi zuen; gatza sutara bota behar zen orduan.

### **334. Animak (LES-019/004)**

Purgatorioan zeuden animenzako mezak ateratzen ziren. Sorginak bazebiltzatenean, animaren bat purgatorioan zela erraten zen eta mezak ateratzen zituzten.

### **335. Don Juan apeza 1. Arrautzak (LES-019/006)**

Saldiasako Don Juan Bautista apezaren istorio bat kontaktzen du. Apezaren etxean oiloak zituzten eta arrautzak saltzen zituzten. Berak ikusten zituen oiloak apezaren etxera joaten zenean bulen bila. Ondoko etxean bizi ziren aberatsek arrautzak erosten zizkieten beti, baina, bapatean, arrautzik ez zuela esaten hasi zen apeza. San Antonera meza ematera joaten zenean

gipuzkoarrei saltzen zizkien, sos gehiagorengatik. Baina aberatsei hauxe esan zien: "ez digu kontzientziak agintzen zuei aurrutza hoiek saltzea, gorpuztik egiten duguna bildu eta oiloei ematen diegulako jateko".

### **336. Don Juan apezka 2. Oiloak ebatsi (LES-019/008)**

Aitak kontaktzen zien istorio bat azaltzen du. Apezari astero oiloren bat ebasten zioten eta, etsita, pulpitutik oihuka hasi zen: "oiloak ebasten dituen pertsona hori kondenatuta dago eta, gainera, Jaungoikoak ezpainetan luma bat paratzen dio". Hori entzutean, bat eskuak ezpainetik pasatzen hasi zen eta apezak "hi haiz lapurra" erran zion.

### **337. Don Juan apezka 3. Ataka ebatsi (LES-019/009)**

Don Juan apezari alorreko ataka ebatsi ziotenean, zera esan zuen sermoian: "badakizue Jaungoikoak dena ikusten duela eta bere kastigua ematen duela; eta nire ataka ebatsi duena kondenatuta dagoela, bere tokira itzultzen ez badu". Hiru egunen buruan, ataka bere tokian paratu zuten berriz.

### **338. Don Juan apezka 4. Ama Birjina (LES-019/010)**

Don Juan apezak San Antonen emandako sermoia: "Ama Birjina da gauza bat izugarria ona, hori ezin da erran eta sinetsi, konparaziotara, badakizue zerrien kostilla zein ona den, bada, hura baino anitz hobea da Ama Birjina"

### **339. Sagardoa egiten zuen apezka. Maritxuak (LES-019/011)**

Herriko beste apez batek sagardoa egiten zuen eta mutil gazteei ematen zien igande arratsaldetan. Maritxu zela erraten zuten. Baziren beste gizon batzuk maritxu edo "marikitak" zirela erraten zutenak; oso gaizki ikusiak ziren. Bere anaiaren koadrilako maritxu bati zer egiten zioten kontaktzen du.

### **340. Ama ezkongabeak (LES-019/013)**

Ama ezkongabeak erabat baztertzen zituzten lehen, putatzat hartzen zituzten. Inklusara eramaten zituzten haur bastart asko. Batzuetan, gizon zahar edota alargun batekin ezkontarazten zuten ama.

### **341. Toberak jo (LES-019/014)**

Senar-emaztegaiei toberak jotzen zizkieten ezkontza-bezperan, ilunabarrean. Abesti bat kantatzen zieten: "ohea jantzia dago, bi almohadakin, nobia jertzateko, nobio jaunakin".

### **342. Arropa (LES-019/016)**

Bestetarako egiten ohi zuten soin berria, baina ez beti. Soineko hori igandetean eta bestetan jantzen zuten soilik, herrira joateko. Udan, elizan sartzeko mahuka-erdiak ("mangitoak") erabiltzen zituzten. Neguan kakorratzez egindako txaketak erabiltzen zituzten. Arropa oso ongi aprobetxatzen zuten.

### **343. Barneko-arropa (LES-019/017)**

Jostunek bularretakoak egiten zituzten maindire zaharrekin. Berak, esposatu arte, ez zuen bularretakorik izan.

### **344. Hurrei hortza erortzen zitzaielarik (LES-019/019)**

Haurrari lehenengo hortza mugitzen hasten zitzaionean, amatxik edo aitatxik soin bat oparitu behar zioten. Hortza erortzen zenean, almohada (burko) azpian jartzen zen eta gero sutara botatzen zen.

### **345. Sinesmenak. Petrikiloak 1 (LES-019/020)**

Igantzik mugan eta Lesakan bertan baziren orazioak (errezoak) egiten zituzten emakumeak, "kuranderak" ziren (petrikiloak); sorginak erraten zieten. Herriko neskatxa bati aho ondoan kalitxa bat ateratzen zitzaion eta Irungo petrikiloarengana eraman zuten; otoitza egin zuen eta baselina eman zion; bederatzi egunez ordu zehatz batean errezoa eginen zuela erran zion. Seigarren egunean kalitxa erori omen zitzaion neskatxari.

### **346. Sinesmenak. Sugeen ausikientzat (LES-019/022)**

Bere aitak orazioa egiten zuen sugeen ausikientzat; besteak beste, aitagurea aldrebez esaten zuen.

### **347. Sinesmenak. Petrikiloak 2 (LES-019/024)**

Petrikiloek, sorginek, belarrekin erremedioak egiten zituzten.

### **348. Sinesmenak. Tropesiarentzat (LES-019/026)**

Igantzirako bideko baserri bateko emakume batek (Maria izenekoa) tropesiarentzat (tripa hazitzen delarik) orazioa egiten zuen. Bere ahizpa behin joan zen: gerrian zinta bat jarri eta bederatzi egunez orazioa eginen zuela erran zion; pastelak ere bedeinkatzen zituen eta egunero ordu zehatz batean puska bat jan behar zuen eta zintari korapilo bat egin. Anekdotak bat kontatzen du: neska gazte bat tropesia zuela-eta Mariarengan joan zen, baina tripa hazitzen jarraitu zitzaion, haurdun zegoelako.

### **349. Erremedioak. Min horia kentzeko (LES-019/028)**

Min horia kentzeko belarrak erabiltzen ziren; zorriak ere jaten ziren min horia kentzeko (hurrei esnean sartzen zizkieten). Bere koinatak zorriak kentzeko likido bat ekartzen zion Bilbotik.

### **350. Erranak. Azazkaletan orban zuriak (LES-019/030)**

Azazkaletan orban zuriak ateratzen direnean, gezurrak esan dituzula erran nahi du.

### **351. Mondongera 1. Odolkiak (LES-019/032)**

Mondongera ibiltzen zen etxez etxe. Mondongera batek erakutsi zion gaztea zelarrik. Odolkiak nola egiten diren azaltzen du: lehenengo arroza eta tipula prestatzen ziren; zerria hiltzen zutenean, berriz, odola hartzen zen (gelditu gabe eragin behar zitzaion).

### **352. Mondongera 2. Odolkiak (LES-019/034)**

Odolari aurretik egositako arroza eta tipula botatzen zitzaion; gatzatu eta espezia bi besterik ez zizkion botatzen: piper-beltza eta kanela (ez perrexilik, ezta oreganorik ere). Zerriaren urin pixka bat eta bestelako haragi zatiren bat ere botatzen zizkien odolkiei. Urinekin gantzigorrak egiten zituen. Hesteak errekan garbitzen zituzten. Onilarekin bete, lotu eta egosten zituzten (orratz batekin zulatzen zituzten odolkiak).

### **353. Mondongera 3. Lukainkak eta birikak (LES-019/035)**

Lukainkak nola egiten ziren azaltzen du. Birikak egiteko berak ez zituen birikak aprobetxatzen (bihotza eta bestelako zati "itsusiekin" egiten zituen).

### **354. Zerrikia eta lukainkak nola kontserbatzen ziren (LES-019/037)**

Gantzan edota olioan paratzen ziren solomoak eta lukainkak; eltzetan sartu aurretik zartagian buelta bat ematen zieten. Solomoak adoboan (baratxuri, gatza eta uratan) edukitzen zituzten lehenik 24 orduz; gero zapi batekin idortu eta piper-gorri eta ozpinarekin igurtzen zituzten; soka batetik zintzilikatzen zituzten idortzeko eta, azkenik, xerratzen zituzten, gantzan eta olioan sartu aurretik.

### **355. Azpiak gatzetan paratzen ziren kontserbatzeko (LES-019/038)**

Azpiak eta "espaldak" gatzan paratzen ziren. Noizbehinka buelta eman eta ateratzen ziren. Gainean harri handi batzuk paratzen zituzten. Ateratzen zirenean, urarekin garbitzen ziren, zapi batekin idortu, ozpin eta baratxuria igurtzi (baita piper-gorria) eta, azkenik, zintzilikatzen ziren, zaku batzuetan sartuta.

### **356. Zerri guztia aprobetxatzen zen (LES-019/039)**

Zerri guztia aprobetxatzen zen. Patak (hankak) eta belarriak inauteak arte edukitzen ziren gatzan; bi egun lehenago uretan paratzen ziren (bakailaoa bezala), gero sukaldean zintzilikatzen ziren eta saltsan egiten ziren.

### **357. Presenteak (puskak) banatzen ziren (LES-019/040)**

Zerria hiltzen zutenean, presenteak (puskak) banatzen zituzten plater batean: besteak beste, bi odolki, mazela bat urdaia eta gibel pixka bat. Haurrak joaten ziren puskak partitzera, bi sos ematen zizkietelako etxetan.

### **358. Zerri-hiltze eguna, festa eguna (LES-019/041)**

Zerri-hiltze eguna festa eguna zen. Zerria hil ondoren, gosaltzera joaten ziren gizonak (bera ez zen inoiz joan, odolkiekin ari baitzen).

### **359. Zerria hiltzeko ilargiari begiratu (LES-019/042)**

Aunitzek ilargiari begiratzen zioten zerria hiltzeko. Ilbeheran eta ilberrian hildako zerriekin proba bat egin zuen: urdai zati bana egosi eta ilberrian hildakoa txikitzen zela ikusi zuen

### **360. Mondongera eta hilerokoa (LES-019/043)**

Erraten zuten mondongerak ezin zuela hilekoarekin egon, baina berak ez zion erranari kasurik egiten. Errana gezurra dela konprobatu zuen.

### **361. Haurra izan ondoren. Elizan sartzea (LES-019/044)**

Emakumeek haurra izan ondoren ezin zuten etxetik atera, elizan sartu arte. Hala ere, nahitaez atera behar bazen, buruan teila bat paratu behar zuen. Aurreneko zortzi egunak ohatzean egoten ohi ziren, mugitu gabe eta jan gabe, oilo-salda edaten zuten bakarrik; gizonak, berriz, oiloa jaten zuten. Elizan sartzea zer zen azaltzen du: eliza atarira mantelina jantzita joan behar zuen ama haurrarekin (emagina ere joaten ohi zen); han apezak otoitza egiten zuen eta haurrari trapu bat paratzen zion buruan. Ondoren, eliza barrenera sartzen ziren. Jatorrizko bekatua omen zen. Aurreneko haurra izan zuenean, baba biltzera atera zen teila buruan zuela.

### **362. Zalain Zoko Lesaka da. Errandonea familia (LES-019/045)**

Errandonea pelotaria Zalain Zokon (Lesakan) jaio zen, baina Berakoa zela erraten zuten. Bere arreba Lesakako idazkaria izan zen.

### **363. Arotzen familia (LES-020/001)**

Aita arotza zuela-eta arozkoan hasi zen. Izan ere 300 bat urte daramatza bere familia burni lanean. Arbasoen nondik norakoa kontatzen du. Bere amonaren aitak eskolako zubi eta elizako ateko burdineriak egin zituen.

### **364. Burnia nondik ekarri. Kalitatea (LES-020/002)**

Egurrezko ikatzarekin egiten zen burnia, beratza izaten zen: aise xehatzen zen. Gero, harri-ikatzarekin hasi ziren, tenperatura handiagoa lortzen zelako eta burni finagoa atera. Gaur egun gasa eta elektrizitatea erabiltzen da. Burnia Iruñetik ekartzen zuten, baina normalki Bizkaiatik ekartzen zen. Bartzelonatik hobeago bat ekartzen zuten, Japoniatik omen zetorrena. Beraz, Iruñakoa pixka bat zakarragoa zen eta, Bartzelonakoa, finagoa.

### **365. Burnia landu (LES-020/003)**

Burnia ongi berotu eta agudo egin behar da lana. Gorria dagoenean, gogortzen hasia dela erran nahi du eta, orduan, alferrik da jada.

### **366. Zer tresnak egiten zituzten (LES-020/004)**

Burniarekin denetarik egiten zuten: goldeak, aitzurrak, laiak, aizkorak, ateetako bisagrak (bandak) eta tragazak, bertzeak bertze. Lehen lasaiago egiten zen lana.

### **367. Tresnak konpondu (LES-020/005)**

Tresna berriak egiteaz gain, konpontzen zituzten. Adibidez, aitzu bat hausten zenean, "altzairu berritu" egiten zen. Lehenbizi, altzairua eransten zuten puntan pastarekin, gero altzairua eman, tenplatu

### **368. Ferratzaileak (LES-020/006)**

Arotz batzuk ferratzaileak ere baziren. Berak ferrak egiten zituen, baina ez zuen animaliak ferratzen. Behien ferrak nola egiten zituen azaltzen du. Behiak

ferratzeko arkerak erabiltzen zen: egurrezko tramankulu bat behia lotzeko eta ferratu behar zen hanka igotzeko. Beste animalientzat ere balio zuen arkerak. Aurrenekoz, animalia azkazalak (apoak) leundu eta berdindu behar ziren "puxanta" izeneko tresnarekin (hankaren bat gaizki baldin bazuen, odol beltza kendu eta sendatu behar zen aurretik). Gero, ferra iltzatu

### **369. Arotzen lan tresnak (LES-020/007)**

Arotzean aritzeko tresnak: sutegia, "txingudia" (ingudea), mailuak eta puntzoiak, bertzeak bertze. Behinik behin, beste lagun bat behar duzu beti arotzean aritzeko; gehienetan arotz nagusia edo maistrua eta bi laguntzaile izaten ziren. Igantziko elizarako gurutze bat egiten aritu zirenean, hiru lagun aritzen ziren: aita (mastru bezala), bera eta beste gizon bat; txandaka jotzen zuten mailuarekin, mastruak emandako toki berean. Nagusiak txingudiaren ginean lau bider jotzen zuenean, beste kolpe bat eman behar zenuen eta amaitzen zen. Gero mastruak, mailu txikiarekin, dena berdintzen zuen. Lehen ez zen soldagailurik, errematxeak egiten zituzten; lehengo lanak meritu handiagoa zuen.

### **370. Lan egiteko arropa eta babesak (LES-020/008)**

Larruzko mantala bat erabiltzen zuten lan egiteko. Beren sutegia ez zen oso handia; burnia egiten aritzen zirenek sutegi handiagoak erabili behar zituzten. Hoiak begiak eta guztiz babestu behar zituzten. Beraiek, berriz, ez zuten ezta eskularrurik erabiltzen. Dena dela, batzuetan eskuetan txinpartak erortzen zitzaizkien, baina ez zuten denborarik kentzeko, bestela pieza hozten zitzaien.

### **371. Erretzen zirenean. Hortzetako eskuila (LES-020/009)**

Erretzen zirenean, olio pixka batekin igurtzi egiten zuten erredua. Geroago, hortzetako pasta erabiltzen hasi ziren. Zortzi edo hamabi urte zituenean hasi zen hortzak garbitzen, egurrezko eskuila batekin.

### **372. Arotzen fama (LES-020/010)**

Zurrutero eta jenio txarreko fama omen zuten arotzek.

### **373. Arotzen istorioak 1 (LES-020/011)**

Arotzen istorio bat (animaliak solasten ziren garaikoa): bazen lehoi zahar bat, munduko indartsuena zela erraten zuena. Baina arotz indartsuago bat bazela erran zioten eta bere bila joan zen, desafiatzeko. Azkenean, arotzak sudurra erre zion.

### **374. Arotzen istorioak 2 (LES-020/012)**

Gizon batek semea bidali zuen arozkoan ikastera. Arotzak galdetu zion nola nahi zuen ikasi, ari eta lanean edo begira, eta mutilak begira erantzun zion. Horrela egin zuen eta, egunak pasa ondoren, aitak ea bazekien galdetu zion, semeak baietz erran eta aroztegia prestatu zion. Mutila sutegi berrian burnia berotzen hasi zen. Aitak zer egin behar zuen galdetu eta zera erran zion: "zuzen ateratzen bada gerrena eta okertzen bada, itaila".

### **375. Joareak 1 (LES-020/013)**

Joareak egin izan ditu, baina ez artzaintzako, apaingarri gisa paratzeko baizik. Zubietan bazen joaregile bat eta, Lesakan, haren lagun bat. Bera nola egiten zituen ikusi zuen; ikatz piloa behar zen joare bat egiteko. Joare klaseak: pulunpak (mendianazienda handiek eramaten dutena: behiak, zaldiak etb.), kalaxkak (ardiek erabiltzen dituztenak) eta xintxirriak (joare txiki eta finak).

### **376. Joareak 2 (LES-020/015)**

Xintxirriak (joare txiki eta finak) zerriei paratzen zizkieten mendira ateratzen zituztenean.

### **377. Joareak 3 (LES-020/017)**

Zerriak mendian zeudenean, etxoletan sartzen ziren gauean. Arto pixka bat eramaten zieten. Bazen beste joare mota bat: joare motela izeneakoa; ehizeko zakurrentzako izaten zen. Kaskabiloak, berriz, mandoetan paratzen zituzten, mandozaiak jakin zezan mando guztiak bere atzetik zetozela. Oso soinu polita ateratzen zuten.

### **378. Gerra. Aitak ihes egin zuen eta ama preso eraman zuten (LES-020/019)**

Bortz urte zituen Francok kolpea eman zuenean. Bere aita errepublikanoa zenez eta gainera kargu politikoren bat omen zuenez, ihes egin zuen. Bi txapel gorri eta guardia zibilak joan ziren bere etxera aitaren tailerraren giltzaren bila; tailerra hustu omen zuten eta enkantean atera zituzten gauzak. Gero etxetik bota zituzten. Ama preso eraman zuten arrats batean kamioi batean, beste bizpahiru emakumerekin. Gau batzuetan guardia zibilak etxea miatzera joaten ziren. Ama bortz hilabete izan zen Iruñean haur batekin. Bera eta beste anai-arrebak ere etxetik bidali zituzten eta "erdi morroi, erdi gose" ibili ziren. Beste etxe bat eman zioten eta laguntzera joan nahi zuten batzuei "gaizki ibiliko zirela" erran zieten. Aita lau urteren buruan itzuli zen Frantziatik; epaiketa egin eta preso sartu zuten. Hamar duroko isuna ere ordaindu behar izan zuen, muga ezkutuan gurutzatu izanagatik. Sei edo zortzi hilabete pasatu zituen kartzelan.

### **379. Ez zituzten fusilatu (LES-020/020)**

Lesakan ez zuten inor hil. Aita, kartzelatik etorri zenean, erretorearen etxera joan zen eskerrak ematera. Izan ere, Lesakako hainbat lagun preso eraman zituzten eta fusilatu nahi izan zituzten, baina erretoreak bere ardiak zirela denak eta lehenbiziko bera hiltzeko erran zien. Hori zela eta, ez zuten inor fusilatu. Bestetik, preso zeramatela, Belaten bertan erreketek batzuek hil nahi izan zituzten, baina guardia zibil batek Iruñera eraman behar zituztela erran omen zuen.

### **380. Gerraostea 1 (LES-020/021)**

Gerraostean gosea. Irun hustu zenean, batzuk hara joan eta gauzak ebasten zituzten (erlojuak, bizikletak, oihalak, arropak...). Haiei, batzuetan, gauzaren bat konpontzeko ekartzen zieten (ebatsita zirela erran gabe, noski). Izan ere, bizia aurrera ateratzeko, denetarik konpontzen zuten: mota guztietako makinak, aitzurrak eta gomazko abarkak, bertzeak bertze.

### **381. Gerran kendutako tresnak berreskuratu zituen aitak (LES-020/023)**

Meliton izeneko hojalatero (latorrigile) zahar, pobre eta zintzoa Lesakara etorri zen eta aitari ekarri zizkion enkantean erositako bere tresna batzuk. Berako bati ere erosi nahi izan zion aitak berea izandako ingudea, baina honek ez zion saldu. Geroago, Sunbillara joan eta han ikusi zuten berriz ingudea beste ferrategi batean; gizonari eskatu eta eman zien.

### **382. Gerraostea 2 (LES-020/024)**

Bere emazteak ez zuen goserik pasa, baserritarra zelako eta artoa, esnea eta abar bazituztelako; sosik ez, noski, baina etxeko jakiak bai. Berak eta bere anai-arrebek, berriz, gosea pasatu zuten, gurasorik gabe zeudelako. Anekdotak bat kontatzen du: irin pixka bat oparitu zioten eta zapi batean eraman zuen ogia egiteko.

### **383. Errekisak (LES-020/025)**

Gerra bukatu eta ondorengo lau urtetan izan zen goserik handiena. Franco eta Hitler hitzarmen bat omen zuten: Frantzia sartzen zirenean, Francok jatekoa emanen ziela. Orduan hasi ziren inguruan errekkisak (konfiskazioak) egiten. Guardia zibilak etxetara joaten ziren zer zuten ikusteko. Alondegia egin zuten. Errepublikarrek edo euskaldunek Iruñetik irina ekartzen zuten eta nahasten zuten hemengo artoarekin.

### **384. Errazionamendua (LES-020/026)**

Dena errazionatuta zegoen; kartilla (txartel) laukidun batekin joaten ziren dendara eta han jartzen zuena bakarrik erosi zezaketen. Dirurik ez zutenean, kartoizko bale (txartel) batzuk erabiltzen zituzten, bakoitzak bere etxeko kuñoarekin; azkenean, bale hoiak trukatzeko ziren, baita dendan artean ere. Tabakoa errazionatuta zegoen, hiru maxota ematen zizkieten. Gizonen batek ez zuen erretzen eta apezari ematen zizkion bere tabakoa, ilarren truke. Emakumeek ez zieten tabakoa banatzen errazionamenduan.

### **385. Auxilio Social izeneko elkarte 1 (LES-020/027)**

Auxilio Social izeneko elkarteak xaboia, azukrea eta bestelako gauzak bidaltzen zituen Iruñetik eta emakumeak banatzen aritzen ziren.

### **386. Auxilio Social izeneko elkarte 2 (LES-021/001)**

Bere etxera ez zen Auxilio Socialeko laguntzarik iristen, aita iheslaria zelako. Nazionalentzat (Francoren aldekoentzat) ziren xaboia eta bestelako gauzak.

### **387. Azukre zakuekin egindako trajea (LES-021/002)**

Berea amak azukre zakuak lortu zituen eta, urdinez tintatu ondoren, Jaunartzerako trajea egin zioten. Bere anaia txikiari, berriz, Don Felix apezak ordaindu zion trajea.

### **388. Makiak (LES-021/003)**

Makiak gizagaixoak ziren. Bere aita bezala, ihes egin zutenak ziren, baina mendian gelditutakoak (bere aita, berriz, Frantzia lanean izan zen lau urtez). Armak zituzten eta ez zuten sinesten gerra amaitu zela. Bere osabak kanalera erori eta ito ziren bi makiren gorpuak topatu zituen. Fonda Marian militarren oso ongi bizi ziren, baina Gobernuak erran zien, istilurik ez zegoela-eta,

kuartelera itzultzeko. Han askoz okerrago bizi zirenez, makiak ikusi zituztela erran zieten berriz nagusiei eta berriz ere fondara joan ziren.

### **389. Portugesen kontrabandoa (LES-021/004)**

Bolada batean, portugesak kontrabandoan pasatzen ziren. Kontrabandista batzuek Domingoko presara bota zituzten portugesak eta han ito ziren. Beste batzuek engainatzen zituzten eta, Bidasoa pasatuta, Frantzian zeudela esanda uzten zituzten Endarlatzan. Kontrabandistak harrapatzeko, guardia zibilen bat portugesen artean sartu zen.

### **390. Kontrabando anitz. Fideoak egiten zituzten (LES-021/006)**

Kontrabando anitz izan zen (40ko hamarkadan). Harat eta honat, azienda, azukrea, alkohola eta abar. Paketeak bizkarrean eramaten zituzten. Itxurari begiratuta, nabari zen nor aritzen zen pakete garraioan. Frantzian eta Espainian gosea zen. Kafea erre gabe ekartzen zuten eta saltzeko tokian erretzen zuten sutan bola baten barruan. Beraiek kontrabandoan ekarritako irinarekin fideoak egiten zituzten: amak masatzen zuen eta razafrai botatzen zion, kolorea emateko. Gero, beraiek egindako makina batekin fideoak ateratzen zituzten eta idortzen utzi.

### **391. Kontrabandoaren antolaketa (LES-021/007)**

Bidasoa kontrabandoaren abiapuntua zen. Ur gutxi zenean, harrien gainetik pasatzen ziren paketeekin, baina ur haziekin, soka pasatu behar zuten. Hortarako igeri egiten jakin behar zen, soka arbola batetik bestera lotzen baitzuten. Soka eraztun handi bat paratzen zuten eta horretan, zintzilik, pasatzen zituzten paketeak, banan banan; azienda ere sokarekin pasatzen zen. Jendea pasatu behar zutenean, berriz, txalanta batean sartzen zituzten. Lagun talde bakoitzak kontrabandoaren zati bat egiten zuen (errate baterako, Sarakoak Etxalarrera, Etxalarkoak Bidasoara, Bidasoan Lesakakoek hartzen zituzten paketeak eta Oiartzungo mugara eramaten zituzten...).

### **392. Paketea nola eraman. Hamar duro irabazi (LES-021/008)**

Paketea bizkarrean eramaten zuten eta bekokitik pasatzen zuten zinta batekin lotzen zuten. Berari, arratsean, menditik, lan egin ondoren, baserrira itzultzen zela, guardia zibilak atera zitzaizkion, kontrabandoan ari zela uste zutelako. Bere lagun guziak ibili ziren kontrabandoan; izan ere, hamar duro irabazten ziren arrats batean.

### **393. Kontrabandoko anekdotak (LES-021/009)**

Kontrabandoan, Lesakakoak Oiartzungoekin elkartu ziren tokian iturri bat omen zen, baina ur-zorriak zeuden. Ederakoan hortzak itxi behar zirela erran zuten, baina batek ez zituen eta zapi batekin edan zuen. Peoi izan beharrean, kontrabandoa zure kontu hartzen bazenuen, again hamar duro beharrean 30 irabazten zenituen, baina, paketea galtzen bazenuen, ordaindu behar zenuen.

### **394. Argia (LES-021/010)**

Lesakan argia paratu zutenak akziodunak ziren; zentral elektriko txiki bat egin zuten. Hasieran bonbilla bakarra paratu zuten etxeetan: hormetan eta lurrean zulo eginda tokiz aldatzen zuten, haien beharren arabera. Geroago Igantzitik ekarri zuten argia eta, beranduago, Iberduero sartu zen.

### **395. Auzolana 1 (LES-021/011)**

Auzolanean 16 urte gorako gizonak aritzen ziren. Etxe bakoitzeko batek pare bat egun egon behar zuen lanean. Askotan basozainarekin mendian landatzen aritzen ziren; ardoa eta ogia ematen zizkieten.

### **396. Auzolana 2 (LES-021/013)**

Eskolako berogailurako egurra mozten aritzen ziren. Maistru batekin gertatu zitzaion anekdota kontatzen du.

### **397. Kisua (LES-021/015)**

la baserri guztietan kisu-labe bat zegoen (lurrez tapatuta izaten zen). Auzolanean egiten zen kisua. Lehenengo, kisu-harria atera behar zen eta tokiraino eraman; egurra ere bildu, pilatu eta eraman behar zen. Gero, auzolanean harriak pilatzen ziren; arku forma ematen zitzaien. Goiko zulotik harriz betetzen zen eta gero, piztu. Hamar bat egunez sutan egon behar zuen. Ke beltza ateratzen zen hasieran, gero ke urdina eta azkenean su garra ateratzen da goitikan; orduan itxi behar da zuloa. Harriak ateratzerako orduan kontuz ibili behar da ez erretzeko. Harri zuriak igeltseroei saltzen zizkieten eta beltzak landarako erabiltzen ziren (harrak-eta hiltzeko). Ukenduak egiteko ere erabiltzen zen kisua. Apezak landak nola bedeinkatzen zituen, har beltzak zirenean: "kisatis, kisu ta gorotza". Kisu harriak eramateko eta deskargatzeko "dunbero" izeneko karro berezia erabiltzen zuten.

### **398. Zamak bihurreen lotu (LES-021/016)**

Zamak bihurreen lotzen ziren. Bihurrak haritzetan-eta ondoan ateratzen diren adar fresko berriekin egiten dira; mutur lodia handa azpian jartzen da eta beste muturretik eskuekin bihurtzen hasi behar da. Horrela ez da hausten, bigundu egiten da. Horrekin, errate baterako, egur zamak biltzen zituzten. Bihurriak altxatzen zituzten eta hurrengo sasoiaren uretan paratu eta biguntzen ziren

### **399. Ikatza (LES-021/017)**

Ikazti plaza prestatzen da aurrenezkoz. Txondorra egiteko, egurra lehertu eta zutik paratzen da; dorre zabal bat egin arte. Gero, lur eta hostoekin ezaltzen da dena. Txondorra egiteko hasieran kider luze bat jartzen da erdian eta kider hori gero kentzen da eta zuloa gelditzen da. Gero betarraia ematen zitzaion, hau da, txondorra pizten zen: eskala batetik igo, kendu ziria, ainar eta hosto batzuei sua eman eta ziriak utzitako zulotik bota. Txondorra pizten zenean, bazter batetik zuloa irekitzen zen, airea sartzeko. Gero, goiko zuloa lurrarekin (zoiekin) ixten da. Bitartean, beste zulo bat egiten da bazterrean; gero aurrekoa itxi eta beste bat egiten da pixka bat gorago. Horrela, txondor guztia egosi arte, erretzen utzi gabe. Amaitzen denean, hozten utzi behar da, aurretik urratzen bada, sutan hasten delako. Ikatza ateratzeko erremintak: pala, palaiki, arrastelu eta pikotx bat. Txondorra irekitzen denean, ikatza eta lurra nahastuta daude; hortarako galbahe bat zutik paratzen da eta palakadak botatzen dituzte: alde batean ikatza eta bestean lurra gelditzen dira. 35 kiloko hiru zaku dira karga bat ikatz. Ikatza mandotan jaisten zuten Lesakako alondegira: mando bakoitzari bost zaku paratzen zizkieten bastan. Alondegian "Patziku eroa" izaten zen, berak etxetara partitzen zuen ikatza (asko edaten zuen eta garbitzen zen inoizbehinka). Atarrabiako eroetxera eraman zuten.

#### **400. Ikatz klaseak (LES-021/018)**

Etxetarako haritz egurrekin egiten zen ikatza; arotzek, berriz, gaztain ikatza erabiltzen zuten (baita harri ikatza ere). Etxeetan, ikatza hornillotan (su txikitari) eta plantxetan sartzen zuten.

#### **401. Neurri zaharrak 1 (LES-021/019)**

Neurri zaharrak. Errotatan: laka, gaitzurua (hiru laka), erregu erdia (bi gaitzuro) eta erregua; Etxalarren, Infernuko errotan, ikusi du berak neurri hoiek erabiltzen zirela. Erregua 24 kilo ziren eta laka, bi kilo.

#### **402. Sosak (LES-021/020)**

Sosak: marauri (zentimo bat) eta sos-ediak izaten ziren. Elizan bitan pasatzen zen bandeja (erretilua): bat Jesusen Bihotzarentzat eta bestea San Pedroren animarentzat; emakume batzuek sosa eman eta erdia itzultzeko eskatzen zioten eliz mutilari. Bazen ere bi-soskoa (kobreko sos handia, alde batean lehoia eta bestea gaztelua zuena; horregatik erraten zen &ldquo;bota leon-Kastillo&rdquo;). Bortz-soskoa, hamar-soskoa (zilarrezkoa), pezeta (zilarrezkoa), bi pezetazkoa (zilarrezkoa) eta duroa (zilarrezkoa) ere ezagutu zituen.

#### **403. Neurri zaharrak 2 (LES-021/021)**

Ikatz eta sagar karga bat 35 kiloko hiru zaku zen. Konportak ontzi batzuk ziren (karga baten antzekoak). Tinakoak ere baziren, 25 edo 22 litroko egurreko ontzi borobilak (bi giderrekin). Urkien egurrekin egindako subilla ere bazen, urari gustorik ez emateko. Lurreko pendarra ere izaten zen. Laka, erregua eta bertze neurriak kutxa antzekoak ziren, bi giderrekin.

#### **404. Patziku eroa eta Lesakako Gobernua 1 (LES-021/022)**

Patziku "eroak" Lesakako Gobernua "egin" zuen. Lehendakariaren eta ministroen izenak eta karguak "arrazoi on batengatik" jarriak ziren.

#### **405. Patziku eroa eta Lesakako Gobernua 2 (LES-022/001)**

Patziku "eroak" Lesakako Gobernua "egin" zuen. "Ministro de Trabajo, yo", alferra zelako. Izen eta karguen zerrendaren bukaeran honako hau idatzi zuen: "Gizonok denboraz ez ziren zenbait bezela gaizki ateri Francoren denboran". Elizondora joaten zen trena zubitik pasatzen zen; Patzikuk biajanteen maletak eramaten zituen oinez. Gero kompetentzia izan zuen, kartzelan hogeitun urte pasatuta karabinero errepublikar bat itzuli zenean, asto batekin maletak eramaten hasi baitzen; Patzikuk "Yus" izengoitia paratu zion karabinero zaharrari.

#### **406. Jendeari nola deitu (LES-022/002)**

Lesakan etxeen izenak erabiltzen ohi dira jendea deitzeko (izengoitiak eta abizenak ere erabiltzen dira). Errate baterako, Kapallatta etxeko bati Kapallo deitzen zioten eta Bittiria etxeko bati, Bittiri. Izengoiti anitz erabiltzen ziren (Yus, Leon con gafas, beltza...), abizenak, berriz, gutxiago. Izengoitiak nola paratzen ziren adierazteko adibide batzuk jartzen ditu. Berari Kissinger, bere aitaren lankide bati Tipula (eta bere semeei), bertze baserriko bati Copón (bere semeei bezala, baina ilobei, berriz, euskaraz erraten diete: Kaliz).

#### **407. Jesukristo eta San Pedrorenak 1 (LES-022/003)**

Jesukristo eta San Pedroren istorioak. Jesukristo herritik hurbil bizi zen eta Jaungoikoa, berriz, Igantziko bideko baserri batean: Morronako bordan. Guardia zibilak Jaungoikoaren bila joan ziren behin Jesukristoren etxera. Jesukristo eta San Pedro munduz mundu ari zirela, ura eskatu zioten neskatxa bati, ontzia ongi garbitu eta ura eman zien neskatxak. Orduan, senar txar bat desiatu zioten, eta jarraitu zuten munduz mundu. Bertze andre bat ontzia garbitzen ari zela, ura eskatu eta ontzia garbitu gabe ura eman zien. Andre honi, berriz, senar on bat desiatu zioten.

#### **408. Jesukristo eta San Pedrorenak 2 (LES-022/005)**

Jaungoikoak edo Jesukristok zerbait egin omen zion atso bati eta nahi zuena emanen ziola erran zion. Honek zera eskatu zion: “goizean hasten dudana lana, egun guztikoa izatea neretzat”. Urrezko haria biltzen hasteko asmoa zuen, baina “lehenbizi pixa egiten dut” eta pixa egiten jarraitu zuen egun osoa.

#### **409. Fernando Amezketarra (LES-022/006)**

Fernando Amezketarrari emakume batek arrazoia kendu zionekoa. Fernando Amezketarra etxetik elizara zihoan (erretorearen laguna zen) eta emakume bat pikotxean jarrita, pixa egiten, ikusi zuen. Emakumea berehala zutitu zen eta Fernandok “lasai, lasai, hori denok egiten dugu” erran zion eta emakumeak “ez nik egiten dudana hau”.

#### **410. Hartza eta bi lagunen istorioa 1 (LES-022/008)**

Bi lagunek mendian topo egin zuten eta bat-batean hartza ikusi zuten. Inguruan pagotzar bat bertzerik ez zen, bakar batentzako tokia zuena. Lagun bat arbola gainera igo eta bertzeak, berriz, lurrera bota zuen bere burua.

#### **411. Hartza eta bi lagunen istorioa 2 (LES-022/010)**

Hartzak ez du jaten besteek utzitako gauzarik. Lurrean zegoenari hurbildu zitzaion hartza eta usaintzen hasi zen. Geldirik zegoenez, hartzak alde egin zuen. Orduan, laguna hurbildu, besarkatu eta galdetu zion ea hartzak zer erran zion belarrira. Honek erantzun zion aholkatu ziola alde egiteko arrisku egoeratan laguntzen ez duten lagunengandik.

#### **412. Arratoiek bilera egin zuten (LES-022/011)**

katu zahar ixil bat ibiltzen zela eta, arratoiek bilera egin zuten. Katuari kaskabilla (kaskabilo) paratzea erabaki zuten, non zebilen sumatzeko. Baina, zeinek paratu ez zuten erabaki eta ez zioten jarri.

#### **413. Azeria eta belea (LES-022/012)**

Azeriak sumatu du gazta usaina eta belea ikusi du gazta puska bat ahoan duela. Orduan hasi da pentsatzen engainatzeko modu bat bilatu behar duela. Orduan hasi zaio bere lumen edertasuna-eta goraiatzeko, eta bide batez, bota dio pena dela mutua izatea eta ikusteko berak zeinen ongi kantatzen duen. Zaunka egin eta gero alde egiten du azeriak eta belea erakutsi nahi dio zeinen ongi kantatzen duen. Mokoia ireki orduko, gazta erori eta azeriak hartzen du.

#### **414. Beleak ez du udan urik edaten (LES-022/013)**

Erraten dute, Jaungoikoak belea kastigatu zuela urtero 40 egunez urik edan gabe, putzua zikindu zuelako. Jaungoikoa ura edaten ari zela, beleak kaka egin zuen putzura.

#### **415. Azeria eta oilarra (LES-022/015)**

Lesakako Pintxe Joaquinek gezur guztiak sinesten zituen eta berak ere dena gezurra erraten zuen. Joaquinen lekuan oilar bat egin zuen eta istorio hau kontatzen du: oilar bat arbola baten gainean zegoela, azeri bat hurbildu zitzaion, haien arteko gatazka konpondua zegoela eta besarkada bat eman nahi ziola erranez. Oilarrak ere besarkatu nahi zuela erantzun zion, baina arbola gainetik ikusten zituen ehiztariak eta txakurra pasatutakoan jaitsiko zela. Orduan azeriak erantzun zion bertze batean izan beharko zuela, presa zuelako.

#### **416. Apezari ataka ebatsi zioteneko sermoia (LES-022/017)**

Don Juan Saldise apezari baratzeko ataka lapurtu zioten. Mezan zera erran zuen: &ldquo;Condenatis quienquedatis quien robatis mi atacatis&rdquo;.

#### **417. Oiloei Aitagurea errezatzen zien arrautza gehiago erruteko. Oiloei kaka eman jateko (LES-022/019)**

Oiloei Aitagurea errezatzen zien arrautza gehiago erruteko. Etxe batean oiloei kaka ematen omen zieten jateko.

#### **418. Harginek izokin guttiago jan nahi zuten 1 (LES-022/020)**

Amak kontatu zion (eta berari bere amonak) XVIII. mendean Lesakako elizan lan egitera etorri ziren harginekin gertatutakoa. Baldintza bat jarri zuten: izokina astean bi aldiz besterik ez zutela janen. Baina, gehiagotan ematen zieten eta protesta egin zuten, lanik eginen ez zutela erran zuten. Katiluen ipurdian “nola jan, hala lan” idatzi zuten

#### **419. Izokinak harrapatzeko xixta 1 (LES-022/021)**

Izokinak harrapatzeko tresna nolakoa zan azaltzen du: sarde gisakoa, xixta (txista) izenekoa

#### **420. Lamiak (LES-022/023)**

Lamia erdi animalia eta erdi pertsona omen da (gatzelaniaz sirena erraten diote). Amonak kontatzen zien, hemengo lamiek zaldien hankak zituztela eta ile hori luzea orrazten aritzen zirela beti. Ezin ziren jendearekin eralazionatu. Lamizuloa bazen: Mastegin zegoen zuloa, mendia zeharkatzen omen zuen eta Berrotarango baserriraino, sukalderaino, ailegatzen omen zen. Lamiren bat hara joaten omen zen eta behin, bertako emakumeak zartagian zuen olioia aurpegira bota zion. Jendea molestatu zuela jakin ez zezaten, olioarena “neronek nere buruari” egin ziola erraten zuen beste lamien aurrean. Lamiek sinetsi eta ez zioten kastigatu.

#### **421. Agotak (LES-022/024)**

Agoteak, ijitoak bezala, baztertuak zeuden. Bere amatxik kontatzen zien izugarriko usain fuertea izaten zutela. Agotak hiltzen zirenean ez zituzten lur bedeinkatuan sartzen, bereiz lurperatzen zituzten. Eliza berezia zuten. Belarri bereziak ere omen zituzten.

#### **422. Sorginen edo jende gaiztoen istorioa 1 (LES-022/025)**

Ortzegun Santu batean gertatutakoa: Mendibil edo Argatako baserriko bi neska ez ziren deusekin ikaritzen eta gaueko hamabietan, horietako batek, Argatako errekatik subilla urarekin ekarriko zuela erran zuen. Baserrian urduri zeuden neska ez zelako itzultzen. Bat-batean, tximiniatik sekulako oihua entzun zuten: "Argatako subilla zuentzat eta neskatxa guretzat".

#### **423. Ortzegun Santua eta ijitoaren istorioa (LES-022/026)**

Ortzegun Santu batean, mezan apeza Jesus nola gurutziltzatu zuten azaltzen ari zen eta bertan zegoen ijito batek "gaixoa" erraten zuen. Hurrengo urtean berriz joan zen mezara eta sermoia entzutean "pozten naiz" erran zuen; apezak zergatik galdetu zion haserre eta ijitoak zera erantzun zion: "¿no sabe lo que le hicieraon el año pasado?, ¿por qué ha venido este año?".

#### **424. Jaungoikoa eta ijitoa (LES-022/028)**

Ijito bat Jesus haurra hiltzetik libratu zuen eta Jaungoikoak, eskertzeko, egunean sos bat ebasteko baimena eman zion.

#### **425. Sorginen edo jende gaiztoen istorioa 2 (LES-022/030)**

Jende gaiztoek Mendibil baserriko tximinitik subilla bota zutenean zera erran zuten: "gaba gabazkoentzat eta eguna egunazkoentzat, subilla zuentzat eta Argatako neskatxa guretzat".

#### **426. Marigraxi sorgina (LES-022/031)**

Maurreni baserriko Marigraxi sorgin fama zuen. Baserriko hormak eraitsi zirenean eta berari deus pasatu ez zitzaionean konfirmatu omen zuten sorgina zela. Katu beltz bati egurra eman zioten baserri batean, eta hurrengo egunean begiondo altxatuarekin agertu zen emakumea, beraz, sorgina zela berretsi zuten.

#### **427. Sorginak. Andregaiak akelarrean (LES-023/001)**

Mutil batek ez zuen andregaiarekin zita egina, baina bere etxera joan zen. Ikusi zituen sorginak barruan, eltze batean egindako zerbaitekin gorputza igurtzen eta zera erraten: "sasi guztien gainetik ta goibel guztien azpitikan; ordu bat harat eta ordu bat honat"; Leioa ireki zen eta sorgina hegan atera zen. Mutila etxean sartu eta berdin egin zuen. Akelarrean iritsi eta andregaiak han ikusi zuen, hartu eta etxera eraman zuen.

#### **428. Sorginak uxatu (LES-023/002)**

Neska polit batek mutilari festa batera joanen zirela erran zion. Bilera zegoen tokira iritsi zirenean, lehenbiziko akerrari ipurdian musu bat eman behar ziola erran zion. Aker ondoren makurtu eta kriston zimikoa eman zion. Gero, neskek edalontzi distiratsu bat ekarri zion sagardo betea; mutilak ikusi eta "Jesus, hauxe brilloa ontzi honena" erran zuenean, burua altxatu eta bera bakarrik zegoen, sorgin guztiak joan baitziren Jesus aipatu zuenean. Izan ere, sorginak

uxatzeko behatzekin gurutzea egiten da. Somaten edo guardiak agertu ziren eta mutila sorginen liburuarekin zela ikusi zutenean, preso eraman zuten. Liburuan bere andregaiaren sinadura odolez idatzita zegoen; orduan konturatu zen bere andregaia sorgina zela. Mutila libre utzi zuten.

#### **429. Sacamantecas, sorgin eta lamietan sinetsi (LES-023/003)**

Bere amak sorginetan eta lamietan sinesten zuen. Hurrek Sacamantecas existitzen zela uste zuten.

#### **430. Azerien bataioa (LES-023/005)**

Ortzadarrari "azerien bataioa" erraten zion bere amak.

#### **431. Arima zubiaren truke (LES-023/006)**

Mutil zahar bat ur bazterrean bizi zen, baina zubia etxetik urruti zuen. Ura ttikia zenean, harrien gaintetik saltoka pasatzen zuen erreka, baina ur hazia zela, ezin zuen. Behin erran zuen: "emanen nuke nire arima hementxe zubia balitz". Gizon handi batek errandakoa entzun zuen eta biharamunerako zubia hor izanen zuela agindu zion, liburu batean odolarekin bere izena sinatzen bazuen. Mutila txantxetan ari zela uste zuen eta sinatu zuen. Oilarra kukurruku egin baino lehenago zubia egina izanen duzu, erran zion. Gauean zaratak entzun zituen eta kriseilua hartuta begiratzera joan zen; oilarrak, argia ikusita kukurruku egin eta zaratak gelditu ziren. Goizean, mutila zubia ia eginda ikusi zuen, hiru harri besterik ez ziren falta; berak paratu zituen eta arima salbatu zuen.

#### **432. Sorginetaz babestu (LES-023/008)**

Ateetan gurutzea paratzen zuten, etxea sorginez babesteko.

#### **433. Olentzero (LES-023/009)**

Amatxik kontaktzen zien Olentzero ikatz egiten aritzen zen gizon bat zela. Herrira etortzen zenean mozkortzen omen zen. Jesus jaio zela amestu zuen eta berria ematera joan zen herrira; hainbeste edan zuen, endelu (endelgu) dena galdu zuela. Horregatik kantatzen da: "Olentzero buru handia, endelu omen du ahantzia, bart arratsian edan omen du hamar erreguko zahagia, ai urde tripahandia, horra horra, gure Olentzero, pipa hortzian dula, eserita dago, kapazu bete dauka arrautzatxoekin, bihar merendatzeko botila ardoakin ". Hala ere, mendira itzuli zenean ez zuen ahaztu janariz betetako kapazoa eramatea. Olentzero Lesakakoa omen zen, baina Oiartzungoa zela ere entzun du. Lehen ere Olentzero ospatzen zen, eskean ibiltzen ziren.

#### **434. San Nikolas (LES-023/010)**

San Nikolas egunean, monagilloak (eliz mutilak) eskean ibiltzen ziren, kasulla jantzita. Asto baten gainean San Nikolas (apezpiku jantzia) joaten zen. Zera abesten zuten ateetan: "San Nikolas koronero, "arretxiban" subillero, ez eman, bai eman, ez eduki atean, unas veces una, otras veces dos, una limosnita por amor de Dios". Sosa ematen zieten, hori zen monagilloen paga.

#### **435. Santa Infancia (LES-023/011)**

Eskolan "Santa Infancia" izeneko eskea egiten zen Txinako haurri laguntzeko.

#### **436. Zubigaineko dantza (LES-023/012)**

Zubigaineko dantzaren istorioa kontatzen du. Lesakan bi auzo omen zeuden (Legar auzoa eta Piku zelaia), baina arrunt gaizki moldatzen ziren. Gaztelako errege baten soldaduek Lesaka ebatsi eta erre zuten. Ondoren, bi auzokoek bilera egin zuten eta elkartzea erabaki zuten, herria defendatzeko indartsuagoak izanen baitziren. Lesakako bandera egin zuten eta juramentua. Ospatzeko, besta bat egin zuten eta bi petriletan dantza bat egin zuten banderarekin (auzo bakoitza alde batean). San Martin egunean egin zuten (Lesakako eliza San Martin da), baina gero San Fermin egunera pasatu zuten. Lehen alkatearen alabak lehentasuna zuen Aurrekuan. Ez da ezpatadantza, makildantza baizik.

#### **437. Tantirumairu (LES-023/013)**

Tantirumairu Lesakako musika bat da, Sanferminak baino zenbait igande lehenago jotzen zuten. Goizean jotzen zuten eta herriari buelta ematen zioten. Gero Martin izeneko etxean ixilik gelditzen ziren, lehen han urkabea zegoelako (amatxik azaldu zionez) eta jendea urkatzen zutelako bertan. Handik joaten zirela, berriz ere hasten ziren musika jotzen.

#### **438. Lur komunalak (LES-023/014)**

Lur komunaletan kanon bat ordaintzen da. Baserriek badute lur zehatz batetako iratzeak egiteko eskubidea. Urteen poderioz anitzek uste zuten haiei zegozkien lurak zirela. Otxarango mendia herriaren eskuetan zen eta bertan bazegoen lege berezi bat: Muxintxo edo Mixintxo egunera arte (ez daki noiz zen), norberak zegokion lekuan iratzeak egiteko eskubidea zuen, baina, biharamunetik aitzinera, edonork egin zitzakeen edozein tokitan.

#### **439. Gaztainak (LES-023/015)**

Gaztainak kandelan (subastan) hartzen ziren. Bi ezkil jotzen ziren kandela zela errateko. Enkantea nolakoa izaten zen azaltzen du. IRUDIA GAIZKI DAGO

#### **440. Elizako ezkilak (LES-023/016)**

Elizako ezkilekin dena abisatzen zen: enkanteak, suteak, hildakoak etab. Monagilloak (eliz-mutilak) ere bere deiak bazituen, apaiz bakoitzak dei berezi bat erabiltzen zuen.

#### **441. Maiatza. Arbola paratu (LES-023/018)**

Maiatzaren lehenbiziko egunean, gauez, mutil gazteek txoporik (makal) ederrena moztu eta neska politenareri atean paratzen zioten. Bestalde, urte horretan Jaunartzea egindako neskek, "con flores a María" abesten zuten elizan eta loreak bota. Mutilek sekretuan erabakitzen zuten zein neskari paratu arbola. Batzuetan bat baino gehiago paratzen zituzten eta etxez aldatzen zituzten.

#### **442. Ezkontza tratoak 1 (LES-023/020)**

Lehen ezkontza trato anitz egiten ziren. Normalean etxe onekoek elkarrekin egiten zituzten. Andregaiak mutilaren etxera arreoan eramaten zuten: apaindutako idi edo behiek tiratzen zuten karro batean maindireak, logelako zenbait altzari etab. Dotea sosa zen. Neska bati "la hija de medio millón" deitzen zioten, milioi erdiko dotea izan zuelako. Lesakar bat, Inaxio "mostrerua" (arropa saltzen ibiltzen zena), ezkontza tratoak egiten aritzen zen.

#### **443. Ezkontza tratoak 2 (LES-023/022)**

Inaxio "mostreruak" kobratzen zuten ezkontza tratoak egiteagatik. Nola egiten zituen azaltzen du.

#### **444. Behia ahalik eta hurbilen erosi behar da (LES-023/024)**

Artzain batek hiru aholku eman zizkion. Ardiak kentzeko erran zion, artzainek lapurtzeko joera baitute. Horrez gain, behia etxetik ahalik eta hurbilen erosi behar zuela ere aholkatu zion, behiak akatsen bat baldin bazuen ez ziotelako salduko, saltzailea berriz ikusteko aukera izanen baitzuen. Baina andrea, ahalik eta urrutienetik ekarri behar zuela.

#### **445. Anekdota. Itsasoko olatuak (LES-023/025)**

Donostiara joan zen gizon bat eta olatuek busti-busti ziotenean zera erran zuten: "Demonio panparroi zikina, ezkondu hadi...!"

#### **446. Opilak (LES-023/026)**

Amak opilak nola egiten zituen azaltzen du: irina paratu, zulo bat egin erdian, gatz pixka bat bota, ur beroa, goilara bat ogi irin, oratu eta taloburdinean suan erre.

#### **447. Sinesmenak. Katua laketzeko (LES-023/027)**

Sinesmena: katua etxera eramatekin, laketzeko, zaku batean paratu eta laratzan hiru buelta eman

#### **448. Eguraldia iragarri 1 (LES-023/028)**

Eguraldia iragartzeko sinesmena: katua musua garbitzen badu itsasaldera begira, euria egin behar du.

#### **449. Eguraldia iragarri 2 (LES-024/001)**

Gauetz izarrak ikusten direnean, bihar eguraldi ona. Izarrak dir-dir ibiltzen badira, haizegoa. Zizareak lurretik mugitzen baldin badira, euria egin behar du. katua musua garbitzen badu itsasaldera begira, euria egin behar du. Umeak nahasiak badaude, haizegoa. Ardiak goiti beheiti etortzen baldin badira, eguraldi txarra.

#### **450. Sinesmenak. Oilarrak gauetz kukurruku egiten badu (LES-024/002)**

Sinesmenak. Oilarra gauetz kukurruku egiten badu, sorginak dira. Bere amak hatzapar bat gatz hartzen zuten eta sutara bota

#### **451. Sinesmenak. Kukua aditzean (LES-024/003)**

Amatxik kontaktzen zien kukuak lehenbiziko kukua erromako zubian egiten zuela. Kukua lehendabiziko aldi aditzean, sakelan sos bat baduzu, urte osoan ez duzu diru faltarik izanen. Kukua aditzean, berriz, sakelan sosik ez baduzu, beti diru falta.

#### **452. Belarriak gorritzen bada (LES-024/004)**

Ezkerreko belarria gorritzen baldin bada, norbait zure kontra ari da. Eskuinekoa gorritzen bada, berriz, norbait ari da zure alde.

#### **453. Euskara eta erdara. Gaizki-ulertuak 1 (LES-024/006)**

XVII. Mendean, San Antonen general Morriones zegoen; bere soldaduak bertako baserri batean apopilo zeuden. Erdaldunak ziren eta baserriarrek, berriz, euskaraz besterik ez zekiten. Bazkaltzeko orduan "sal" eskatu zioten emakumeari, eta bera salara joan zen. Soldaduak joan zirenean, "ya nos marchamos" erran zieten etxekoei eta hauek martxoan etorriko zirela ulertu zuten. Amatxik kontatutako istorioak dira.

#### **454. Euskara eta erdara. Gaizki-ulertuak 2 (LES-024/007)**

Bi joan ziren neskato, hurrengo astean bueltatu ziren eta zenbat erdara zekiten erakutsi nahi zuten. Batek erran zuen: "qué hosto mas verde"; eta bertzeak erantzun: "sí chica, que gure behiak jango".

#### **455. Daniel albintearen istorioak (LES-024/008)**

Daniel albinteak bandoa irakurri zuen: "patata de semilla a tanto el kilo y el que quiera tomar por saco, a tanto". Danielen andreak berbena belarrarekin tortilla egin zuen, bularrean paratzeko, eta hozten utzi zuen. Daniel etxera iritsi zen, gose, eta tortilla jan zuen.

#### **456. Sinesmenak. Muskerrak salto egiten badu (LES-024/009)**

Muskerrak salto eginez gero eta aurpegian hatzamarrak jartzen baditu, ez dago kentzerik. Abisua eman behar da eta zazpi herritako ezkiek batera jo behar dute, muskerrak atzera egiteko.

#### **457. Sinesmenak. Gauza bera aldi berean erran (LES-024/010)**

Bi lagunek gauza bera eta aldi berean erraten badute, purgatorioko anima bat salbatzen da.

#### **458. Sinesmenak. Azazkaletan orban zuriak (LES-024/011)**

Azazkaletan orban zuriak ateratzen direnean, andregai edo senargai duzula erran nahi du.

#### **459. Sinesmenak. Baria ateratzen bada (LES-024/012)**

Baria altxatzen zenean, lurretik harri bat hartu, listua bota eta berriz lurrean uzten zuten, toki berean.

#### **460. Sinesmenak. Txukuna etortzen bada (LES-024/013)**

Txukuna etortzen bada, ikaratu, eskua buru gainean jarri edo txapelari buelta emanda joaten da.

#### **461. Sinesmenak. Ogia hasi aurretik (LES-024/014)**

Bere amatxik, ogia hasten zuenean, nabalarekin gurutzeta egiten zion moztu aurretik.

#### **462. Txokolate-pastilla bat hiru anaientzat (LES-024/015)**

Hiru anaia zirenez, amak txokolate-pastillaren herena ematen zien merendatzeko, ogi puska batekin; Pedro Mayo markako txokolatea zen.

#### **463. Arropa eta zapatak (LES-024/016)**

Amak arropa egiten zien. Galtzak nola egiten zizkien azaltzen du. Behin oinez joan zen ama Berara, zapata merkeak erostera. Berak jarri zituen eta egun berean hautsi zituen, futbolearen jostetan, losa bati ostikoa emanda. Charlotten pelikula baten eszena batekin konparatzen du.

#### **464. Erremedioak. Haurren legarrentzat (LES-024/017)**

Mingainean ateratzen ziren pikor zuriei legarra erraten zitzairen. Hurrei ateratzen ohi zitzairen eta hura sendatzeko, mingaina laratzan igurtzen zen.

#### **465. Erremedioak. Pikor eta ebakientzat (LES-024/018)**

Pikorrentzat eta handitxuentzat ukendu bat prestatzen zuten: ebaki-belar zabal batzukekin, argizarirekin eta beste osagaiekin; "tirakilu" erraten zioten. Ebakietan, berriz, ebaki-belarra bakarrik jartzen zuten, lotuta. Armiarma sarea ere erabiltzen zen ebakientzako.

#### **466. Erremedioak. Ezpain pikatuentzat (LES-024/019)**

Ezpain pikatuetarako, pixa erabiltzen zen.

#### **467. Erremedioak. Sugeen ausikientzat (LES-024/021)**

Sugeen ausikiendako, errezuak egiten ziren. Ardi bati ausiki egin zion suge batek eta emakume bati erran zioten; honek errezoak egin eta ardia sendatu zen.

#### **468. Erremedioak. Behien zingirioarentzat (LES-024/022)**

Behiek errapetan zingirioa izaten zutenean (esnea titian gatzatzen zenean), zotalarekin, oiloen gantzarekin eta beste zerbaitekin ukendua egiten zen eta titia igurtzen zuten.

#### **469. Erremedioak. Katarroarentzat (LES-024/023)**

Ardo egosia, azukrerekin gozatuta hartzen zen katarroarendako. Gorputza berotu egiten zuen eta, gero, ohean, izerdia botatzen zuen.

#### **470. Erremedioak. Zizareentzat (LES-024/024)**

Lehen hurrek zizareak izaten ohi zituzten. Kopetan eta eztarrian ozpina paratzen zieten; baratxuria ere paratzen zen.

#### **471. Erremedioak. Eztularentzat (LES-024/025)**

Eztularentzat tipula ona da; logelan plater batean zati bat jarri behar da.

#### **472. Erregeen pribilegioak (LES-024/026)**

Erregea bortz herrietako nagusia zen. Zortzi egunetik, Lesakan azoka izaten zen. Erregeak (Antso Jakitunak) pribilegioa emanda (Aragoiren kontrako gerrara lesakar batzuk boluntario joan zirelako). Erregea Lesakatik ibiltzen zen; Ubiriko baserrian, erregeari aziendak erakutsi eta jateko intxaurrak atera zizkioten; erregeak zer nahi zuten galdetu zien eta erantzun zioten Ubiriko baserrian norbait hiltzen zenean, apeza baserriraino joatea defuntuaren bila. Izan ere, ordura arte, aldalekura (mezara joateko arropa aldatzeko tokiak izaten zituzten baserritarrek) eramaten zuten hildakoa eta hara joaten ziren bila elizatik eta bizkarrean eramaten zuten elizara. Bertze gerra batean, berriz, Lesakako gazte batzuk Antso Jakitunaren kontra aritu ziren, eta Meazubin zintzilikatu zituen; ordutik, merkatua hamabortzean behin izatera pasatu zuen. Nafarroako armarrian Meazubi agertzen dela uste du.

#### **473. Barraka eta Kaxenen istorioa (LES-024/028)**

Kaxen Lantzen bordan bizi zen eta ehizarako afizio handia zuen. Goiz gabean zakurra eskapatu zitzaion. Ingurutan Maurizio Barrakakoa zegoen (azpiko baserrian bizi baitzen). Hildako ardia eraman zion Kaxeni eta bost duro eskatu zizkion. Kaxenek, orduan, ardia emateko erran zion. Azkenean, Barrakak dirua itzuli eta ardia eraman zuen.

#### **474. Barrakaren andrearen istorioa (LES-024/029)**

Barraka andrerik gabe zegoela-eta, anaiaren alabarekin ezkondu zen.

#### **475. Istorioa. Ontsalea eta Pillotia baserriak 1 (LES-024/031)**

Ontsalea eta Pillotia baserrikoek arazoak zituzten bien arteko muga non zegoen zehazteko. Iruñeko abokatu batengana joan Ontsalekoa eta dena kontatu zion. Ondoren, Pillotikoa ere abokatu berarengana joan zen eta honek beste abokatu batengana joateko erran zion; eskutitz bat idatzi zion eta beste abokatuari emateko erran zion. Bidean, Pillotikoa apezarekin topo egin zuen eta honek susmo txarra hartu zuen eskutitza itxita zegoela ikusi zuenean. Irakurri zuten eskutitza eta zera jartzen zuen: "Mira, ahí te mando un pollo para que le desplumes, al otro lo tengo yo; ya comeremos juntos". Pillotakoak Ontsalekoari karta erakutsi zion eta ordutik aurrera ez zuten arazorik izan.

#### **476. Istorioa. Barraka Argentinan (LES-024/032)**

Barrakak Argentinan esnetegi batean lan egiten zuen. Etxeetara partitzen zuen esnea. Inspektorea agertu zitzaion esnearen kalitatea-edo neurtzera eta urduri jarri zen. Inspektoreak ez harrapatzeko, ontziak zituen hiru litro esne edan zituen.

#### **477. Istorioa. Paulo Axali eta Rafael Kuttunaren bertsoak 1 (LES-024/033)**

Paulo Axalik bertso batzuk paratu zizkion Rafalek kuttunari: "Ezagutzen al duzue Rafael Kuttuna...".

#### **478. Istorioa. Paulo Axali eta Rafael Kuttunaren bertsoak 2 (LES-024/035)**

Berriz ere, Paulo Axalik bertso batzuk paratu zizkion Rafalek kuttunari: "Rafaelen bizitza kantatu dezagun, ostatuan dabil jai eta astegun, bizioz gailendua, elizatik urrun, laister joan beharko duzu Luziferren lagun".

#### **479. Istorioa. Epetxa, Erbia eta Batixtaren hortzak 1 (LES-024/036)**

Antonioren ostatuan, Epetxa (izengoitia) zegoela ikusita, Erbiak (izengoitia) zera erran zion: "koño, ez dut sekula erbirik ostatuan ikusi" eta besteak honako hau erantzun zion: "ezta nik ere epetxik burusoilik". Dena entzunda, Batixta irriz hasi zen eta hortzak erori zitzaizkion.

#### **480. Istorioa. Senar-emazteak baseritik Donostiara (LES-024/038)**

Baserry batetako alaba bat Donostiara ezkondu zen. Alabak gurasoak behin eta berriz gonbidatzen zituen eta, azkenean, bisitan joan ziren, agorte handia zegoela aprobetxatuz. Ama alabarekin egoten zen sukaldean. Gizona suhiarekin hiria ikustera joaten zen, baina hirugarren egunerako aspertuta zegoen. Egun batean, itsasoan itsasontzi handi bat ikusi zuten eta suhiak zein itsasontzi ederra eta zenbat balioko ote zuen galdetu zuen, eta gizonak erantzun zion erauntsi eder batek baino guttiago balio zuela.

#### **481. Istorioa. Ogi zaharrak erosi (LES-024/040)**

Etxe batean arrunt pobreak ziren. Bi mutiko asetzeko, amak ogi zaharrak erosten zituen. Mutiko bat bi ogi zahar erostera joan zen, baina ez zuten, egunekoa bakarrik zuten. Mutikoa ikaragarri poztu zen, azkenean eguneko ogia janen zutelako. Amak beti erraten baitzien egun horretako ogia hurrengo egunean janen zutela.

#### **482. Istorioa. Egurrik ez etxean eta San Antoniok ekarri (LES-024/041)**

Lesakako Arretxean Jeronimo itzaina bizi zen. Galerarekin Iruñera ardo bila joaten zen (bueltan mozkortzen omen zen). Behin arrebak egurrik ez zutelako erran zion eta mendira joan zen bila. Itzultzen ez zela ikusita kandela piztu dute. Iritsi zenean San Antoniori eskerrak eman zizkioten behin eta berriz, eta Jeronimok, haserretuta, erran zen hurrengoan akuilua San Antoniori emateko egurra ekartzeko.

#### **483. Istorioa. Txokolate eta esnea (LES-024/043)**

Etxe batean bi emakume bizi ziren eta ez zuten deus ere, ez esnerik ez pazirik... goserik baizik. Zuten ametsarekin bizi ziren: "oraintxe txokolate eta esnea bagenu...".

#### **484. Istorioa. Separatu behar (LES-024/045)**

Abaskeneko Joakin eta bere lagunek Nikolas ardoz ase zuten eta zazpi seme-alaba zituela erraten zioten, baina Nikolasek bi baino ez zituen gogoratzen. Orduan erabaki zuen banandu behar zuela eta epailearengana joan zen Kuttuna eta Joakinekin. Gauean esnarazi zuten eta epaileak erran zion bakarrik bizitzeko bera aski zela, mutilzaharra zelako.

#### **485. Istorioa. Federico eta Guillermo San Migelekin (LES-024/047)**

Aralarko San Migel ekartzen zenean, alkatea-eta joaten ziren bila. Guillermo zen alkate eta Federico zirikatzeke, prozesioa bera lanean ari zen lekura hurbildu zuen. Ikaratu eta lotsatu zen.

#### **486. Istorioa. Manuel Etxeberria eta mandoak (LES-024/049)**

Manuel Etxeberriak mandoak zituen. Manuelek Epetxi erran dio mando zaharra buruan jo eta lurpean sartzeko. Mina zulora eraman eta han bota du, gero solasean eguna pasatuko zuela pentsatuz. Nagusiarengana itzultzean, nagusiak mandoari jaten emateko erran dio, mandoak handik atera eta etxera itzuli zela.

#### **487. Istorioa. Sardin zaharrari Guardia zibila erran (LES-024/050)**

Sardin zaharrari guardia zibila erraten zitzaion. Epetxa morroia zen eta nagusiak ur eske bidali zuen. Biderako bi sardin zahar eman zizkion. Uste baino lehenago agertzean, nagusiak harriturik galdetu dio nola egin duen, eta bertzeak erantzun dio guardia zibil parejarekin bidali duelako.

#### **488. Istorioa. Komentuko neskatoa, medikua eta supositorioak (LES-024/051)**

Amatxik istorio hau kontatzen zion. Komentuko mojek Grabiela neskatoari Don Diego medikuarengana joateko eskatu zioten, anginen kontrako botika behar zutela-eta. Medikua supositorioak eman zizkion eta, neskatoak nola hartu behar ziren galdetu zionean, "ipurditik hartzeko" erran zion. Neskak pikutara bidaltzen zuela uste zuen.

#### **489. Istorioa. Joxe Ramon eta zintzurreko mina (LES-024/052)**

Joxe Ramonek zintzurreko mina zuen eta medikuak bi supositorio eman zizkion. Bidean bat hartzeko erran zion. Berak ahotik hartu zuen.

#### **490. Istorioa. Jose Mari itsua (LES-024/053)**

Jose Mari itsua eskean ibiltzen zen eta, igandetan, elizako organoaren hauspoari eragiten zion. Gero, elizako atean txapela paratzen zuen eta errezatzen aritzen zen. Behin, Salbatoretan, karroza batean eseri zuten eta, liburu bat eskuetan zuela, zera erraten hasi zen: "capítulo primero" eta handik gutxira: "Frain auzoko neskatxak elegante jantzi, gainetik garbi eta azpitik zikin. Ilea lotzen dute a la fu, mixto batekin emanen nioke su". Lehen, bestetan, ahate jokoa egiten zuten; zaldien gainean, ahatearen burua hartu eta tira egiten zuten.

#### **491. Istorioa. Zelepo, Martin eta Miguel lantegian (LES-024/055)**

Fabrikan lanean ari ziren. Zelepok alaba gazte eta polita zuen. Martinek eta beste langile batzuk, neska esposatzeko eskatzen zioten. Miguelek sosa bazituela eta beste "castellanoak" zer zuen galdetu zion Martinek Zelepori. Honek "edukazio handia" zuela erran eta besteak "edukazio handikoa bada, zuen etxean ez da laketuko".

#### **492. Istorioa. Pototxaren ametsa (LES-024/056)**

Lorentxo "pototxak" erraten zuen alkatea balitz egunero Sanferminak eta ardoa guztientzat izanen zela.

#### **493. Istorioa. Apeza, birjintasuna eta edari berezia (LES-024/057)**

Bekoerrotek kontatu ziona: apezak birjintasuna kendu zion neska bati eta neskak gertatutakoa bere aitari azaldu zion. Aitak neskari botila batean pixa egiteko erran zion eta bere ezkontzako bazkarian, neskaren aitak "edari berezia" eman zion apezari, "berorrek zulatutako barrikako edaria" zela erranez.

#### **494. Istorioa. Hiru gezurtero, zein baino zein handiagoa (LES-024/059)**

Danielek erraten zuen munduko ardatza oker zela, baina zuzentzen hasi zela. Azaltzen zuen mutil fuerteak Amazoniara eramaten zituztela arbolak botatzera. Josetxok kontatzen zuen Ameriketara ikusi zuela karretera bat egina arbola bat zulatuta. Bertzeak galdetu zion zergatik ez zuten bazterretik egin eta bertzeak erantzun zion hagitz handia zela eta gainean familia bat bizi zela. Xueltok erraten zuen Ameriketara telebistatik tabernaren barruko aldea ere ikusten zuela.

#### **495. Istorioa. Gezurtiak eta kristoren aza (LES-025/001)**

Baziren bi gezurti. Bat trenean zihoan eta kriston aza ikusi zuela kontatu zuen. Hurrengoan, besteak baserri batean kriston eltzea ikusi zuela erran zion, berak ikusitako aza egosteko.

#### **496. Istorioa. Igantzi eta semea (LES-025/003)**

Igantzi eta bere semea mintzatzen ari ziren eta honek zorrak zituela erran zion aitari. Aitak ere erran zion berak ere izanen zituela, norbaitek emanen balio.

#### **497. Istorioa. Aratxea bihurrarekin lotuta (LES-025/005)**

Aretxeak Udaleko katastroan apuntatu behar ziren. Mauricio "Barrakak" ez zuen egin eta Irunera eraman zuen aretxea. Endarlatsan bihurrarekin lotu zuen eta guardia zibilak pasa zirenean "qué curioso" erran zioten, berak, berriz, "no es curioso, es provechoso" erantzun zien. Izan ere, ez zuen zergarik ordaindu.

#### **498. Istorioa. Astoa eta zerria (LES-025/007)**

Bazen asto gizajo bat "muturretik gutxi eta bizkarretik anitz" zuena. Etxe berean, berriz, bazen zerri bat bazka asko izaten zuena. Astoa, beraz, zerriari inbidia zion, hiltzea zihoaztela ikusi zuen arte.

#### **499. Istorioa. Azeria eta zikoina 1 (LES-025/008)**

Azeriak zikoina bazkaltzera gonbidatu zuen oso diplomatikoki eta zikoinak baietz erantzun zion. Salda eman zion plater batean eta zikoinak ezin edan aritu zen. Beste egun batean zikoinak gonbidatu zuen eta salda atera zion ere, baina botiletan. Zikoinak erraz edan zezakeen mokoa sartuta.

### **500. Istorioa. Inurria eta kilkirra (LES-025/009)**

Neguan, hotzak eta goseak hiltzeko puntuan zegoen kilkirra eta inurriarengana joan zen bere etxera. Inurriak udan zer egin zuen galdetu zion eta kilkirrak "kantari" erantzun zion. Inurriak, orduan, "bada orain dantza hadi" erran zion eta atea itxi.

### **501. Istorioa. Astoa eta tanborra (LES-025/010)**

Maisuak kontatu zien istorioa: bazen asto bat beti mehe, "muturretik gutxi eta bizkarretik anitz", beti lanean ari zena gizon erretxin batentzat. Hil zenean, baina, ez zuen pakerik izan, gizonak bere larrua saldu zuelako eta horrekin tanbo bat egin zutelako.

### **502. Istorioa. Bi negelak (LES-025/011)**

Bi negelen (igelen) istorioa kontatzen du (bata bertzea baino zentzudunagoa). Ur putzu bat ikusi eta batek salto egin zuen uretara. Bertzeak ez, gero ezin atera ibiliko zelako.

### **503. Etxetik kanpo lanean. Non egiten zuten lo (LES-025/013)**

Ura etxeetara eramaten aritzen ziren. Arantzan bera, aita eta lagun bat lanean ari zirela, baserri batean hartu zuten ostatu. Ganbaran egin zuten lo, belar eta zurikinen artean. Egun batean, belarrak zabaltzera sartu ziren eta zaratarekin esnatu ziren. Diego izeneko baten etxera joatean, gizon berezi batek ireki zuen atea eta ikaratu ziren, baina bere aitak bazekien nolakoa zen, horregatik lasai azaldu zion zertara heldu ziren eta baimena erakutsi zion.

### **504. Angulak Arantzan beltzatu (LES-025/015)**

Arantzako erreka batean angulak beltzutzen zituzten. Zuriak eramaten ziren eta lapitz harritik heldu den urarekin goiko aldea marrazten omen zitzairen.

### **505. Salvatore egunean antzar jokoa (LES-025/017)**

Salvatore egunean, antzar jokoa egiten zen Frain auzoan (Salvatore ermita hor dago). Baserri baten ondoko bidean antzarak zintzilikatzen zituzten. Zaldiz goiti beheiti pasatzen ziren oso azkar eta antzara lepotik hartzen zuten. Hamaiketan izaten zen antzar jokoa eta gero bazkaria egiten zuten. Arratsaldean Jose Mari Itsua karrozan ateratzen zen

### **506. Inauteak (LES-025/018)**

Franco denboran ez zen libre. Aurretik, berriz, maskarekin joaten ziren jantziak. Zakuzarrak nolakoak ziren azaltzen du: hiruzpalau zakukin egiten zen mozorroa eta iratzez eta belarrez betetzen zen. Ezbehar anitz izan ziren zakuzarrekin. Kalejira egiten zuten eta eskutan pixontzi idorra haizatzen zuten, mutikoei jotzeko. Aurpegian zapia zeramaten, bi zulorekin. Plazan, zakukak xehatzen zituzten eta belarrak elkarri tiratzen zizkioten. Gazte batek mozorro azpian, ipurdi aldean, ezta paratzen zuen eta beste batek ogia hartuta, gona altxatzen zion, igurtzi eta jaten zuen. Beste batek makil batetik pikukak zintzilikatzen zituen eta, arrantzan bezala, mutikoei ahoarekin hartzen zituzten.

### **507. Gaiztakeriak (LES-025/019)**

Sanferminetan, mutil batek mando-euliak eskuekin bildu eta emakumeen gona azpitik sartzen zituen.

### **508. Apustuak (LES-025/020)**

Batek apustua egin zuen Lesakatik Artikutzara joan eta etorri lasterka eginen zuela denbora jakin batean; baina ito egin zen. Beste apustu bat gogoratzen du: bi pilotari eskuak elkarri lotuta, beste baten kontra.

### **509. Elizan hiru klase izaten ziren (LES-025/022)**

Elizan hiru klase izaten ziren. Lehenbiziko klasekoak etxaldekoak eta handikiak ziren. Haietako baten hiletaren urteurrenean, ilaran, "proguan", saski batean bildots bat eramaten zioten apezari. Bigarren klasekoek, berriz, bakailao bat eramaten zioten. Etxeetan sagarrik hoberenak gordetzen zituzten eta apezari eramaten zizkioten.

### **510. Hamarrenak eta primiziak (LES-025/024)**

Elizari hamarrenak eta primiziak ordaindu behar zitzaizkion: zure irabazien hamarretik bat elizarentzat zen.

### **511. Elizako hilarriak (LES-025/026)**

Bankuetan etxeetako izena edota armariak zeuden jarrita (maizterrenak ez) eta han paratzen ziren hilarriak. Han izaten zen argizaria piztuta, zortzi hankako egur batean. Gizonak atzean jartzen ohi ziren. Difuntuaren familiakoak mantuarekin janzten ziren. Maizterrek ez zuten bere tokia bankuetan.

### **512. Ama ezkongabeak (LES-025/028)**

Ama ezkongabeen seme-alabak gauez bataiatzen zituzten. Batzuetan amaren familiako inor ez zen joaten amatxitako. Beti gaizki ikusiak izaten ziren. Haurrak inklusara eramaten ohi zituzten.

### **513. Herrien fama (LES-025/030)**

Herrien fama: lesakarrak, mozkorrak; beratarrak, inbidiatsuak; igantziarrak, jakintsuak; arantzarrak, harrikalariak eta etxalartarrak, tukutuku (beti berea egiten dute).

### **514. Lesaka eta Beraren arteko harremana (LES-025/031)**

Lesakarren eta Beratarren artean pikea izaten zen. Errate baterako, futbol partidatan. Alkaiaga eta Zalain auzoak Lesakakoak dira.

### **515. Bortzirietako herrien arteko harremanak (LES-025/032)**

Bortz herrietako bestetan, bazkaria egiten da inguruko hamar bat herritako alkateekin.

### **516. Bortzirietako euskara (LES-025/034)**

Bortzirietako herrietan solasa edo doinua ezberdina izaten da. Igantzi, Lesaka eta Arantzakoak ez dira hain diferente; Bera eta Etxalarkoak, berriz, bai. Etxalarren Baztango solasa eta frantsesa sartzen dira anitz.

### **517. Beti Gazte 1 (LES-025/036)**

Lehen futboleant itsusi jokatzeko zuten. Autobusez joaten ziren bertze herritara jokatzera. Beobidek (tolosarra berez) Beti Gazteren himnoa egin zuten.

### **518. Beti Gazte 2 (LES-025/038)**

Don Miguel Cañizares apezak, gazteak biltzeko, erretorearen etxean zine mutua jartzen zuten. Cornelia Lekuonak hainbat etxe eta baserri utzi zizkion elizari hil zenean. Elizak baserri batzuk saldu zituen sosa izateko. Gazteak aitzurrarekin futbol zelaia egin zuten (orain ikastolak duena). Orduan antolatu zuten Beti Gazte futbol taldea. Aurreneko futbolarien izen batzuk aipatzen ditu.

### **519. Batallón de Trabajadores (LES-025/039)**

Soldadu presoak izan ziren Lesakan, gerran. "Batallón de trabajadores" osatzen zuten presoek Oiarzunera doan errepidea egin zuten, pikatxoi eta palarekin. Presoren bat kastigatzen zutenean, zaku bat hare lotua eramaten zuten bizkarrean, lan egiten zuten bitartean. Aisialdian futboleant aritzen ziren, "eta hartatik hasi zen futbola hemen". Neska gazteek dotrina erakusten zieten, eliza atarian, lanetik pixka bat eskapatzeko-edo; gero, bataiatzen zituen apezak. Basakeriak egin zituzten soldadu presoekin. Behin, "ornuak" (uzta bildu ondoren, batzuetan gelditzen diren aleak) biltzera joan zen preso bat eta lesakar batek tiroz hil zuten. Presoek, dirua lortzeko, euren zapatak saltzen zituzten eta egurrezko bota-kalotxak erabiltzen zituzten (beraiek eginak)

### **520. Burdinezko eskulturak egiten hasi zen (LES-026/002)**

Euskal Herriko bizimodua nolakoa zen erakusten duten burdinezko eskulturak egiten nola hasi zen azaltzen du.

### **521. Eskultura. Azienda ferratu (LES-026/003)**

Behiak, behorak eta abar arkeran nola ferratzen ziren erakusten duen eskultura. Tresna guztien izenak eta prozesua nolakoa zen azaltzen du.

### **522. Eskultura. Lurra irauli (LES-026/005)**

Behi pareak golde txikiarekin eta nekazaria ikus daitezke eskulturan. Lurra nola iraltzen zen azaltzen du.

### **523. Eskultura. Satorra harrapatu (LES-026/007)**

Eskultura: nekazaria aitzurrarekin, sator bat harrapatu nahian, lurra ongi uzteko. Artoa erein aurretik, lurra irauli eta ongi prestatu behar baita.

### **524. Eskultura. Lurra markatu (LES-026/009)**

Eskultura: gizon bat markarekin. Artoa eraitzeko, aurretik lurra markatzen zen arrastelu batekin (marka erraten zioten tresnari). Arrasteluak lau marka (marra) uzten zituen; behin alde batera egin ondoren, beste aldera gurutzatzen zituzten beste markak. Gurutze haietan, gero, arrastelo txiki batekin, zulotxoak egiten zituzten. Lan honetan emakumeek ere parte hartzen zuten.

### **525. Eskultura. Haziak bota (LES-026/011)**

Eskultura: emakume bat balde batekin arto haziak botatzen. Marka eta zulotxoak egin ondoren, arto haziak bota behar dira. Zulo bakoitzean lauzpabost botatzen dira. Gero, beste emakume bat, atzetik lau zulotatik batean ilar pikor batzuk botatzen ditu.

### **526. Eskultura. Arto-burua. Zuritu eta urritu (LES-026/013)**

Eskultura: arto-burua. Artoa ezezik, zurikina ere aprobetxatzen zen, lastaira egiteko (koltxoiaren azpian paratzen zena). Arto-zuritzea neguan egiten zuten; etxe batean biltzen ziren eta gaztain erreak jaten zituzten bitartean, "zaldun kortin" egiten zuten. Gero, zurikina urritu egin behar zen (hostoak banandu) lastairak egiteko; zigarroak egiteko paper gisa ere erabiltzen ziren.

### **527. Talo-burdina, artoa aletzeko (LES-026/015)**

Arto-burua, zurikina kendu ondoren, aletu behar zen; horretarako talo-burdina erabiltzen zuten. Ondoren errotara eramaten zuten. Han laka bat edo bi, edo gaitzurua (hiru laka) kentzen zizkieten.

### **528. Eskultura. Taloak egiteko mahaira (oramahaia) (LES-026/016)**

Eskultura: emakume bat taloak edo opilak prestatzen mahairan (oramahaian).

### **529. Eskultura. Ogia egin (LES-026/017)**

Eskultura: gizon bat ogia prestatzen. Lehen ogia beltzago ateratzen zen. Artoa eta irina errota desberdinetan jotzen ziren; errota batzuetan biak jotzen ahal ziren.

### **530. Eskultura. Zerri-hiltzea (LES-026/019)**

Eskultura: hiru gizon txerria heltzen, bat nabalarekin hiltzen eta emakume bat odola biltzen.

### **531. Eskultura. Bihurrak egiten (LES-026/021)**

Eskultura: gizon bat bihurrak egiten. Neguan aziendarentzat bazka izateko, udan belarra ebaki, idortu, zamak egin eta ganbaran sartzen ziren. Zamak bihurrekin lotzen ziren. Bihurrak gaztain-kimuekin egiten ziren: moztu eta bihurtzen ziren, gero ez xehatzeko. Bihurtzeko hanka azpian hartzen zen mutur bat eta beste muturretik besoekin bihurtzen hasten ziren.

### **532. Eskultura. Kisu-labea (LES-026/023)**

Eskultura: kisu-labea harriz beteta eta pizteko prest. Baziren gizon trebe batzuk labeak prestatzen zekitenak. Hamar egunez sutan izan behar da, gau eta egunez. Normalean auzolanean egiten zen kisu. Eskulturan ikusten denez, labeko ahotik arbastak sartu behar dira, sua egiteko. Arbastak sartzeko purzina (sarde gisakoa) erabiltzen zuten. Hasieran ke beltza ateratzen da, gero urdina eta azkenean garra ateratzen da. Orduan, ahoa ixten da. Labea hozten denean, goitik ateratzen dituzte harriak; batzuk zuri-zuriak dira eta beste batzuk beltzagoak. Zuriak enplastuak egiteko eta etxeak zuritzeko (eta desinfektatzeko) erabiltzen ziren; ongarrri gisa ere erabiltzen zen kisu.

### **533. Eskultura. Arbastak bildu. Emakumearen lana (LES-026/024)**

Eskultura: emakume bat bildutako arbastak buruan eramaten. Ilunabarrean su egiteko arbastak biltzen zituzten emakumeek eguerdi partean, gizona siestan zelarik.

### **534. Eskultura. Buruan ura eraman 1 (LES-026/025)**

Eskultura: emakume bat subilla buruan, errekatik ura ekartzen. Urkia erabiltzen zen subilla egiteko, urari gusturik ematen ez ziolako (kaikuak egiteko ere erabiltzen zen). Uztaiak neskatoek garbitzen zituzten. Baziren lurrezko pedarrak ere, baina Lesakan ez ziren erabiltzen

### **535. Eskultura. Buruan ura eraman 2 (LES-026/026)**

Eskultura: emakume bat subilla buruan, errekatik ura ekartzen. Burukia paratzen zuten buruan minik ez egiteko. Emakumeek zapi handia (txapleta) eramaten zuten buruan.

### **536. Eskultura. Apezari oparia (LES-026/027)**

Eskultura: buruan sare (saski) txiki batean bakailao bat daraman emakume bat. Buruan daraman saskia oihal-sarea da (oihalak belarretara eramateko saskia). Emakumea elizara doa, apezari bakailaoa ematera; izan ere, etxe batean defuntu baten urtemuga zenean, apezari opari bat eramaten zitzaion. Probuan ilaran joaten ziren oinez emakume guztiak elizaraino, emakumea aitzinean, bere oihal-sarearekin; bigarren klasekoek bakailaoa eramaten zuten; primerakoek, berriz, bildotsa. Sagar ederrenak ere gordetzen zituzten etxeetan, Erregeetan apezari eramateko.

### **537. Eskultura. Arropa garbitu (LES-026/029)**

Eskultura: emakume bat arropa garbitzen. Etxeetan ez zen urik eta emakumeak errekarra joaten ziren arropa garbitzera. Bokata-harrian marruskatzen zuten arropa. Gero sorotu egiten zuten, hau da, sorotetan zabaltzen zituzten arropa zuriak eguzkia hartu zezaten, horrela zuritzen baitziren. Ondoren, erreka ondoan ura eta azulete (anil-hautsa) paratzen zuten ontzi batean eta han sartzen zituzten arropa zuriak.

### **538. Eskultura. Kontrabandoa (LES-026/031)**

Eskultura: gizon bat bizkarrean zaku bat daramala eta arbola baten ondoan bi guardia zibil (karabinero edo eltzetzu). Diru ateratzeko modua zen kontrabandoa. Kontrabandista edo paketeroak, normalean gizon gazte eta indartsuak ziren; alto emanda, ihes erraz egiten zuten. Batzuetan, usainagatik ezagutzen zuten eltzetzuak izkaturik zeudela.

### **539. Eskultura. Ikatza egiten (LES-026/032)**

Eskultura: txondorra nola egiten den. Gizon bat txondorraren gainean dago, betarria ateratzen eta gelditzen den zulotik hostoak-eta botatzen sua egiteko; hau da, txondorra pizten ari da: betarria ematen ari da. Beste alde batean, txondorra egiteko prozesua azaltzen da; hasierako faseari kaiola erraten diote. Bada beste gizon bat egurra mozten, txondorra gizentzen joateko. Badira ere ikazgilearen erreminta guztiak: pikotsa, pala, arrastelua, galbahea, segua etab. Saltzeko balio ez duen ikatzari odiria erraten zitzaion eta sutontzietarako erabiltzen zen.

#### **540. Eskultura. Itzaina idiekin enbor bat eramaten (LES-027/001)**

Eskultura. Itzaina idiekin enbor bat eramaten. Orga motza eta orga txikia daramatzate idiek, enborra garraiatzeko. Enborra nola kargatzen zuten azaltzen du.

#### **541. Eskultura. Taulak zerratzen (LES-027/003)**

Eskultura: bi gizon taulak zerratzen etxe bat egiteko. Arbolak mozteko ilargiari eta itsasoari begiratzen zioten lehen. Egurra markatzeko, iratzeak erre eta urarekin nahasten zituzten; gero, ardien ilearekin egindako haria pintura horretan busti eta enborrak markatzen zituzten. Bi lagunen artean zerratzen zituzten enborrak.

#### **542. Lurreko suan erabiltzen ziren tresnak 1 (LES-027/004)**

Sukaldeetan lurreko sua izaten zen. Bi su-burni izaten ziren egurra paratzeko. Talamantenua, pazia eta laratza (bere katearekin) izaten ziren. Taloak egiteko, hautsa baztertzen zen lehenengo eta gero talo-burdinarekin paratzen ziren. Taloa zirali egiten zen bi aldeetatik eta, gero, talamantenuan zutik uzten zen erretzen. Xingarra erretzeko gerrenak bi mutur ditu. Krispia paratzeko, brasak (txingarrak) bazterrera ateratzen zituzten; hor paratzen zuten krispia eta, gainean, lurrezko kazola. Bazen txokolatea egiteko ontzi berezi bat; txokolatea nahastekoak moretillo izena zuen (horregatik abesten omen zen: "chocolate, moretillo, corre, corre, que te pillo"). Bazen ogi xerrak txigortzeko tresna berezia (buelta emateko palanka eta guzti).

#### **543. Lurreko suan erabiltzen ziren tresnak 2 (LES-027/006)**

Haragia erretzeko burruntzia erabiltzen zen. Eskuz buelta eman behar zitzaion noizbehinka.

#### **544. Lurreko suan erabiltzen ziren tresnak 3 (LES-027/007)**

Burruntzi automatiko bat asmatu zen beranduago, korda eman edo giltza eman eta bera bakarrik mugitzen zena.

#### **545. Izokinak harrapatzeko xixta 2 (LES-027/009)**

Izokinak harrapatzeko xixta erakusten du.

#### **546. Harginek izokin guttiago jan nahi zuten 2 (LES-027/011)**

Amonak kontatu zion XVIII. mendean Lesakako elizan lan egitera etorri ziren harginekin gertatutakoa. Baldintza bat jarri zuten: izokina astean bi aldiz besterik ez zutela janen. Baina, gehiagotan ematen zieten eta protesta egin zuten, lanik eginen ez zutela erran zuten. Katiluen ipurdian "nola jan, hala lan" idatzi zuten.

#### **547. Arteak (LES-027/013)**

Arteak nolakoak ziren erakusten du. Gehienetan azeriak harrapatzeko erabiltzen ziren. Bazen azerien zuloan paratzen zen arte horzdun bat. Bazuen lagun tranpero (tranpa-jartzaile) bat.

#### **548. Ardien ilea mozteko aizturak (LES-027/015)**

Ardien ilea mozteko aiztur zaharrak. Bere arbasoak Billabonatik etorri ziren; 300 urtetan baino gehiago aritu dira burdin lanetan bere familian.

#### **549. Joareak 4 (LES-027/017)**

Joare klaseak erakusten ditu: pulunpa, kalaxka, txintxirria (zerrien belarrietan paratzen zutena mendira eramaten zituztenean), motela (ehizako txakurrenak) eta kaskabiloa. Arotzek egiten zituzten joareak. Joareen mihia burnizkoa edo azienden adarrekin egina izaten ohi zen. Ediarekin (behi larruarekin egiten den soka) lotzen ziren buztarrian.

#### **550. Plantxak (LES-027/019)**

Plantxa mota anitz zeuden. Punta borobila zutenak atorren eskumuturrak lisatzeko erabiltzen zire, esate baterako ("hacer puñetas" eskumuturrak lisatzeari erraten omen zitzaion). Baziren ikatzazko plantxak ere, barruan ikatz beroa sartzen zitzairen (baporezkoak erraten zieten); sastrek ikatzazko plantxa handiak erabiltzen ohi zituzten.

#### **551. Lurreko suan erabiltzen ziren tresnak 4 (LES-027/020)**

Bazen neskame edo neskato izeneko tresna bat, laratzan zintzilikatze eta bertan zartagina paratzeko

#### **552. Argia egiteko tresnak (LES-027/021)**

Kriseiluan koipe beroa ibiltzen zen eta horrek arrisku handia zuen erortzen bazen. Kandila, berriz, seguruagoa zen; koipea eta metxa erabiltzen zuen. Geroago, karburuzko kandilak, petroliozko kindeak eta abar atera ziren.

#### **553. Arotzaren lana erakusten du 1 (LES-027/023)**

Sua prestatzen du; ura botatzen dio sua kontzentratzeko. Harri ikatza erabiltzen du sua egiteko. Burni barra sutik atera eta txingudian (ingudean) mailuaz jotzen du. Arotzek lana agudo egin behar dute, pieza hoztu aurretik. Txinpartekin kontuz ibili behar ziren arotzak; esate baterako, galdan burniak itsasten ari zirenean, kriston txinpartak ateratzen ziren. Nahiz eta eskuak txinpartekin erre, ezin zuten lana utzi. Arotzak "flakoak eta jeinu bizi bizikoak" ohi ziren.

#### **554. Arotzaren lana erakusten du 2 (LES-027/025)**

Pieza gori-goria ateratzen duenean txinparta anitz ateratzen dira.

#### **555. Eskultura. David eta Goliath (LES-028/001)**

David eta Goliathen istorioa erakusten duen eskultura. Eskolan kontatu zioten istorioa

#### **556. Eskultura. Androkles eta lehoia (LES-028/002)**

Androkles eta lehoiaren istorioaren eskultura.

#### **557. Eskultura. Azeri eta oilarraren istorioa (LES-028/003)**

Azeri gaztea arbolaren gainean dagoen oilar zaharra jan nahi du. Beti gezurretan dabilzanak, besteen gezurrak sinesten ditu.

### **558. Eskultura. Rufino eta txoriaren istorioa (LES-028/004)**

Rufino eta txoriaren istorioa kontatzen du. Neguan ogi apur batzuk eman zizkion txoriari. Hurrengo batean txoriak erran zion: "Egunon adiskidea" eta Rufinok erantzun zion: "Ai adiskidea, ahantzi ahal dituzu nirekin pasatutako hotzak eta goseak?"; txoriak, berriz, "ez adiskidea, ez dut ahantzia nire orduko trantzia, zu ez bazinen izan, izango nintzen ahantzia"

### **559. Eskultura. Azeri eta belearen alegia (LES-028/005)**

Samaniegoren azeri eta belearen alegia azaltzen du.

### **560. Eskultura. Joxe Handi artzainari gertatutakoa (LES-028/006)**

Joxe "Handi" artzainari gertatutakoa azaltzen du. Bildots txiki bati ama hil zitzaion. Hildako beste bildots bati larrua kendu eta jarri zion, bestearen amak usaina hartzeko. Baina ez zuen funtzionatu. Artzainak berak behatza esnetan buzti eta bildotsari ematen hasi zen. Izena ere eman zion: Muturbeltx. Iluntzean ez zuen aurkitu eta hurrengo egunean belea ikusi zuen.

### **561. Eskultura. Akelarrea (LES-028/008)**

Akelarre baten eskultura: akerra, astoa (edabea prestatzen), sorginak etab.

### **562. Eskultura. Ijito familia (LES-028/010)**

Eskultura: ijito familia bati karroa tiratzen zuen mandoa hil zaio. Jaungoikoak ijituri eman omen zien egunean sos bat ebasteko baimena, ijito batek Jesus haurra salbatu zuelako.

### **563. Beleek ez dute udan urik edaten (LES-028/011)**

Udan beleek 40 egunez ez dute urik edaten, Jaungoikoak zigortu zituelako. Jesus lurreko putzu batean ura edaten ari omen zela, bele batek kaka egin zion gainean.

### **564. Eskultura. Velázquezzen Vulcanoren sutegia (LES-028/012)**

Velázquezzen "Vulcanoren sutegia" margolanean oinarritutako eskultura.

### **565. Eskultura. Lesakako zakuzarra (LES-028/014)**

Lesakako zakuzar mairuen jantzia: hiru zaku belarrez beteta, lastozko kapela, zapi zuri bat hiru zulokin aurpegia ezaltzen, esku batean makil bat (zuzen joateko) eta bestean pixontzi (maskuri) bat (haurrei jotzeko). Herriari buelta ematen diote eta, akaberan, plazan,azienda lotzen zen lekuan, hurrek zakuak tiratu eta urratzen dituzte (ezbeharrrik ez izateko, zakuzarrek minik ez hartzeko, aurretik zakuen josturak mozten dituzte).

### **566. Eskultura. Makil-dantzaria. Zubigaineko dantza (LES-028/015)**

Eskultura: Zubigaineko dantzaren makil-dantzari bat eta zubiko burdineria zati bat (bere birraitonak egin baitzuen). Zubigaineko dantzaren istorioa kontatzen du. Lesakan bi auzo omen zeuden (Legar auzoa eta Piku zelaia), baina arrunt gaizki moldatzen ziren. Gaztelako errege baten soldaduek Lesaka ebatsi eta erre zuten. Ondoren, bi auzokoek bilera egin zuten eta elkartzea

erabaki zuten, herria defendatzeko indartsuagoak izanen baitziren. Lesakako bandera egin zuten eta juramentua. Ospatzeko, besta bat egin zuten eta bi petriletan dantza bat egin zuten banderarekin (auzo bakoitza alde batean). San Martin egunean egin zuten (Lesakako eliza San Martin da), baina gero San Fermin egunera pasatu zuten. Lehen alkatearen alabak lehentasuna zuen Aurrekuan. Ez da ezpatadantza, makildantza baizik.

### **567. Eskultura. Emakumea eta ispilua (LES-028/017)**

Eskultura: emakume bat etzanda, biluzik, ispiluaren aurrean. Ispiluari galdetzen zion bera baino emakume ederragorik bazen.

### **568. Eskultura. Emakume alarguna eta eskalea (LES-028/019)**

Eskultura: emakume bat bere etxeko atarian eskale bati dirua ematen. Emakume alargun gazte bat gizon aberats batekin ezkondu zen bigarrenez. Eskazale batekin topo egiten du eta zerutik heldua dela erraten dio; emakumeak sisten du gezurra eta bere lehenengo senarra ezagutzen duen galdetzen dio. Eskaleak baietz erran eta diru falta duela azaltzen dio. Emakumeak bere bigarren senarraren bi ontzako urre ematen dizkio eskaleari

### **569. Istorioa. Ontsalea eta Pillotia baserriak 2 (LES-029/001)**

Ontsalea eta Pillotia baserrikoek arazoak zituzten bien arteko muga non zegoen zehazteko. Iruñeko abokatu batengana joan Ontsalekoa eta dena kontatu zion. Ondoren, Pillotikoa ere abokatu berarengana joan zen eta honek beste abokatu batengana joateko erran zion; eskutitz bat idatzi zion eta beste abokatuari emateko erran zion. Bidean, Pillotikoa apezarekin topo egin zuen eta honek susmo txarra hartu zuen eskutitza itxita zegoela ikusi zuenean. Irakurri zuten eskutitza eta zera jartzen zuen: "Mira, ahí te mando un pollo para que le desplumes, al otro lo tengo yo; ya comeremos juntos". Pillotakoak Ontsalekoari karta erakutsi zion eta ordutik aurrera ez zuten arazorik izan.

### **570. Istorioa. Azeria eta zikoina 2 (LES-029/003)**

Azeriak zikoina bazkaltzera gonbidatu zuen oso diplomatikoki eta zikoinak baietz erantzun zion. Salda eman zion plater batean eta zikoinak ezin edan aritu zen. Beste egun batean zikoinak gonbidatu zuen eta salda atera zion ere, baina botiletan. Zikoinak erraz edan zezakeen mokoa sartuta, baina azeriak ezin zuen.

### **571. Eskultura. Toberak jo (LES-029/005)**

Eskultura: bi lagun toberak jotzen (beste bi palanka heltzen) eta batek bertsoak abesten. Pregoi egunean, toberak jotzen zizkioten andregaiari. Soinu fina (kanpaien modukoa) duen altzairuzko palanka bat da. Ondoren, emakumeak afaria eskaintzen zien jotzaileri. Andregaiaren atean egoten zen zintaz eta lorez apainduta tobera; etxekoek ez bazuten nahi toberak jotzea, atetik kentzen zuten eta jotzaileek bazekiten ez zirela joan behar (eta afaririk ez zela izanen). Bi lagunek tobera jotzen zuten, batek bertsoak botatzen zituen (hala ere, denek kantatzen zuten) eta beste bik, zintekin, palanka heltzen zuten. Ondoren, emakumeak atea zabaltzen die eta afaltzera sartzen dira. Palanka eta jotzeko tresnak (mailuen gisakoak) burnizkoak dira. Beti koadrila bera izaten zen toberak jotzen zuena.

### **572. Istorioa. Epetxa, Erbia eta Batixtaren hortzak 2 (LES-029/006)**

Antionioren ostatuan, Epetxa (izengoitia) zegoela ikusita, Erbiak (izengoitia) zera erran zion: “koño, ez dut sekula erbirik ostatuan ikusi” eta bertzeak honako hau erantzun zion: “ezta nik ere epetxik burusoilik”. Dena entzunda, Batixta irriz hasi zen eta hortzak erori zitzaizkion. Denak bila hasi ziren eta Antoniok edalontziak garbitzen ari zen askan topatu zituzten.

### **573. Eskultura. Olentzero 1 (LES-029/008)**

Eskultura: Olentzero enbor batean eserita, sua ondoan, pipa ahoan, eta botila ardo eta arrautzez betetako saskia ondoan. Amatxik kontatzen zien Olentzero ikatz egiten aritzen zen gizon bat zela. Herrira etortzen zenean mozkortzen omen zen, endelua (endelgua) galdu arte. Horregatik amonak horrela kantatzen zuen: “Olentzero buru handia, endelu omen du ahantzia bart arratsian edan omen du hamar erreguko zahagia, ai urde tripahandia, horra horra, gure Olentzero, pipa hortzian dula, eserita dago, kapazu bete dauka arrautzatxoekin, bihar merendatzeko botila ardoakin”. Hala ere, mendira itzultzen zenean ez zuen ahazten janariz betetako kapazua eramatea. Olentzero Lesakakoa omen zen.

### **574. Eskultura. Olentzero 2 (LES-029/010)**

Bere amatxiren denboran, Olentzero bat egin eta eskean ibiltzen ziren. Akaso ondoren berendua eginen zuten. Bera gazte zelarik, eskean ateratzen ziren kantari: “Olentzero buru handia” eta “Olentzero, begi gorri, nondik atera du arrain hori, zorioneko errekatan, arratseko hamaiketan...”

### **575. Eskultura. Zurgina (LES-029/011)**

Eskultura: zurgin bat zerrarekin egurra mozten alkiaren gainean, parlantarekin estututa.

### **576. Eskultura. Umeari bularra ematen (LES-029/012)**

Emakume bat, oinutsik, zura baten gainean bularra ematen umeari.

### **577. Eskultura. Arotza (LES-029/014)**

Eskultura: Arotza txingudiarekin eta mailuarekin lanean.

### **578. Eskultura. Don Quijote eta Sancho Panza (LES-029/015)**

Eskultura: Don Quijote zaldiaren gainean, Sancho Panza astoaren gainean eta haize-errota.

### **579. Eskultura. Adan eta Eva (LES-029/017)**

Adan eta Evaren istorioa (apezek kontatu zieten bezala) erakusten duen eskultura.

### **580. Eskultura. Emakume esklaboa (LES-029/019)**

Eskultura abstraktua: oin bat, esku bat, bihotz handi bat eta aurpegi mehe bat. Esklaba bat da, bihotz onekoa eta mehea.

### **581. Lesakako fabrika (LES-030/001)**

Bertako ura aproposa zelako egin zuten fabrika Lesakan. 1960An, bederatzi lagunekin hasi zen martxan. Gero, langile gehiago sartu ziren: besteak beste, lurrak saldu zizkieten guztiek aukera bazuten. Fabrika handituz joan zen eta, hondarrean, 2000 langile zeuden hiru fabriken artean: Lesakakoa, Legasakoa eta Berakoa. Komentua erosi zuten fabrika handitzeko.

### **582. Beti Gazte (LES-030/002)**

Beti Gazte elkartearen 700 kide inguru daude. Garrantzitsuena futbola izan da beti. Lesakako familia guztietan kideren bat dago. 1931N sortu zen, "Acción Católica" taldeak egin zuen futbol-zelaiarekin.

### **583. Beti Gazte eta emakumeak (LES-030/003)**

Lehen ez zen emakumerik Beti Gazte elkartearen. Emakumeak ez ziren elkartetara joaten.

### **584. Laxoa, pilota eta paxaka (LES-030/004)**

Lehen baziren bi frontoi laxoan aritzeko. Udalak araudi bat atera zuen 1850ean. Berak ez du ezagutu laxoa Bortzirietan. Udaletxeko arkupetan, pilotan eta paxakan (Lesakan beste izen bat zuen) aritzen ziren. Egun oraindik ikus daiteke pilare batean sarea paratzeko burdina. Pilota handi batekin jokatzen zela gogoratzen du.

### **585. Musika-banda 1 (LES-030/005)**

1857an sortu zen Lesakako musika-banda. Baziren bi banda (elizakoa eta herrikoa) eta Rafael Salzedo organista eta zuzendariak biak juntatu zituen. Urte batzuetan banda desagertu zen, jenderik ez zegoelako. Lehen, bandak igandero dantzatzeko musika ("bailables") jotzen zuen, baita Sanferminetan ere. Musikarako afizio handia izan da beti herrian. Konpositoreak izan dira, besteak beste, Kandido Albistur, Santiago Irigoien eta Pepito Iantzi. Udalak ateratako arautegi

### **586. Musika-banda 2 (LES-030/007)**

Musika-banda sortu zenean, 1857an, Udalak ateratako arautegiko pasarte bitxi batzuk irakurtzen ditu.

### **587. Burdinolak. Lanbideak eta zerbitzuak (LES-030/008)**

Lesakan 17 burdinola izan dira. Hauetatik lau herriko etxeak ziren eta subastan ateratzen ziren lau urterako. Epea amaitzen zenean, "mejoras" eta "peoras" izaten ziren: hartu zenuenean baino hobeto bazuten burdinola, deskontua izaten zenuen eta okerrago baldin bazen, berriz, multa bat ordaindu behar zen. 1811N baziren, besteak beste, 145 ikaztegi, 28 meatzari, 33 errementari, 60 zaldi-jaun, 14 idi-bikote, 15 zurgin eta beste hainbeste dendari, 10 hargin, 7 errementari, 6 jostun eta hainbat zapateri. Medikua, botikaria eta hamar apez ere baziren garai hartan Lesakan.

### **588. Ikatza (LES-030/010)**

Ikatza oso garrantzitsua zen Lesakan. Bada Ikatzulo izeneko parajea. Egurra subastan ateratzen zuen Udalak. Ikatza egiteko, egurra zazpi modura mozten zen. Mandoekin ekartzen zuten ikatza. Albinteak ikatza saltzen zuen. Beste ikazgileek, Udalak ez bazuen behar, Berako galdategian saltzen zuten ikatza.

### **589. Urtezahar-eguna. “Dios te salve” (LES-030/012)**

Urtzahar-egunean, “Dios te salve” egiten zen. Baserriz baserri eskean eta kantari joaten ziren; arratseko hamabietan atera eta goizeko zazpietan edo zortzietan amaitzen zuten. Berak amari entzun zion abestia aurrenekoz. “Dios te salve, ongi etorri...” kantatzen du.

### **590. Errege bezpera (LES-030/014)**

Haurra zela kabalkada egiten zen Lesakan; karro batean paketeak eramaten zituzten eta eskala batetik igotzen ziren pajeak (morroiak) etxeetan opariak uzteko.

### **591. Gabon-eguna. Olentzero 1 (LES-030/016)**

Lehen Olentzerok ez zituen opariak ekartzen. Gabon-egunean etxez etxe diru eskean ibiltzen ziren.

### **592. Gabon-eguna. Olentzero 2 (LES-030/018)**

Gabon-egunean, bai baserrietan, bai auzoetan eta bai herrian etxez etxe eskatzen ibiltzen ziren. 1945ean Jose Emilio Esparzak (Diputazioko langilea) lehenengo Olentzero lehiaketa antolatu zuen; bere aparteko ordainsariko dirua saritzat jarrita. 1951tik aurrera, berriz, Udalak jartzen du dirua. Olentzero Lesakarra dela erraten da. Mendez mende kantatu da Lesakan “Olentzero buru handia, entendimentuz jantzia...”

### **593. Gabon-eguna. Olentzero 3 (LES-030/020)**

1932 arte, lau lagun ateratzen ziren Olentzero talde bakoitzean, baina orduko alkateak, Martin Elizalde, sei izan behar zutela erran zuen; horrela, talde gutxiago aterako ziren eta diru gutxiago eman beharko zuen Udalak. Olentzero panpina izan ohi da eta oholtza baten gainean atera da ia beti. Lehen, musika-bandak Olentzero bat egiten zuen eta, urte batean, panpina prestatzeko betarik izan ez zuten, bat mozarrotu zen.

### **594. Gabon-eguna. Olentzero 4 (LES-030/022)**

Lesaka Olentzero pertsonaiaren sorlekua dela erraten duten zenbait aipamen irakurtzen ditu. Lehen arratsaldeko hiruretan ateratzen ziren Olentzerorekin eskean; azkar ibiltzen ziren, ahalik eta diru gehien ateratzeko. Lesakakoak omen diren hiru kantak abesten ditu: “Olentzero begi gorri non harrapatu duk arrai hori...”, “o o o bihar Olentzero, i i i etzi eguberri...” eta “hauxe da gaba zoragarria, Jesus jaio da Belenen...”. Beste bi kanta abesten ditu: “Olentzero buru handia entendimentuz jantzia...”, “Olentzero joan zaigu mendira lanera...”. Kanten bertsiio ezberdinei buruz mintzatzen da.

### **595. Gabon-eguna. Olentzero 5 (LES-030/023)**

Olentzero ikazkina zen, emaztea zuen eta ez zuen dirurik opariak ekartzeko. Tripaundi zen eta ardoa edaten zuen (baina ez zen mozkorra). Inguruko herritan beranduago hasi ziren Olentzero ateratzen.

### **596. Ortzegun gizona (LES-030/025)**

Ortzegun gizenan, baserritarraz jantzen ziren (olentzeron bezala) eta taldeka joaten ziren eskean etxez etxe. Batek saskia eramaten zuen eta "arrautze, arrautze, txingar arrautze, bat ez bada, bertze" oihukatzen zuten. Arrautzak, laranja eta xingarra ematen zizkieten eta, gero, berendua egiten zuten. Lehen neskak ez ziren ateratzen.

### **597. Inauteak 1 (LES-030/027)**

Lehen, inauteetan, helduak besterik ez ziren ateratzen mozorroturik. Talde bakoitzak karroza bat egiten zuen.

### **598. Inauteak 2 (LES-030/029)**

Argazki batean bere aitatxi ateratzen da, zaldi, gurdi eta koadrilarekin inauteetan. Karroza makilekin eta iratzekin egina zen

### **599. Inauteak 3 (LES-030/031)**

Inauterietako argazki horretan, bere aitatxi eta bere koadrilakoak dotore jantzita eta aurpegia ez tali gabe agertzen dira: adibidez, lagun bat traje zuri eta kapela zuriarekin agertzen da. Karroa iratzekin apaintzen zuten. Haurrak ez ziren ateratzen inauteetan. Jendea arropa zaharrekin mozorrotzen ohi zen. Lesakako pertsonaia tipikoa Zakuzar da: hiru zaku iratzez beteta (orain belarra sartzen dute), hanketan bana eta gorputzan hirugarrena, zapi bat aurpegian hiru zulorekin eta kapela

### **600. Inauteak 4 (LES-031/001)**

Zakuzarrek herriari buelta ematen diote dantzatzeko (ahal duten bezala, zakuekin zaila baita) eta, noizbehinka, gelditzen dira eta jota dantzatzeko dute. Gero, bat lurrera botatzen da eta besteak bere gainera. Mairu-trajearen anekdota bat kontatzen du: duela berrogehi bat urte, zintaz betetako mozorrotzantziarekin agertu zen pertsona bat, eta ez zekiten nor zen; gero jakin zuten, Donostian bizi zen lagun bat zela. Ordutik hona, mairu-trajea zeharo zabaldu da Lesakan eta tradiziozkoa bihurtu da. Haiek ez ziren eskean ibiltzen, Goitarrak, Fraindarrak eta Nabaztarrak besterik ez ziren ibiltzen baserriz baserri. Goitarren eta Fraindarren jantzia nolakoa zen azaltzen du.

### **601. Inauteak 5 (LES-031/003)**

Fraindarrak ez dira herrira etortzen eskatzera, baserrietan besterik ez dira egoten. Goitarrak baserrietan eta herrian ere ibiltzen dira eskean. Ez dute deus kantatzen, akordeoiarekin besterik ez dira joaten. Fraindarrek, leku berrira iristen direnean, lurrera bota behar dute beren burua, eta ez badute egiten, lagun batek eskoba zahar batekin jotzen die. Goitarrek jota-eta dantzatzeko dute.

### **602. Inauteak 6 (LES-031/004)**

Inauteetan, lehen larunbatan jantzen ziren lagunak afaltzeko. Ez ziren denbora guztian mozorrotzen.

### **603. Hausterre-eguna, garizuma eta Aste Santua (LES-031/006)**

Hausterre-egunean elizara joaten ziren hautsa hartzera. Garizuman ezin zen ortziraletan haragia jan eta zenbait egunetan barau egin behar zen. Lehen,

komunioa hartzeko, ezin zen deus jan aitzineko egunetik. Garizuman ez zen musikarik igandetan eta Aste Santuan ezin zen ez pilotan ez musean ari. Bestaberri egunean debekatuta zegoen arboletara igotzea.

#### **604. Erramu-igandea. Sinesmenak 1 (LES-031/008)**

Erramu-igandean, jendeak erramuak eramaten zituzten mezara bedeinkatzeko. Bere amak beheko ateko leihoan paratzen zuen erramua. Hosto batzuk sutara botatzen zituzten, kazkabarra ez egiteko eta kalitxak sendatzeko.

#### **605. Erramu-igandea. Sinesmenak 2 (LES-031/010)**

Bedeinkatutako erramuko hiruzpalau hosto errautsen azpian paratzen zituzten, kalitxak sendatzeko.

#### **606. Ortzegun Santua (LES-031/011)**

Ortzegun Santuan, elizan, ospitaleko kaperan eta komentuan kustodia paratzen zen. Jendea hiruetara joaten zen otoitz egitera. Gaueko adorazioa (“adoración nocturna”) ere egiten zen eta goizeko lauretan egiten zen meza.

#### **607. Ortziral Santua (LES-031/012)**

Ortziral Santuan, goizeko sei t'erdietan emakumeak eta zazpitan gizonak ateratzen ziren eta arrosarioa kantatzen ermitara abiatzen ziren. Han aitagurea errezatzen zuten eta gurutzeari musu ematen zioten. Arratsaldean, berriz, funtzioa eta prozesioa egiten ziren.

#### **608. Larunbat Santua (LES-031/013)**

Larunbat Santuan meza berezia izaten zen arratsean. Gloria ailegatzerakoan, ezkilak joka hasten ziren eta jendea tiroka, kanpoan; eliza barnean, berriz, karrakak jotzen zituzten eta monagiloek (meza-mutilek) kanpaitxoak. Deabrua hiltzeko egiten omen zen omen zen zarata.

#### **609. Aldareak tapatzen ziren (LES-031/014)**

Aste Santuan, oihal moreekin (orain beltzekin) tapatzen zituzten elizako aldareak.

#### **610. Jesusen Bihotzaren eguna. Erramutxa (LES-031/015)**

Jesusen Bihotzaren egunean, arratsean udaleko ordezkariak elizara joaten ziren ikurrin eta alabardarekin. Alabarda eta ikurrina elizan gelditzen ziren urteberrira arte. Meza entzun ondoren, udaletxera itzultzen ziren eta balkoitik karameluak, dirua eta pilotak botatzen zituzten: erramutxa.

#### **611. Bestaberri 1 (LES-031/016)**

Bestaberrin, Udaleko ordezkariak mezara joaten dira eta ondoren prozesioa egiten da palioarekin. “Santisimoari” bandera dantzatzen zaio. Ibilbidean zehar ehun zuria paratzen dute eta bi aldeetan iratzea, loreak eta abar. Lehen, etxe guztietan ohialak esekitzen zituzten balkoietatik. Plazan aldare bat paratzen da.

### **612. Bestaberri 2 (LES-031/018)**

Plazako aldarean apezak bedeinkazioa ematen du. Bitartean, lehen komunioa egin duten neskek loreak botatzen dituzte. Elizara ailegatzerakoan, berdin egiten dute.

### **613. Kalejirak (LES-031/020)**

Asentsio egunetik Sanferminak arte, txistulariek, igande goizetan, kalejira egiten zuten.

### **614. Tantiromairu (LES-031/022)**

Tantiromairu pieza bat da.

### **615. Sanferminak 1 (LES-031/024)**

Lesakan elizako eta herriko patrioiak desberdinak dira: elizakoa Tourseko San Martin da eta herrikoa, berriz, San Fermin. 1591 urtera arte, San Fermin urriaren 10ean egiten zen; urte horretan, uztailaren lehenbiziko igandera aldatu zen. 1657An, berriz, uztailaren 7ra aldatu zuten.

### **616. Sanferminak 2 (LES-031/026)**

San Fermin bezperan, altxaferoa botatzen dute udaletxetik eta haur txikiak danbor eta akordeoiekin ateratzen dira. Arratsaldeko zortzietan danborrada izaten da; banda ere ateratzen da eta Mozkorrenborda pieza (Pepito lantzik egina) jotzen du. San Fermin egunean, ezpatadantzariak zortzi t'erdietan dute meza eta, gero, Kasinora gosaltzera joaten dira. 11'30etan, udaletxeko ordezkariak meza nagusira joaten dira (bandera eta alabarda eramaten dituzte). Ondoren, San Ferminarekin prozesioan ateratzen dira. Bandera hirutan dantzatzen da. Zeharkakoa non dantzatzen den azaltzen du. Zubigainekoari dagokionez, Legarrea eta Pipozelaia auzoen arteko bakea (XV. mendekoa) ospatzeko dantzatzen dela erraten da; baina, bere ustez, mende hoietako mairu eta kristauen bestetatik heldu da dantza (baita inauteriak ere), Julio Caro Barojak erraten zuen bezala.

### **617. Mairu eta kristauen besta, Zubigainekoaren jatorri (LES-031/028)**

Mairu eta kristauen besta San Juan denboran izaten zen (bost edo sei egun). Legarrea auzoa mairuena zen eta Pikozeleia, berriz, kristauena. Ateratzen zuten, erraldoien gisara, errege bat Mairueneatik eta beste bat Pikoagatik. Salvatore ermitara mezara joaten ziren eta, gero, Matxainen (Amatxiriainen) gosaltzen zuten. Berriz elizara eta bueltan bazkaltzera joaten ziren. Zubia tapatzen zuten eta ura karrikan barna joaten zen; emakumeek ere leihotik ura botatzen zuten. 1717An bi lagun itota hil zirela-eta, ezpatadantzarien ezpatak kendu eta makilak jarri zituzten.

### **618. Sanferminak 3 (LES-031/030)**

Esposatuen eguna izan da beti bestetan (peñen eguna, berriz, ez). Txakainera joaten zen jende guztia berenduarekin (fritada eta gazta). Gero musika izaten zen.

### **619. Santu guztien eguna. “Berentxi-berentxi” (LES-031/032)**

Santu guztien egunean, “berentxi-berentxi” egiten zen lehen. Haurrak elizako atera joaten ziren eta poltsa txiki batekin “berentxi-berentxi” eskatzen zuten. Hleduek sosa botatzen zieten.

### **620. Subastak (LES-031/034)**

Aitatxik eta amatxik kontatzen ziotenez, subastetan kandela bat pizten zen eta argizaria akabatu arte irauten zuten.

### **621. Nasak (LES-031/035)**

Lesakak lau nasa zituen. Nasa izokinak harrapatzeko tranpa mota bat zen: egurrez egindako inbutu bat zen, izokina sartzen zen baina ezin zen atera. Nasak subastan ateratzen ziren lau urterako, baina subastan lortzen zuenak, harrapatutako lau izokinetatik, hiru Udalari eman behar zizkion.

### **622. Zalain-Zoko eta Alkaiaga auzoak (LES-031/037)**

Lesakan hamar karrika eta hamairu auzo daude. Endarlatsan, gaur egun, ez da inor bizi. Zalain-Zoko eta Alkaiagako biztanleek Beran egiten dute bizitza, oso hurbil dutelako.

### **623. Dorreak 1 (LES-031/038)**

Lesakako dorreei buruz mintzatzen da. Minyurinea zaharrena da, XIV. mendekoa. Zabaleta edo Kaxerna dorrea, XV. mendekoa da eta Zarandia Gotzainarena, berriz, XVI. mendekoa. Zabaletak, 1928ra arte, bigarren dorre bat zuen. Albistur karrikan dagoen Kaskenea etxea ere dorrea zen lehen.

### **624. Dorreak 2 (LES-031/040)**

Gerratan defendatzeko dorreak ziren. Zabaleta dorrean, independentziako gerran (1813an) Wellington dukea eta bere soldaduak izan ziren; hori zela eta, ordutik aurrera Kaxerna erraten zioten dorreari.

### **625. Torturatzeko bi leku eta urka bat (LES-031/041)**

Torturatzeko bi leku zeuden Lesakan; pililike edo pildrike erraten zieten. 1423ko ordenantza batzuetan zera agertzen da: “el que levante falso testimonio o blasfeme contra Dios y la Virgen, será castigado al pililic, enclavándolo de la lengua y multa de cuatro florines”. Urka bat ere bazen herrian.

### **626. Inkisizioa (LES-031/042)**

1567 urtera arte, Lesaka Baionako gotzaingoarena zen; ordutik aurrera, berriz, Iruñekoarena. Inkisizioko ordezkari bat izan zen Sanpaulenean (Txanpalenean). Garai hartan hiru familia inportante ziren Lesakan: Zabaleta, Maritxalar eta Endara. Maria Endarakoa Logroñon preso izan zen sorginkeriagatik (haur bat izan zuenean libratu zuten).

### **627. Sorginen kontra (LES-031/044)**

Lesakako etxe batzuek begizko eta sorginen kontrako aurpegi bat dute. Plazan bi aurpegi dituen etxe bat badago.

### **628. Agoteak (LES-031/045)**

Barrenetxe etxeari &ldquo;la casa de los cristianos&rdquo; deitzen zioten; bertakoak agoteak ziren. Ordenantza batek herrian barrena ibiltzea debekatzen zien agotei (lan egitera joaten ez baziren) eta ondasun gutxi batzuk izatea uzten zien: asto bakar bat eta ahate batzuk besterik ezin zituzten izan. Baratze txiki bat izan zezaketen, baina ezin zituzten ekoizkinak saldu.

### **629. Gabon-kanta. "Arkume ta gaztakin goazen Belenera" (LES-031/047)**

Gabon-kanta bat abesten du: "Arkume ta gaztakin goazen Belenera, belauniko jarri Jesusen aurrera, hatozte bada artzaiak..."

### **630. Amaiaren aurkezpena eta Lesakako egoera (LES-034/001)**

Amaia Abuin Arrasate, lesakarra; 55 urte ditu. Ama Hondarribikoa zen eta Aita Donostiakoa. Aitak ez zekien euskaraz, baina amak bai, eta beti egiten zien euskaraz etxean. Lesakan ez zegoen ikastolarik eta erdaraz ikasten zuten; kalean ere erdaraz egiten zuten. Lesakako "Jaen" auzoan bizi ziren, "mantxurrianotzat" zituzten, baina beraiek integratzeko gogoaz zuten. Gainera, euskara galtzen ari zela ikusi zutenez, ikastea erabaki zuten.

### **631. Euskararen aldeko mugimendua, helduen euskalduntze-alfabetatzea (LES-034/002)**

Euskara galtzen ari zelako eta hori berreskuratzeko mugimenduak bultzatuta hartu zuen euskara ikasteko erabakia. AEKn eman zuen izena.

### **632. Euskaltegiko eskolak (LES-034/003)**

Euskaltegiko lehenbiziko klaseak, astelehenetik ortziratera izaten ziren, 2 ordu egunero. Ortziraletan mintzapraktika egiten zuten, poteoaren bueltan. Klase dinamikoak ziren eta gustura joaten ziren. Beran egin zituzten eskolak, kultur etxean, eta hutsetik hasi ziren. Gelako ikaskideak hagitz ezberdinak ziren beren artean.

### **633. Euskaltegiko kideak eta irteerak (LES-034/004)**

Urte aunitz eman zituen euskaltegian. Kuadrilla egin zuen euskaltegikoekin eta irteerak egiten zituzten asteburuan: Nafarroa Oinez, Kilometroak, kontzertuak. Irteerei esker aunitz ikasi zuten.

### **634. Irakasleekin harremana (LES-034/005)**

Irakasleekin harreman ona zuten.

### **635. Euskara ikasteko arrazoiak (LES-034/006)**

Kalean euskara berreskuratzeko beharra zegoen. Horregatik ikasten zuten, hagitz kontzientziaturik zeuden. Kontzientzia hori kaleko giroan zegoen.

### **636. Akelarre jaialdia (LES-034/007)**

Akelarre jaialdian, antzerki bat egin zuten (Miguel Pastorrek idatzi eta Mikel Legarrak euskaratu). Kontzertuak ere izan ziren eta eguraldi hagitz txarra egin zuen.

### **637. Korrika eta militantzia (LES-034/008)**

Korrika Bortzirietatik pasatzen ez bazen, bertan zerbait antolatzen zen, adibidez, bizikleta martxa bat. Ostatuak ere paratzen zituzten eta lanean aritzen ziren.

### **638. Hizkuntza ohiturak (LES-034/010)**

Euskaraz ezagutu dituenekin normalean euskaraz egiten du, saiatu egiten da. Baina erdaraz ezagutu dituenekin, erdaraz egiten segitzen du.

### **639. Hizkuntza gaitasuna (LES-034/011)**

Euskaraz solastatzea kostatzen zaio gaur egun, eta gaztelania eta euskara tartekatzen ditu solastatzean.

### **640. Integrazioa (LES-034/012)**

Erdaldunak izateagatik, bigarren mailako herritar sentiarazten zituzten lesakar batzuek. Behin euskaraz ikasita, sentimendu hori desagertu zitzaion.

### **641. Euskaltegirat joateren ahaleginari buruz. (LES-034/013)**

Ez zitzaien euskaltegirat joatea kostatzen, gustura joaten baitziren.

### **642. Euskara ikasteko motibazioa (LES-034/017)**

Merezi izan zuen euskara ikastea. Orduan ez zuten lanerako nahi euskara, bizitzeko baizik. Egun, ezberdina da, jendeak lanerako nahi du eta batzuek gero ez dute

### **643. Seme-alabei transmisioa (LES-034/018)**

Seme-alabek euskaraz ikasi dute. Euskaraz egiten dituen akatsak zuzentzen dizkiote.

### **644. Hizkuntza gaitasuna hobetzeaz (LES-034/020)**

Euskaldun zaharrekin bertako hitzak ikasten ditu eta batzuk erabili ere egiten ditu.

### **645. Euskaldun zaharrekin harremana (LES-034/022)**

Euskaldun zaharren jarrera ikasten ari zirenekiko ona zen.

### **646. Aurkezpena (LES-035/001)**

Antton Erkizia lesakarra da. 11 urterekin Oñatin egon zen ikasten eta 18 urterekin Lesakan hasi zen lanean Nafarroako Aurrezki Kutxan. Euskara gurasoengandik jaso du, eta ttikitan gaztelaniaz gaizki moldatzen zenez, ez zuen eskolara joan nahi izaten. Halere, gerora Oñatiko eskolan gaztelaniaz ongi ikasi eta 14-15 urterekin iatsu euskara ordezkatu zuen gaztelaniagatik.

### **647. Euskaraz idatzi zuen lehenbiziko aldiaz (LES-035/002)**

15 urte zituelarik idatzi zuen lehenbiziko aldiz euskaraz. Igande batean mezan laguntzen aritu zen, eta meza bukatu ondotik berendatzera gonbidatu zituzten. Apezek kontatu zuten bazela Principe de Viana izeneko aldizkari bat Amadeo Markoren diputazioak hilabetean behin euskaraz argitaratu eta herriz

herri banatzen zutena. Apezak Anttoni eskatu zion aldizkarian euskaraz artikulu bat idazteko, 500 pezetaren truke. Anttonek artikulua idatzi eta Principe de Vianara bidali zuen, eta handik aitzinerat, bi hilabetetik behin herriko istorioak, kronikak bidaltzen hasi zen.

#### **648. Aurrezki kutxan lan egiteko, euskara (LES-035/003)**

Nafarroako unibertsitatean kazetaritza ikasteko asmoa zuen, baina orduantxe atera zen aurrezki kutxan lan egiteko aukera; baldintzetako bat euskaraz jakitea zen. Lanean hasi zen bertan.

#### **649. Soldaduskako pasarte (LES-035/004)**

Soldaduskan zegoela, euskarazko futbol-kronika bat idazten harrapatu zuen tenienteak behin eta mehatxu egin zion. Euskararen kontzientzia bizten hasia zitzaion.

#### **650. Lesakako kultur astea (LES-035/005)**

Kultur astea antolatu zuten Lesakan, "euskal jakintzaren lehen astea" deitu zioten. Frankismoaren azken urteak ziren, German Goienetxek ordurako mugitua zuen giro politikoa, kantu politikoak ere aditzen hasiak ziren, eta hala suertatu zen euskal jakintzaren astea antolatzearen ideia. Urrian izen zen, hiru egunetan. Lehenbiziko egunean Intxixu taldea etorri zen euskarazko antzerki bat egitera, arrakasta izan zuen. Bigarren egunean, Kasinoan artelan modernoen erakusketa egin zuten, Joxean Artzek hitzaldi bat eman zuen. "Telenorte"-k, Espainiako telebistaren delegazioak, irudi batzuk hartu zituen eta berrietan eman zituen. Horrek motibazioa areagotu zien lesakar euskaltzaleei, mugimendu euskaltzalea indartu eta ikastolaren ideia lantzen hasi ziren.

#### **651. Ikastola sortzeko ideia (LES-035/006)**

Ikastola kultur astearen ondorioa izan zen. Ordurako baziren ikastolak, Iruñean edo Irunen adibidez, baina ez Bortzirietan. Garai hartan mojak zeuden Matxinbeltzenean, 6 urte arteko haurrekin aritzen ziren. Mojei haurtzaindegi elebiduna egiteko proposamena luzatu zieten, baina ez zuten hura begi onez ikusi eta ez zuten onartu.

#### **652. Ikastola martxan paratzen (LES-035/007)**

Berakoekin paratu ziren harremanetan: Josu Goia, Ixa Ordoñez, Elena Santesteban... Berako eta Lesakakoek elkarrekin hastea erabaki zuten. Ikastola martxan paratzea zaila zela ohartu ziren, jendeak ez baitzion etorkizunik ikusten euskarari. Aunitzek eskola gaztelaniaz ongi ikasteko baliatzen zuten. Gurasoengana ailegatzeko zailtasunak izan zituzten.

#### **653. Ikastolaren aldeko hitzaldia (LES-035/008)**

Lesakara jende garrantzitsua eraman zuten (San Fermin Ikastolako zuzendari Femin Atxa, Karlos Garaikoetxea abokatua eta Jose Mari Satrustegi apezka/ euskaltzaina) ikastolaren aldeko hitzaldi bat ematera, sinesgarritasuna emateko proiektuari. Hitzaldi hartan bertan guraso batzuk proiektura batu ziren. Hala, Otxogorrienean, lehenagoko eskola izandakoan, ikastola abiatu zuten. Ez zekiten sobera ongi zer pauso eman behar zituzten, baina gogo handia zuten.

#### **654. Gerran ondoren, euskara Lesakan (LES-035/009)**

Gerra ondorengo frankismoak herriaren izaera abertzalea suntsitu zuen. Kanean euskaraz ere aritzen zen, baina gaztelaniaz ez zekitenek bakarrik. Kontu ofizial guziak, bandoa adibidez, den-dena gaztelaniaz egiten zen. Folklore pixka bat gelditzen zen; Olentzeroaren besta, San Ferminak, inauteriak... Herri izaerarik ez zegoen, debekatuta zegoen eta jendea beldur zen.

#### **655. Ikastolaren pedagogia aldaketa (LES-035/010)**

Gogo bat bazegoen, baina ez zegoen epe luzeko perspektibarik. Pausoz pauso joan ziren bidea egiten, eta hala sortu zen ikastola. Pedagogikoki aldaketa sakona eman zuen ikastolak: oihu egin gabe, autoritate zorrotzik gabe, ia etxerako lanik gabe, jolasekin, eskulanekin...

#### **656. Ikastolan egindako lana (LES-035/011)**

Gogo bat bazegoen, baina ez zegoen epe luzeko perspektibarik. Pausoz pauso joan ziren bidea egiten, eta hala sortu zen ikastola. Pedagogikoki aldaketa sakona eman zuen ikastolak: oihu egin gabe, autoritate zorrotzik gabe, ia etxerako lanik gabe, jolasekin, eskulanekin...

#### **657. Ikastolarekiko jarrera (LES-035/012)**

Ordurako, Bera eta Lesakako ikastolek, bakoitzak bere aldetik egiten zuen lan. Berako ikastolak harrera hobea izan zuen; herriak eskola berri baten ideia errazago onartu zuen. Bentetako nagusi batzuek, Martikok adibidez, ikastolaren alde egin zuten, eta horrek sinesgarritasun handia eman zuen Beran. Lesakan ere halako nagusiren batek ikastolaren alde egin zuen, adibidez Alvaro Telletxeak, baina gehiengoak hagitz hotz edo kontra samar hartu zuen proiektua.

#### **658. Gau eskolak (LES-035/013)**

Ikastola abiatzea aski izanen ez zela ohartuta, helduekin ere lan bat egin behar zela ikusi zuten. Gau eskolen mugimendua ttikia zen orduan, ez zegoen materialik apenas. Lesakan, fabrikara etorri zirenendako gau eskolak antolatu zituzten irakurtzen eta idazten ikasteko, eta eredu horretan oinarrituta, euskarazko gau eskolak sortu zituzten. Horietan irakasle aritu zen Antton; dena hagitz inprobisatua zen, irakasleek ere ez zekiten ongi nondik jo. Urte batzuk iraun zituen gau eskolak eta gero AEK sortu zen. Euskaltegiaren sorreran ere irakasle aritu zen Antton

#### **659. Koxkosta irratia (LES-035/014)**

Bazuten gogoa irratia bat euskaraz egiteko, hagitz guti aditzen baitzen euskara irratietan. Javier Eneverreagak telekomunikazioak ikasiak zituen, eta irratia bat muntatzea teknikoki erraza zela aipatu zuen. Alondigan paratu zuten emisora.

#### **660. Koxkosta irratia muntaketaz (LES-035/015)**

Alondigako teilatuan antena ttiki bat paratu zuten, eta emisora muntatu zuten. Hiruzpalau egunez proba batzuk egin ondotik, irratia estreinatu zuten egunean bertan, guardia zibilak haren berri bazuela ohartu eta izutu egin ziren, baina hondarrean poliziek ez zieten kasurik egin.

### **661. Koxkosta irratia sortzeko ideia (LES-035/016)**

Lehen, igande goizetan bandoak ematen ziren Lesakako herriko etxean. Anttonek disko-jogailuarekin musika paratzen zuen plazan aditzeko, Luis Mariano adibidez. Batzuetan, herriko oharrak ere euskaraz ematen zituen handik Anttonek. Hari horretatik sortu zen irratia-idea.

### **662. Koxkosta irratia-aren programazioari buruz (LES-035/017)**

Igande goizetan emititzen hasi ziren, hasieran, musika bakarrik, jendeak eskatzen zuena. Gero, udaleko berri batzuk ere ematen hasi zen, herriko aurrekontuak adibidez.

### **663. Koxkosta irratia-aren amaiera eta Xorroxin irratia-aren hasiera (LES-035/018)**

Batez ere Antton aritzen zen irratia-esatari lanetan, eta azkenean nekatu egin zen. Halere, Koxkosta irratia bukatu zelarik, handik urte batzuetara Xorroxin irratia sortu zen.

### **664. Ez Dok Amairu eta Pantxoa eta Peioren pasadizoa (LES-035/019)**

Jaialdi aunitz egin ziren Lesakan Ez Dok Amairuarekin. Batzuek esperientzia ona izan zuten, bertze batzuek txarra. Adibidez, Pantxoa eta Peio behin jaialdi batera Lesakarat joan behar zirelarik, kontrol batean gelditu eta hagitz berandu ailegatu ziren. Kontzertua akabatuta, frontoitik atera zirelarik atxilotu egin zituzten. Biharamunean, mugan askatu zituzten. Jaialdi haiek lan handia ematen zuten baina sortzen zuten giroak merezi zuten.

### **665. Dionisio Mujika, herri kirolak eta bertsolaritza. (LES-035/020)**

Dionisio Mujikak eta bere emazteak herri kirolari eta bertsolaritzari eutsi zioten, arrunt galdua zegoelarik.

### **666. Dionisio Mujika eta toberak (LES-035/021)**

Toberak ere Dionisiok ekarri zituen bueltan Lesakara; lehen toberak jotzen zituen jendearekin solastatu eta hura berreskuratzeko proposamena luzatu zien. Musika hori ezkontza-bestetan, pregoi bestan, jendeari deitzeko jotzen zen eta besta girotzeko ere bai. Handik sortu zen Dionisio eta Anttonen harremana.

### **667. Nafarroako bertsolarien txapelketa eta Pablo Iantzi Sariketa (LES-035/022)**

Dionisiok proposatu zuen Nafarroako bertsolariekin jaialditxo bat egitea. Nafarroako azken txapeladuna, gerra aitzinetik, Arozamena lesakarra izan zen. Harrezkerostik ez zen txapelketarik egin Nafarroan, eta hori berpiztu nahi izan zuten. Baimenak behar ziren horretarako; lortzen zailak ziren baimenak, bertsolariek kantatuko zituzten letrak jakin nahi baitzituzten, zentsuratzeko. Beraz, baimena lortzeko, txapelketa egin beharrean sariketa egin zuten, Pablo Iantzi sariketa.

### **668. Pablo Iantzi (LES-035/023)**

Pablo Iantzi igantziarra Lesakan bizi zen eta bertso-paperak idazten zituen. Afrikako gerrari buruzko bere bertsoak ziren famatuenak.

### **669. Pablo Iantzi Sariketaz (LES-035/024)**

Bi edo hiru urtez antolatu zuten Pablo Iantzi Sariketa. Bertan kantatzeko jendea atez ate bilatu zuten: Arantzako Madariaga anaiak, Larraungo Arginarena anaiak, Elizagoien, Iturengo Fagoaga anaiak...

### **670. Nafarroa eta Iparraldeko bertsolarien txapelketa (LES-035/025)**

Gero, Nafarroako txapelketa egitea erabaki zuten, baina eskas gelditzen zenez, Iparraldekoekin batera antolatu zuten. Iparraldetik Alkat eta Mihura etorri ziren, Xalbadorren semea... Halere ez zuen arrakasta handirik izan, jende guti joaten zen hura aditzera. Dena dela, bertsolaritza pixka bat indartzen hasi zen.

### **671. Olentzero (LES-035/027)**

Gerra ondotik herri kontzientzia arrunt zanpatua zegoen. Halere, Lesakak gauza batzuk bazituen, errate baterako, Olentzero. Lesakan bakarrik mantendu zen Olentzero. Jose Emilio Esparza, informazio eta turismoko nagusia, lesakarra zen eta astebururo joaten zen Lesakarat. Berari gogoratu zitzaion Eskola Ttikin egitea lehenbiziko Olentzero sariketa, eta handik hedatu zen Euskal Herriko leku aunitzetara.

### **672. Folklorea mantentzetik kultura sortzailera (LES-035/028)**

San Ferminak eta San Ferminetako dantzak ere mantendu ziren. Lesakak folklore mailako ohitura batzuk mantendu zituen. Anttonen belaunaldiak folklore hori kultura sortzaille bihurtu nahi izan zuten: zakozarra ekarri zuten, San Fermin bestari iraultza handia eman zioten (peñak, blusak, danborrada...)

### **673. Frankismoarekin hausteko nahia (LES-035/029)**

Frankismoarekin hautsiko zutela amesten zuten eta handik aitzinerat egoera berri bat sortuko zutela. Halere, ez zuten hori haustea lortu, eta gaur egungo sisteman ere neo-frankismoa arrunt hedatua dago. Belaunaldi berrien txanda da orain.

### **674. "Euskal Herrian Euskaraz" (LES-035/030)**

Kontxi Erro eta Antton aritu ziren Euskal Herrian Euskaraz mugimenduan. Euskararen ahalduntzearen falta sumatzen zuten, eta aginteari euskararen aldeko apustua eginarazteko mugimendu sozial indartsua behar zela ikusi zuten. Hala, Kontxi eta Antton Txilardegirengana joan ziren beraien ideia azaltzera. Txilardegiri ere ideia gustatu eta bere harremanak baliatuz, Euskal Herrian Euskaraz-en lehenbiziko batzarra Lesakan izan zen; gero, mugimenduak bere bidea egin zuten.

### **675. Euskararen alde egindako lanaren balantzea (LES-035/031)**

Euskararen alde aritu zirenak ez ziren heroiak izan, gogoia zuten, baina beldur handia pasatzen zuten. Pausoz pauso joan ziren dena eraikitzen; batzuetan

modu inkontzientean, ausardiarekin, elkar animatuz. Garbi ikusten zuten geldirik egoteak hizkuntza eta kulturaren heriotza ekarriko zuela.

### **676. Herrigintza: garai berrietara egokitzeko beharra (LES-035/032)**

Anttonek eta bere inguruak gaztetan egin zutena gaur egungo gazteek ere egiten ahal dute, beharrezkoa da. Errate baterako, San Ferminak ere garai berrietara egokitu behar dira, eta gazteak gai izan behar dira beren beharrei erantzunen dieten bestak sortzen.

### **677. Aurkezpena (LES-036/001)**

Beratarra da Bittori, 66 urte ditu eta jubilatua dago.

### **678. Euskararekiko harremana (LES-036/002)**

Ttikitan, euskara bakarrik ikasi zuen. Egun, euskaraz bizi da.

### **679. Giro erdalduna (LES-036/003)**

Bittori gaztetxoa zelarik, Berako giroa erdalduna zen: eskolan gaztelaniaz aritzen ziren, baita lagunekin edo kalean ere. Baserritarra edo euskalduna izateagatik bazterketa sentitzen zuen.

### **680. Mojek gaztelania sustatzen zuten (LES-036/004)**

Etxean euskaraz egiten zuten dena, baina, 16 urte bete zituelarik, euskara ahanzten ari zitzaiola sumatu zuen Bittorik. Mojek gaztelaniaz egiteko gomendatu zieten gurasoei, eta amak hala egiten zion.

### **681. Saria euskaraz jakiteagatik (LES-036/005)**

14 urte zituelarik, euskaraz zekitenei sari bat eman zieten. Garai hartan, gaztelaniaz aritzen ziren gerora euskaltzaleak eta intelektualak izan direnak.

### **682. Berako gau-eskolak (LES-036/006)**

Euskararen aldeko giroan, gau-eskoletara apuntatu zen Bittori; herriko etxean ematen ziren klaseak.

### **683. Gau-eskolako oroitzapenak (LES-036/007)**

17 urterekin joan zen Bittori gau-eskoletara, eta giro aski ona zutela oroitzen da; 6-7 lagun elkartzen ziren, eta ez zuten libururik erabiltzen.

### **684. Kontzientzia hartzea eta euskararen aldeko mugimendua (LES-036/008)**

Gau-eskolek euskararekiko kontzientzia hartzen lagundu zioten Bittoriri. Hala, euskararen aldeko mugimenduaren bueltan, 1980an kultur astea antolatzekeo elkartu eta Euskal Bestak antolatu zituzten.

### **685. Ikastolaren sorreran lanean (LES-036/009)**

Ikastolaren sorreran hartu zuen parte Bittorik; idazkari lanak egin zituen.

### **686. Ikastolako lehenbiziko irakaslea (LES-036/010)**

Lehenbiziko irakaslea etorri zelarik, herriko etxean bizilekua prestatu zioten.

### **687. 1983ko Nafarroa Oinez (LES-036/011)**

1983ko Berako Nafarroa Oinez-en antolaketan parte hartu zuen Bittorik. Hagitz arrakastatsua izan zen eta aitzinerat pauso bat ematea eragin zuen.

### **688. Ikastola legalizatzeko diputaziorat (LES-036/013)**

Nafarroako Aldundian sartu ziren behin ikastolaren legalizazioa eskatzeko. Del Burgoren bulegora joan ziren. Euskara salbatzeko ahal zuena eginen zuela erran zien hark. Ikastolako guraso batzuk ere tartean ziren.

### **689. D eredua eskola publikoan (LES-036/014)**

Eskola publikoan D eredua txertatzeko lanean ere aritu zen Bittori. Jendeak, oro har, ongi hartu zuen euskara txertatzearena; gurasoek ongi hartu zuten.

### **690. Kultur Batzordea (LES-036/015)**

1980an Euskal Bestak antolatu zituzten, eta handik aitzinerat, Kultur Asteak antolatzen hasi ziren. Bittori Gure Txokoan zegoen eta elkarteak horretan ere lagundu zuen. Kultur Batzordea sortu zelarik, eskola eta ikastolako gurasoek ere parte hartu zuten. Besta Batzordea ere osatu zuten, euskaraz; hori garrantzitsua izan zen.

### **691. 1980ko Euskal Besta (LES-036/016)**

1980ko Euskal Bestan, Larramendiren liburu bat argitaratu zuten, eta zenbait ekitaldi antolatu zituzten.

### **692. "Gure Txokoa"ren bidez antolatutakoak (LES-036/018)**

Martxel Telletxea eta Bittori Gure Txokoa-ko bokal izendatu zituzten, eta, horren haritik, gauza aunitz antolatu zituzten; errate baterako, antzerki taldearen sorreran hartu zuten parte. Honako hauek ere antolatu zituzten: ipuin lehiaketa, Nafarroako bertso txapelketa, kontzertuak...

### **693. "Kultur Bideetan" taldea (LES-036/019)**

"Kultur Bideetan" izeneko talde bat osatu zuten; Euskal Herri osoan kultur ekitaldiak antolatzen zituzten euskaraz. Horren harira, Loiolan batzar bat egin zuten eta Euskal Herri osoko jendea elkartu zen. Hantxe ikasi zuten nola antolatu, zer irizpide erabili...

### **694. Lurraren Eguna (LES-036/020)**

"Lurraren Eguna", Kultur Batzordeak bertze talde batzuekin batera antolatzen duen ekitaldi bat da. 1980an artisauen postuekin osatutako lehenbiziko jarduera antolatu zuten, eta 1987an lehenbiziko "Lurraren Eguna".

### **695. Lurraren Eguna eta euskara (LES-036/021)**

Lurraren Egunean euskara presente zegoen, baina ez zen erraza izan. Berako Udalean baziren jarduerak gaztelaniaz antolatu nahi zituzten kultur zinegotzi batzuk.

### **696. Kultur Batzordearen harremana bertze eragileekin (LES-036/022)**

Kultur Batzordeak harreman handia zuen euskaltegiarekin eta Ttipi Ttaparekin. Euskaltegiarekin elkarlanean, Akelarre izeneko jaialdiak antolatu zituzten. Kuadrilla gisakoa ziren, euskararen bueltan aritzen zirenak.

### **697. Akelarre jaialdia (LES-036/023)**

Akelarre, euskaltegiaren bueltan antolatu zen besta handi bat izan zen; Alkaiagan egin zen. Lehenbizikoak AEKlarre izena zuen, euskaltegia AEK-koa baitzen. Gero, IKA izatera pasatu, eta Akelarre izena hartu zuen jaialdiak.

### **698. Euskara mankomunitatearen sorrera (LES-036/024)**

1984. urtearen inguruan, Bortzirietako Euskara Batzordea osatu zuten, euskara sustatzeko asmoz. Handik sortu zen euskara mankomunitatea sortzeko ideia, baina, hasiera batean, udaletako batzuek ez zuten nahi izan; gatazka dezente izan zuten horrekin.

### **699. Egindako lanaz (LES-036/025)**

Egindako lan guzia hagitx aberasgarria zaio Bittoriri, nahiz eta arrunt arrakastatsua izan ez den sentipena izan. Berak kuadrillakoekin ez du euskaraz solastatzea lortu eta gaztelaniaz egiten dute.

### **700. Gaur egun (LES-036/026)**

Egun ere lan egin behar da: ilusio eta lanarekin, lortzen ahal da.

### **701. Lorpenak (LES-036/027)**

Lorpen aunitz azpimarratzen ditu Bittorik: euskara mankomunitatea, kultur batzordea, Ttipi Ttapa, Xorroxin, euskararen aldeko jarrera...

### **702. Erdal aisialdia (LES-036/028)**

Ingelesak, erdarek, sareak, telebistak... euskara jaten dute, baina, halere, ez dugu erraten ahal euskara desagertuko denik.

### **703. Lortutakoagatik borrokan (LES-036/029)**

Euskararen aldeko mugimenduan hasi zelarik, ez zuen imajinatzen lortutako guzia lortuko zutela; ederki borrokatu behar izan zuten.

### **704. Kanpotik heldu direnekin gaztelaniaz (LES-036/030)**

Kanpotik etortzen direnek euskara ikasteko gogoia dute, eta euskaltegian hasten dira. Baina segituan ohartzen dira ez dutela hizkuntza behar, jendeak gaztelaniaz egiten baitie. Gauza batzuk aldatu beharra eta egiteke dagoen lana ikusten du Bittorik.

### **705. Eduardoren aurkezpena eta euskararekin izandako harremana (LES-037/001)**

Eduardo lesakarra da eta 1962an sortu zen. Etxean ikasi zuen euskara, baina euskara baztertu zuen belaunaldikoa izaki, gerora berreskuratu zuen. Lesakako gau eskolan alfabetatu zen 17 urterekin. Gero, Mugairerat joan zen ikastera, baina Lesakako gau eskolan irakasle hasi zen arratsaldeetan. 1983-84 urtean Txantrean hasi zen irakasle AEKn, 12 urte eman zituen.

Lesakara bueltatu zelarrik, euskara batzordean hasi zen, baita BEMeko Aholkularitza Batzordean ere. Kontseiluan ere bi urtez aritu zen lanean.

### **706. Trantsizioan, euskararekiko kontzientzia (LES-037/002)**

Nahiz eta etxean euskaraz solastatu, eskolan gaztelaniaz aritzen ziren, baita lagunaren artean edo herrikoekin ere. Lesakan, herrian, ez zen euskara aditzen, baina baserrietan euskarari eutsi zioten, gazteek ere bai. Halere, trantsizio garaian bazen euskararekiko eta euskal nortasunarekiko kontzientzia. Hala, kezka horren haritik, euskaraz solastatzen hasi zen Eduardo.

### **707. Trantsizioan, gau-eskolak eta ikastola (LES-037/003)**

Eduardo baino zaharxeagoak zirenak euskararen aldeko mugimenduan murgildurik ziren: gau-eskolak antolatzen aritzen ziren, ikastolaren sorreran lanean... Horiek eredu garriak izan ziren gazteagoak zireneko.

### **708. Astoputza, gazteen euskara taldea (LES-037/004)**

80ko hamarkada hasieran, Astoputza izeneko gazteen euskara taldea sortu zen. Euskararen alde aritzen ziren, eta aldizkari bat argitaratzen zuten; lehenbiziko alea gaztelaniaz izan zen.

### **709. Hizkuntza ohituren aldaketa (LES-037/005)**

Euskararekiko kontzientzia hartuta, harremanak euskaraz izateko erabakia hartu zuten. Eduardori ez zitzaion kostatu hizkuntza ohiturak aldatzea, baina bai, ordea, euskara-maila hobetzea.

### **710. Alfabetatzeko prozesuari buruz (LES-037/006)**

Gau eskoletan alfabetatzen hasi zelarrik, gramatika aferak arrotzak egiten zitzaizkion Eduardori; halere, segituan ikasten zituen. Alfabetatzen joan ahala, aiseago solastatzen zela sumatzen zuen Eduardok.

### **711. Alfabetatzetik irakasle izatera (LES-037/007)**

Irakasle falta zegoenez, ikasturte bat alfabetatzen eman ondoren, ikasle izandako 3 irakasle sartu ziren: horietako bat, Eduardo. Arratsaldeetan ematen zituzten 1'5-2 orduko eskolak; Euskaltzaindiaren "euskalduntze" metodoa erabiltzen zuten. Urte berean, "Jalgi hadi" izeneko metodo komunikatiboa atera eta hura erabiltzen hasi ziren. Urte berean lehenbiziko Korrika antolatu zuten. Eduardoren ikasleen artean, bere kuadrillakoak baziren, baita maisu-maistra batzuk ere. Modu boluntarioan ematen zituzten klaseak.

### **712. Lehenbiziko Korrikaren oroitzapenak (LES-037/008)**

Lehenbiziko Korrika antolatu zelarrik, euskara-irakaslea zen Eduardo; orduko oroitzapenak kontatzen ditu.

### **713. Euskararekiko kontzientzia Lesakan (LES-037/009)**

80ko hamarkada hasieran euskararekiko kontzientzia nahiko biztua zegoen Lesakan: gau eskolak, ikastola martxan zegoen, Bai Euskarari kanpaina...

### **714. Astaputza fanzinea (LES-037/010)**

Astaputza taldeak fanzine bat egiten zuen; poesiak, elkarrizketak, gai sozialei buruzko artikulak... argitaratzen ziren. Lehenbizikoak gaztelaniaz izan ziren,

baina fanzinean bertan euskara gero eta gehiago txertatzeko asmoa adierazten zuten. Ttipi Ttapa ere garai hartan sortu zen, den-dena euskara hutsean.

### **715. Astaputzaren euskarazko antzerkia (LES-037/011)**

Antzerkiak egiteko ohitura zegoen Lesakan: gazteak elkartzen ziren eta iatsu urtero egiten zuten bat. Antzerki horiek beti gaztelaniaz izaten ziren, baina Astaputzakoei euskaraz egitea gogoratu zitzairen. Entseguak euskaraz egiten zirenez, parte-hartzaileen arteko harreman pila bat euskaldundu ziren. Euskarazko antzerkia egiten zuten talde nafar bakarra zirenez, Euskal Herriko Antzerki Elkartetik harremanetan paratu ziren beraiekin, Nafarroan euskarazko antzerki zirkuitu bat osatzeko.

### **716. Pelikulen proiektzioa (LES-037/014)**

Astaputzakoei pelikulak alokatu eta proiektatu egiten zituzten, baina gaztelaniazko pelikulak ziren. Aitzineraxeago, bideo-irakurgailu bat erosi eta euskarazko pelikulak ematen hasi ziren.

### **717. Astaputzaren ekintzak (LES-037/015)**

Astaputzak egiten zituen ekintzak azaltzen ditu. 7-9 urte iraun zuen talde hark.

### **718. AEKren eta euskara mankomunitatearen sorrera. (LES-037/017)**

1986 inguruan, gau eskolak desegin eta AEK sortu zuten. Horretan aritu zirenek mugimendu indartsua osatu zuten, eta euskara mankomunitatearen beharra ere handik sortu zen. Horren isla da mankomunitateak duen egitura berezia: euskalgintzak badu bertako plangintzan eragiteko eta parte hartzeko ahalmena.

### **719. Eduadoren parte-hartzea Ttipi Ttapan (LES-037/018)**

Ttipi Ttapako lehenbiziko aleetan parte hartu zuen Eduardok, maketazio lanetan.

### **720. Koxkosta eta Segapoto irratiak (LES-037/019)**

Koxkosta irratia aditzen zuen Eduardok eta Antton Erkiziaren igande goizetako irratsaioaz oroitzen da. Horren ondotik etorri zen Segapoto irratiak ere oroitzen da.

### **721. Garaiko indarraren ondorioak (LES-037/020)**

Garai hartan egindako proiektu haiek guzietan garrantzia izan zuten euskara indartzeko orduan, Xorroxinen sorreran, Ttipi Ttaparen garapenean... Euskara mankomunitatea ere indar horretatik sortu zen.

### **722. Lesakako Euskara Batzordea eta Bor-bor (LES-037/021)**

1994 inguruan sartu zen Eduardo Lesakako Euskara Batzordean, udalean zinegotzi egon zelarik. Orain Bor-bor euskaltzaleen mugimenduan dago, euskararekiko kontzientzia hori indartu nahian.

### **723. Egun, Lesakan giro euskalduna (LES-037/022)**

Gaur egun, giro arrunt euskalduna dago Lesakan, batez ere, haur eta gazteen artean. Zaharxeagoen artean gaztelaniaz egiteko ohitura dago, nahiz eta euskaraz jakin. Eskaintza kulturala ere puskaz zabalagoa da

### **724. Egindakoarekin kontent (LES-037/023)**

Garai hartako oroitzapen ona du Eduardok; egindakoa gogoz eta kontzientziaz egin zuen. Lanaren kolektibotasuna nabarmentzen du.

### **725. Euskara mankomunitatearen aurrekontuaren murrizketa (LES-037/024)**

1994an Lesakako zinegotzi izan zen Eduardo. Garai zailak izan ziren haiek, baina euskarari dagokionez, hurrengo urteak izan ziren zailagoak, mankomunitatearen aurrekontu murrizketa handia egin baitzen. Orduan, Aholkularitza Batzordean zegoen Eduardo.

### **726. Egindako lanaren balorazioa (LES-037/025)**

Egindako lan guzia katebegitza du Eduardok: belaunaldi bakoitzak bere aletxoa paratzen du. Halere, egun oraindik ere euskarak erasoak jasaten ditu.

### **727. Euskararen egungo egoera (LES-037/026)**

Euskararen aldeko mugimenduak gaur egun bere bidea egiten du; gai sozialagotzat hartzen da, normalizatuagoa. Hainbat arlotatik egiten da aitzinerat, eta den-denak dira beharrezkoak.

### **728. Bertso-eskolak (LES-037/027)**

Bertso eskolarat ere joaten zen Eduardo, Berako Gure Txokoarat. Horrek euskararen aldeko giroan eragiten zuen. Egun bertsolaritzak duen indarraz solastatzen da.

### **729. EITB (LES-037/028)**

EITB euskara laguntzeko sortu zela aipatzen du Eduardok, baina, gaur egun, ETB1ek ETB2k baino aurrekontu ttikiagoa duela.

### **730. Euskalgintzako lagunak (LES-037/029)**

Euskalgintzak lagun aunitz eta onak eman dizkio Eduardori.

### **731. Aurkezpena (LES-038/001)**

Joxe Mari Martintxeberri baserrikoa da, Alkaiagakoa. 14 urte arte Beran ikasi zuen, eta gero Iruñean eta Donostian segitu zuen ikasketekin.

### **732. Toki Ona institutuaren hasiera (LES-038/002)**

1967an, Berako Alondigan "escuela de oficialia" bat paratu zuten martxan, gaur den egunean Toki Ona institutua denaren hasiera.

### **733. Joxe Mariren ibilbidea (LES-038/003)**

1970eko hamarkadan irakasle aritu zen Joxe Mari, baita Berako Udalean ere 74-78 bitarte. Garai berean, Gure Txokoako presidente ere izan zen. 1974an, ikastola martxan paratu zuten.

### **734. “Escuela de oficialia”-n euskara klaseak (LES-038/004)**

Joxe Mari etxetik jaso zuen euskara. “Escuela de oficialia” martxan paratu zutelarik, 6 lagunetik 2 baino ez ziren euskaldunak, eta dena gaztelaniaz egiten zen. 1970 inguruan, 4 espezialitate zituzten eskola hartan; haietako batean, “sanitaria”-n, euskara klaseak ematen aritu zen Joxe Mari.

### **735. 1983, urte garrantzitsua (LES-038/005)**

80ko hamarkadan, ikastolaren proiektuan buru-belarri aritu zen Joxe Mari. Horren harira, 1983. urtea garrantzitsua izan zen: Nafarroa Oinez egin zen, ikastola legalizatu zen eta eskola publikoan D eredia hasi zen.

### **736. Eskola profesionalean gau eskolak eta bertsolaritza (LES-038/006)**

80ko hamarkada hasieran, Joxe Mari eskola profesionaleko zuzendaria zen, eta helduen formakuntzarako programa bat (EPA) eramaten zuen. Programa horretan, gau eskolak paratu zituzten martxan; haiek izan ziren Bortzirietako lehenbiziko gau eskolak. Bertsolaritza ere ematen zuten programa hartan.

### **737. Bizkaiko AEK-ko ikasleen barnetegia (LES-038/007)**

Eskola profesionala egungo institutuko eraikinera aldatu zelarik, kanpotik etorritako ikasleentzako egoitza Bizkaiko AEK-ko ikasleak hartzeko erabiltzen zen, oporretan barnetegiak egiteko.

### **738. 1990 arte euskararekin (LES-038/008)**

Gau eskolen ondotik, AEK agertu zen, eta gero IKA; baina ordurako Joxe Mari ez zen horretan aritzen. EPA ere poliki-poliki desagertu zen. Halere, 1990 arte segitu zuen Joxe Mari euskararekin, bai eskola profesionalean, bai ikastolan.

### **739. Ikastolaren lehenbiziko egoitza eta Gure Txokoaren babesa (LES-038/009)**

Jose Mari udalean zelarik, herriko etxean bertan liburutegi bat martxan paratzea onartu zen. Hala, alkateari eskatu zioten ea liburutegiaren proiektua pixka bat gibelatzen ahal zuen, leku hartan ikastola paratzeko. Bestalde, ikastolak Gure Txokoako babesa izan zuen hasieratik.

### **740. Batxillergoa Bortzirietan (LES-038/010)**

90eko hamarkadan, LOGSE hasi zen. Hori garrantzitsua izan zen, horri esker Batxillergoa martxan paratu ahal izan baitzuten Bortzirietan. Hasieran dena gaztelaniaz izan arren, euskara txertatzen joan ziren, eta irakasle guziak euskaldunak izatea lortu zuten.

### **741. Bera, herri erdalduna (LES-038/011)**

Etxean, lagunekin, auzoan, euskaraz aritzen zen Joxe Mari. Baina eskolak gaztelaniaz ziren, eta Bera herri hagitz erdalduna zen.

### **742. Euskararen aldeko mugimendua biztea (LES-038/012)**

1967an, Ez Dok Amairuren kontzertua antolatu zen, eta horrek nolabaiteko arrakasta izan eta euskararen aldeko mugimendua bizten lagundu zuen. Horretaz gain, Bera eta Lesakako gazte talde bat ikastola sortzeko proposamena lantzen hasi zen.

### **743. Berako Oihua eta Segapoto irratia (LES-038/013)**

Berako Alondigan Segapoto irratia hasi zen. Gainera, udalean, Berako Oihua izeneko aldizkaria atera zuten, Berako kontuak biltzeko asmoz. Aldizkaria euskaraz eta gaztelaniaz idatzia zegoen, ele bitan. Segapoton debatea izan zuten, ea gaztelaniaz edo euskaraz izan behar zen irratia, jende aunitzek ez baitzekien euskaraz.

### **744. Joxe Mari euskararen aldeko mugimenduan (LES-038/015)**

Gure Txokoaren bidez aritu zen Joxe Mari euskararen aldeko mugimenduan, baita udaleko kultur komisioren bidez ere. Aparte, bazegoen gazte talde bat euskararen alde aritzen zena, errate baterako, Barojaren omenaldia antolatzen. Eta Joxe Mari, batez ere, ikastola eta eskolaren bidez aritu zen euskararen alde.

### **745. Mojen eskola, eskola publikoa eta ikastola (LES-038/016)**

Beran mojen eskolak arrakasta handia zuen, baina 4 urtetatik aitzinerako haurrak hartzen zituzten. Hala, gazte talde bat ikastolako proiektuarekin agertu zelarik, eta haur ttikiagoak eskolatzeko beharra tarteko, Joxe Marik beren alaba bertan sartu zuen. Eskola publikoa ere martxan zen, baina gaztelaniaz zen eta ikasle guti zituen.

### **746. Ikastolaren sorrera (LES-038/017)**

Ikastolaren sorreran, lekua bilatzen lagundu zuen Joxe Marik: herriko etxean, nesken eskola izana zen lekuan. Halere, tokia arunt prestatu beharra zen. Pili andereñoa ekartzeaz bertze batzuk arduratu ziren; ez zen lan erraza izan, orduan ez baitzegoen euskaldun tituludunik.

### **747. Ikastolaren alde eta kontrakoak (LES-038/018)**

Ikastolaren sorrera batzuek ez zuten begi onez hartu; uste zuten euskaraz ikasita ez zutela gaztelania ongi ikasiko. Gainera, metodologia hagitz ezberdina zen: jostatu, kantatu... eta batzuek ez zuten ongi ikusten. Bertze batzuek, aldiz, begi onez ikusten zuten, eta konfiantza ematen zien Joxe Marik alaba ikastolara eramaten zuela jakiteak.

### **748. Ikastolaren finantzazioa (LES-038/019)**

Kuoten, zozketa-txartelen eta diru-laguntzen bidez finantzatzen zuten ikastola.

### **749. Eskola publikoa euskaldundu eta ikastolarekin fusionatzeaz (LES-038/020)**

Ikastolako zuzendaritza batzordean aritu zen Joxe Mari. Momentu batean, proiektua handitzen ari zela ikusi zuten, eta ekonomikoki nola sustengatzen ahal zuten pentsatzen hasi ziren. Gainera, 3 ikastetxe baziren Beran, eta bazen haur kopururako soberaxko zela pentsatzen zuten batzuek. Hala, ikastola bakarraren alde hasi ziren batzuk, eta bertze batzuk, aldiz, eskola publikoa euskaldundu eta ikastola fusionatu nahi zuten (Joxe Mari tarteko).

### **750. 83ko Nafarroa Oinezako laguntzak eta laguntza ezak (LES-038/023)**

1983ko Nafarroa Oinezen antolaketa zaila izan zen. Adibidez, pilota enpresak ez zuen Nafarroa Oinezen aldeko pilota partidurik antolatu nahi. Baque Kaferi ere laguntza eskatu zioten, eta ez zieten eman. Laguntza ere izan zuten: Gipuzkoako Diputazioko Ardantzarekin egon ziren, eta berak sustengua eman zien, baita diru-laguntza ere.

### **751. 83ko Nafarroa Oinez ongi atera zen (LES-038/024)**

Herrian, laguntza osoa izan zuen Nafarroa Oinezek. Jende aunitz hurbildu zen eta dena ongi atera zen.

### **752. Ikastolaren Altzateko egoitza (LES-038/025)**

1983ko Nafarroa Oinezek diru bulkada bat eman zion ikastolari. OHO legearekin batera, ikastolaren egoitza handitu beharra etorri zen. Hala, eskola publikoa eraikinez aldatu, eta hutsik gelditutako leku hori, Alzate karrikakoa, ikastolari utzi zion udalak. Gisa horretan, ikastolak urrats garrantzitsu bat eman zuen; urte horretan bertan legalizatu zen.

### **753. Ikastolako lehenbiziko promozioak (LES-038/026)**

Berako ikastola legalizatu baino lehen, bertze ikastola batzuen bidez lortzen zituzten ikasleen kartillak. 1985Ean, ikastolako lehenbiziko promozioak akabatu zuen. Xabier Mauleon Hezkuntza Departamentuan zegoelarik, berarekin hitzartu zuten Bera eta Lesakako ikastoletako ikasleak Hondarribiko ikastolarat joanen zirela. Baina eguna ailegatu zelarik, ez zieten ikasleak matrikulatzen utzi eta Mauleon ordurako ez zegoen karguan. Lakuara joan ziren irtenbide bat eskatzera, eta Donostiako Zurriola institutuan matrikulatzeko erran zieten lehenbizi, eta, azkenean, Irungo Pio Barojara joaten utzi zieten. Bigarren promozioa, aldiz, Oronozera joan ziren.

### **754. Euskara institutuan (LES-038/028)**

Zaila izan zen institutuan D eredia txertatzea, aunitzek A eredian ikasten baitzuten edo B eredian. Gainera ikasle eta irakasle batzuk erdaldunak ziren. Baina progresiboki joan zen txertatzen euskara institutuan.

### **755. Euskara institutuan, inor ez kontrari (LES-038/029)**

Ez zen kontrakotasunik izan institutuan euskara txertatzearekin.

### **756. Institutuko materiala (LES-038/030)**

Klaserako euskarazko material aunitzik ez zegoenez, beraiek sortu behar izan zuten. Gainera, iraultza pedagogiko gisakoa bizi zen garai hartan, eta Joxe Mari ere horretan aritzen zen. Geroxeago, argitaletxeak euskarazko testuliburuak argitaratzen hasi ziren.

### **757. Materiala itzultzea eta finantzazioa (LES-038/031)**

Klaserako material batzuk itzultzeko Bertsolarien Elkarteari eskatu zioten laguntza. Nafarroako Gobernuak laguntzak ematen zituen finantzaziorako. Bertze modu batzuk ere bilatzen zituzten finantzatzeko.

### **758. Euskararen bilakaera institutuan (LES-038/032)**

Berako instituturat Arantza, Igantzi eta Etxalarko ikasleak etortzen zirenez, giroa aunitz euskalduntzen zuten. Aldaketa handia izan zen euskarari zegokionez: 70ean dena gaztelaniaz zen, eta 90ean euskara indartu eta nagusitu zen.

### **759. Institutuko aurrerapenez (LES-038/033)**

Joxe Marik instituturik ahalik eta hoberena nahi zuen bai euskarari zegokionez bai bertze kontu batzuei zegokienez, eta horretan saiatu ziren. Bertze kontuei buruzko xehetasunak ematen ditu Joxe Marik.

### **760. Egindako lanez (LES-038/034)**

“Euskara eskolara” leloa segitu izan du beti Joxe Marik. Gainera, Nafarroako Gobernuarekin beti harreman ona izan du, eta erraztasunak izan ditu nahi zuena egiteko.

### **761. Bortzirietako hiri hezitzailea eta Bortzirietako hezkuntza proiektu komuna (LES-038/035)**

Joxe Mariren ilusioetatik, bat egin gabe utzi zuen: Bortzirietako hiri hezitzailea sortu nahi zuen, eta Bortzirietako hezkuntza proiektu komuna. 1990ean horretan saiatzen aritu zen Joxe Mari, hezkuntza proiektu komuna osatzen.

### **762. Euskararen bilakaera herrian (LES-038/036)**

70eko hamarkadatik gaur egunera, euskarak aitzinerat egin du. Halere, globalizazioaren ondorioz, jende aunitz etortzen ari da, eta ez da erraza izanen hori kudeatzea. Gainera, eskolan euskaraz ikasiagatik, kalean gaztelaniaz ere aritzen da jendea. Lehen baserrian mantentzen zen euskara, baina, egun, eskolak hartu du euskara mantentzearen ardura hori.

### **763. ETBn zuzenean 83ko Nafarroa Oinezen berri (LES-038/037)**

Komunikabideak ere izugarri aldatu dira urte hauetan. 1983ko Nafarroa Oinezen berri emateko, Joxe Mari EITBko estudioetara joan zen zuzenean albistegian horri buruz solastatzera.

### **764. Kontxiren aurkezpena (LES-039/001)**

Lesakarra da Kontxi, irakaslea eta pedagogo. 72 urte ditu elkarrizketaren unean. Familia euskaldun batetik heldu da, eta Eskol Ttikin mojek euskaraz egiten uzten ez ziotenez, izugarri gaizki pasatu zuen; ez zekien gaztelaniaz. Eskolara joan zelarik, irakasle lesakar euskalduna izan zuen, eta nahiz eta azalpenak gaztelaniaz egin, Kontxiri aholpeka euskaraz ematen zizkion haiek. Batxilergoa Donostiako eta Irungo institutuan egin zuen, gaztelaniaz, eta Iruñean magisteritza ikasi zuen.

### **765. Irungo eta Lesakako giroa (LES-039/002)**

Burgoseko prozesuaren harira Irunen egindako protestez oroitzen da. Gelako kide bat atxilotu zuten, eta horrek kontzientzia ernarazi zion. Lesakan, giroa erdalduna zen bai kalean bai lagunartean. Euskara etxeko kontua zen, baserritarren hizkuntza. Bera baserritarra zen, eta haiek egoerari buelta ematen saiatzen ziren gaztelaniaz solastatuz ahalik eta hobekien.

### **766. Euskal giroa: gau-eskolak eta kantagintza (LES-039/003)**

1970-73. urteetan lehenbiziko gau eskolak hasi ziren. Horretaz gain, lagun batek musika ekartzen zuen Iparraldetik, eta Lesakan zegoen apez baten laguntzarekin, kanta ikasten zituzten. Gero, lagun akordeoilari batekin ostatzuz ostatu kantatzen zuten. Ez Dok Amairu aditzera joaten ziren

### **767. Euskal kulturaren pizkundea (LES-039/005)**

1973ko urrian izan zen euskal pizkundearen astea. Lesakan euskarak izan zuen atzerakada ikusita (fabrikaren eraginez hein handi batean), gazte batzuk elkartu ziren euskararen aldeko mugimendua suspertzeko: euskal pizkundearen astea. Kasinoko ganbaran arte erakusketa bat antolatu zuten: Remigio Mendibururen lanak, Santxotenarenak, Lantzen ilobek ere lan batzuk utzi zituzten, inguruko margolariak... Horren inguruan, jaialdiak, dantza-taldeak, bertsolariak, hitzaldiak... ekarri zituzten.

### **768. Ikastolaren aldeko hitzaldia (LES-039/006)**

Hitzaldian Satrustegik, Karlos Garaikoetxeak eta Atxak hartu zuten parte, eta ikastolaren esperientzia pedagogiko berriak azaldu zituzten. Elebitasunaren onurei buruz aritu ziren eta euskaraz ikasteko eskubideaz. Helburua ikastola sortzeko gurasoak biltzea zen; haur batekin aski izaneren omen zen. Eta azkenean, 7 ikaslerekin hasi zen Lesakako ikastola.

### **769. Bortzirietako ikastolen hasiera (LES-039/007)**

1973. urtean hasi ziren Lesakako eta Berako ikastolak, Lesakakoa Otxogorrienean, egungo ikastola dagoen lekuan. Andereño batekin hasi zen, 7 haurrekin. Urte berean edo hurrengoan, Igantzi, Arantza eta Etxalarren ere ikastolak sortu ziren. Kontxi ikastolako batzordean aritu zen.

### **770. Ikastolako batzordeetako bilerak (LES-039/008)**

Batzordean kezkak eta zalantzak izan zituzten lehenbizi: nola segi aitzinerat, dirua nondik lortu, ildo pedagogikoa... Bileretan 6 guraso, 2 irakasle eta 2 laguntzaile izaten ziren, eta atean itsulapiko bat; bilera noiz zen jakiten zuten eta hura zaintzera joaten ziren.

### **771. Kontxiren hasiera Lesakako ikastolan (LES-039/009)**

Kontxik Irungo ikastolan egiten zuen lan, baina Lesakan irakaslea falta zutenez, harat joan zen 1978ko ikasturtean.

### **772. Ikastolaren egunerokoa (LES-039/010)**

Ilusio handia zuten ikastolako proiektuan, gurasoek konfiantza osoa zuten, lan handia egiten zuten materialarekin.

### **773. Irakasle-ikasle kopurua eta materiala nola egin (LES-039/011)**

Kontxi ikastolarat ailegatu zelarik, 4-5 irakasle baziren eta 60 bat ikasle. Material guzira irakasleek prestatzen zuten, baita kopiak egiteko kalkoak ere.

#### **774. Bortzirietako ikastolen arteko harremana (LES-039/012)**

Bortzirietako ikastoletako Haur Hezkuntzakoak astean behin edo bi astetik behin elkartzen ziren elkarrekin programatzeko, materiala prestatzeko... dena koordinatzeko. Lehen Hezkuntzan hasi zirelarik, Berakoekin koordinatzen ziren, eta hala aritu ziren urtetan, mailaz maila, dena koordinatzen.

#### **775. Ikastolako metodologia (LES-039/013)**

Eskola libreko oinarri pedagogikoa erabiltzen zuten, Freinet eta Peigetena: irakurketa librea. Horrek metodologia arrunt aldatzea ekarri zuen, eta gurasoak horretaz konbentzitu behar izatea. Jokoak eta plastilina zituzten gelan, eskuz margotzen zuten, antzerkiak, kantak, kanpaldiak... Erabat berritzailea izan zen.

#### **776. Ikastolaren alde eta kontrakoak (LES-039/014)**

Ikasle kopurua urtez urte goiti joan zen, eta haurren erdia joan izanen ziren ikastolara. Halere, herrian aldekoak eta kontrakoak zeuden urte haietan, giro politiko nahasia zegoen. Kontrako jarrera zutenak euskara gutxien zuten.

#### **777. Ikastolaren finantziak (LES-039/015)**

Ikastola sortu zelarik, gurasoez gain, herriko gazteek ere inplikazio handia izan zuten: bazkide-laguntzaileak ziren gazte haiek, 200etik goiti. Gainera, zozketak, ostatuak, auzolana... egiten zen. Principe de Vianak ere diru-laguntza zerbait ematen zuen.

#### **778. Ikastolaren harremana Lesakako bertze eragileekin (LES-039/016)**

Udalan zeuden bi ikastolako gurasoak ziren, eta haien bidez diru-laguntza pixar bat lortzen zen.

#### **779. Ikastolaren lana gizarteratzea (LES-039/017)**

Urtean behin aldizkari ttiki bat (Piper Gorri) ateratzen hasi ziren, ikasleen lanekin. Olentzero egunean ere ikastolaren sorreratik hasi ziren ateratzen; 1980an Santa Agedan ateratzen eta inauteriak ospatzen hasi ziren.

#### **780. Euskarazko marrazki bizidunak (LES-039/018)**

Euskal Telebista hasi zelarik, marrazki bizidunak euskaraz ematen hasi ziren, baina Lesakan ez zen ETB ikusten. Beraz, udalari herriko etxean gela bat eta telebista bat eskatu zieten, eta Irunen grabatzen zituzten marrazki bizidunak, ondotik Lesakako gela hartan (Txoko Txikin) emateko. Herriko haur guziendako zegoen irekia, baina euskaraz solastatzeko baldintzarekin. Jolasak ere paratu zituzten, ipuinak, margotzeko materiala... eta egunero irekitzen zuten irakasleek txandaka.

#### **781. 1983ko Berako Nafarroa Oinez (LES-039/019)**

1983ko Berako Nafarroa Oinez, antolakuntzan lagundu zuen Lesakako ikastolak. Izugarri ederra izan zen ikastolakoendako egun hura.

### **782. Eskola publikoan euskara (LES-039/021)**

1985-86 inguruan, eskola publikoan arlo bat euskaraz eman nahirik hasi ziren, eta oposizio handia izan zuen, baita salaketaren bat ere. Oposizioko guraso bat Hezkuntza Departamentuan kexatu zen. Hark aurrezki kutxan egiten zuen lan, eta, boikot modura, jende dezentek bertako kontuak kendu zituen.

### **783. D eredua Bortzirietan (LES-039/023)**

Igantzi, Arantza eta Etxalarren ikastolak itxi zirelarik, eskola publikoko euskarazko lerroak sortu ziren, D eredua. Lesakako eskola publikoan geroago hasi ziren, progresiboki. Jendeak presioa egin zuen Nafarroako Aurrezki Kutxako kontua itxita.

### **784. Ikastolaren egoera legala (LES-039/024)**

Ikastola, zirrikitu legal bat medio, "escuela de enseñanza doméstica" zen, eta Irain eskola publikotik lortzen zituzten kartillak.

### **785. Igantzi, Arantza eta Etxalarko ikastolen itxiera (LES-039/025)**

Gerora, hezkuntzako kontseilariak akordio bat egin zuen Nafarroako Ikastolen Elkartearen onespenez: baldintzak betetzen ez zituzten ikastolak itxiko zituzten, eta hala itxi zituzten Igantzi, Arantza eta Etxalarkoak. Gisa horretan, Nafarroan 47 ikastola egotetik 17 egotera pasatu zen.

### **786. Ikastola legalizatzeko alternatibak (LES-039/026)**

Lesakako ikastolak artean titularitatea ez zuelarik, hezkuntzatik proposamen bat ailegatu zitzaion, espazio fisikoari dagokionez baldintzak betetzen ez zituztenez, eskolarekin bis (j) bat egin beharko zutela. Komisio bat sortu zuten aukera ezberdinak aztertzeko: ikastola municipala izatea, eskolaren filial bat izatea, eskolan sartzea edo ikastolak bere bidea segitzea.

### **787. Hezkuntza Departamentuaren proposamena Ikastola legalizatzeko (LES-039/027)**

Hezkuntza Departamentuak proposatu zuen ikastolako ikasle guziak eskolan sartzea eta D ereduko lerroa osatzea haiekin. Gainera, ikastolako irakasle tituludunak eskolan integratuko ziren. Ikastolako komisioak kontraproposamen bat egin zuen: eskola euskalduntzeko hizkuntza plangintza eta irakasle erdaldunak euskalduntzeko bideak jakin nahi zituzten. Horren aitzinean, Hezkuntza Departamentuak bertan behera utzi zuen prozesua.

### **788. Hezkuntza Departamentuaren proposamena onartu ez izanaren ondorioak (LES-039/028)**

Handik aitzinerat, ezin izan zuten eskolako soinketa gela, jangela edota haurrentzako garraioa erabili ahal izan. Herri eskola sortzeko aukera galdu zen.

### **789. 1988ko Nafarroa Oinez eta Hezkuntza Departamentuko baldintzak (LES-039/029)**

Hezkuntza Departamentuko proposamena bertan behera gelditu ondotik, aitzinerat segitzea erabaki zen, eta Nafarroa Oinez antolatzea eskatu zuten. Hala, 1988an Lesakan antolatu zen Nafarroa Oinez, dirua lortzeko Otxogorrienea moldatzeko eta Hezkuntza Departamentuak eskatzen zituen

baldintzak betetzeko. Eraikina Cornelia Lekuona Fundazioarena zen, eta zesio bidez utzia zioten ikastolari.

### **790. 1988ko Nafarroa Oinez bestaren antolaketa (LES-039/030)**

1988ko Nafarroa Oinez bestaren antolakuntzan herritar aunitz inplikatu ziren. Bestaren antolaketa hagitz "artisaua" izan zen, komisiotan banatu ziren: zirkuitua, aparkalekuak, ostatua, jangela...

### **791. 1988ko Nafarroa Oinez nola atera zen (LES-039/031)**

55.000 lagun joan ziren Nafarroa Oinezera. Kontxi azken 15 egunetarako liberatu zuten, antolaketan lan egiteko, komunikazioan. Hagitz ongi atera zen dena.

### **792. Hizkuntza ohiturak (LES-039/033)**

Ikastolako guraso batzuek hizkuntza ohiturak aldatu eta euskaraz solastatzen hasi ziren, baina bertze batzuek gaztelaniaz segitu zuten.

### **793. 1985ean Nafarroako zonifikazioaren kontra protesta (LES-039/034)**

Antton Erkizia, Kontxi eta bertze batzuk diputazioan sartu ziren, Malon hezkuntza kontseilariaren bulegoan, zonifikazioaren kontra, Nafarroa osoan euskara ofiziala izatea nahi zuten. Balkoian kateatu ziren, eta txapel gorriak joan ziren handik bidaltzeko asmoz. Gero, epaituak izan ziren, eta euskaraz deklaratu zuten.

### **794. Euskal Herrian Euskarazen sorrera (LES-039/035)**

Garai hartan, udaro Iruñera joaten ziren UEUra, eta han kezka berak zituzten jendearekin elkartzen ziren. Hala, talde ekintzaile bat sortzea erabaki zuten, Euskal Herrian Euskaraz. Euskararen estatus legala aldarrikatzen zuten, baita kaleko erabilera ere.

### **795. EHEn lehenbiziko batzarra (LES-039/036)**

EHEren lehenbiziko batzarra Lesakan izan zen, eta Euskal Herriko 100 bat lagun elkartu ziren. Bertan mugimenduaren oinarriak finkatu ziren eta urte hartako Durangoko Azokan lehenbiziko prentsurrekoa egin zuten.

### **796. EHEn egiten zituzten ekintzak (LES-039/037)**

Luis Mari Mujikak proposatu zuen mugimenduaren izena eta Antton Erkiziak ikurra. Helburua ere zehaztu zuten: nonahi zaudela, lehenbiziko hitza euskaraz. Euskaraz egin ezin zuten egoeretan nola jokatu ere pentsatu zuten. Hainbat ekintza egin zituzten euskara aldarrikatzeko. Batzar aunitz Donostian egiten zituzten; nortzuk joaten ziren aipatzen du. Geroago jende gazteagoa sartzen hasi zen, eta haiek segitu zuten elkartearen bidearekin.

### **797. Ikastolak Lesakan izan duen eraginaz (LES-039/038)**

Kontxiren ustez ikastolak eragina izan du Lesakako euskalduntzean.

### **798. EHEren eraginaz (LES-039/039)**

Kontxik zalantzan paratzen du EHEk eragina izan ote duen Euskal Herri mailan. Lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzen du.

### **799. Kontxiren gogoetak (LES-039/040)**

Kontxiren azken gogoetak: "ni naizena naiz euskalduna naizelako" eta "euskarak gu behar gaitu eta guk euskara behar dugu".

### **800. Pepiren aurkezpena (LES-040/001)**

Astigarragan sortua baina Lesakan bizitakoa da Pepi. Lesakako fabrika aritu zen lanean, baita Donostian bizpahiru urtez ere. 1960an Berara ezkondu zen.

### **801. Ikastola sortzeko lanetan (LES-040/003)**

Etxean euskaraz egiten zuen Pepik, baita familian eta auzoan ere. Baina Lesakan, herrian, gaztelaniaz aritzen ziren. Berarat ailegatu zelarik, han ere ez zuen euskararik aditzen kalean. Behin, haur ttikiak zituztenei bilera batera deitu zieten ikastolako proiektua azaltzeko, eta hala hasi zen Pepi ikastola sortzeko prozesuan.

### **802. Pepiren parte-hartzea ikastolan (LES-040/004)**

Ikastolako proiektuan, batzordean aritzen zen Pepi, idazkaritzan. Hainbat taldetan banatzen zituzten lanak: mantentze-lanak, garbiketa, pedagogia... Hura guzia izugarria izan zen Pepirentzat; euskal kontzientzia hartu zuen, jende aunitz ezagutu zuen...

### **803. Lehenbiziko bilerak (LES-040/005)**

Ikastolako lehenbiziko bilera Josu Goiaren etxean egin zuten, eta bigarren bilerarako, Satrustegi eta Garaikoetxea joan ziren (baita 3 polizia sekreta ere) ikastolen mugimenduaren berri ematera. Handik aitzinerat, ikastolako proiektua garatzeko elkartzen hasi ziren; gurasoak eta jende gaztea ziren denak. Kontzientziazio lan handia egin behar izan zuten gurasoen artean.

### **804. Ikastola martxan paratzeko lehen lokalak (LES-040/006)**

Berako herriko etxean paratu zen martxan ikastola. Lokala zaharra zen eta nahiko hondatua zegoen, baina auzolanean moldatu zuten. Gero, handik mugitu behar izan zuten, eta Elizari eskatu zioten leku bat; Lagun Etxea utzi zieten.

### **805. Ikastolako lokalak eta legalizazioa (LES-040/007)**

Berako herriko etxean eta Lagun Etxean egon ondotik, bertze leku batera mugitu ziren, Altzatera. Aldi berean, ikastola legalizatzeko prozesuan aritu ziren buru-belarri. Legalizazioan, garrantzitsua izan zen Ikastolen Elkartearen sorrera.

### **806. Altzateko egoitza eta 83ko Nafarroa Oinez (LES-040/008)**

Ikastola legalizatzeko, lokalez aldatu ziren eta Alzateko egoitzara joan ziren. Baina hura berritu beharra zen, eta auzolanean lan hori guzia egiten ahalko ez zutela ikusi zuten. Hala, 1983an Nafarroa Oinez Beran antolatzea eskatu zuten, dirua lortzeko eta egoitza berriko moldaketak ordaindu ahal izateko.

### **807. Mugimendu sozialak, ikastolaren hauspo (LES-040/009)**

Ikastolaren kasuan, gauza aunitz izan zituzten alde Pepiren ustez. Euskal Herrian bazen euskararen aldeko mugimendua, eta horrek ikastolaren alde egiten zuen. Horretaz gain, mugimendu sozial handia nabaritzen zen bertze leku batzuetan ere, Parisen errate baterako, eta berri horiek guzkiek proiektua hauspotzen zuten.

### **808. Berako Udala eta herritarrak kontra ez (LES-040/010)**

Berako Udala ez zein inoiz ikastolako proiektuaren kontra egon, edo ez zuten, behinik behin, kontrako jarrerarik adierazi. Gauza bera gertatu zen herritarrekin. Gainera, Berako bertze eskolen egoera ez zen ona: 4 urteko haurrak mojetara joan behar izaten ziren, eta haur aunitz izaten ziren. Eskolan hasteko, aldiz, 6 urte izan behar zituzten hurrek. Ikastolan, 3 urteko haurrak hartzen zituzten eta ongi zaintzen zituzten; horrek ere mesede egin zien.

### **809. Ikastolaren legalizazioaz (LES-040/011)**

Ikastola legalizatu baino lehen, ikasleen kartillak eskolakoak ziren. Gero, 83ko Nafarroa Oinezen ateratako diruarekin, instalazioak moldatu eta legalizatzeko eskatzen zituzten baldintzak bete ahal izan zituzten.

### **810. Finantzatzeko, ostatua bestetan (LES-040/013)**

Legalizazioa baino lehen, beti dirurik gabe ibiltzen ziren ikastolan. Finantzatzeko, bestetan ostatuak paratzen zituzten.

### **811. Nafarroa Oinez bestaren antolaketaz (LES-040/014)**

83ko Nafarroa Oinez antolatzeko, landak eskatu zizkieten herritarrei. Beti ezagunak izaten ahal ziren batzordeko kideak edo gurasoak joaten ziren halako gauzak eskatzera, eta horrek beti lagundu egiten zuen. Gure Txokoakoek ere antolaketan lagundu zuten.

### **812. Ikastolaren zailtasunak (LES-040/015)**

Ikastolak izan zuen zailtasunik handiena jendea konbentzitzea izan zen. Bazen jendea ttikitan gaizki pasatua zuena erdaraz ongi ez jakiteagatik, eta ez zuten beren seme-alabek hori bera bizitzerik nahi. Zailtasun ekonomikoak ere izan zituzten; legalizazioarekin batera laguntzak jasotzen hasi ziren eta hobetu egin zen egoera.

### **813. Ikastolako guraso aunitz erdaldunak (LES-040/017)**

Berako ikastolako guraso aunitzek ez zekiten euskaraz; batzordeetan ere aunitzek ez zekiten. Horietako batzuk euskaldundu egin ziren, baina hasieran, aunitzek ez zekiten euskaraz. Horiek kontzientziatzen ere saiatzen ziren, baina ez zen erraza.

### **814. Institutua gaztelaniaz (LES-040/019)**

Garai hartan, institutuko ikasketak ez zeuden euskaraz, eta horren alde ere borrokatu ziren Pepi eta senarra. Orduan, Lekarozera joaten ziren ikastera, Beran lanbide eskola baitzegoen, baina batxilergorik ez. Hala, den-dena euskaraz izatea lortu ez zuten arren, ikasgai batzuk euskaraz ematea lortu zuten. Han ere, euskarazko materialik ez zegoen, eta irakasle batzuek ere ez zekiten euskaraz.

### **815. Giro aldaketa (LES-040/020)**

80ko hamarkadako akaberarako, bertze giro bat sumatzen zen Beran eta euskara gehiago aditzen zen karrketan. Egun, gazteek euskaraz jakin arren, erdara dezente sumatzen dela aipatzen du Pepik.

### **816. Gau-eskoletan (LES-040/021)**

Gau-eskoletara joan zen Pepi alfabetatzera eta EGA prestatzera. Patxi Iñigo izan zen bere irakaslea. Bertze batzuk, euskara 0tik ikastera joaten ziren, eta hagitz ongi pasatzen omen zuten.

### **817. EGA ateratzea (LES-040/023)**

Pepi urte pare batez joan zen gau eskoletara, eta oroitzapen hagitz ona du. EGA prestatu zuen bertan, eta azterketa gairatu zuen.

### **818. Gazteak gau-eskoletan (LES-040/024)**

Gau-eskolek ere euskararen aldeko kontzientzia hartzeko balio izan zuten. Gazte aunitz aritu ziren gau-eskoletan.

### **819. Ez Dok Amairu (LES-040/029)**

Ez Dok Amairu ikusi zuen lehenbiziko aldia kontatzen du Pepik: Donostian, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo. Bertze behin, Antiguoko elizan Imanol ikusi zuen.

### **820. Prentsa askatasunaren aldeko manifestazioa (LES-040/030)**

68an Donostiako manifestazio batean egon zen Pepi, prentsa askatasunaren alde. Manifestaziora grisak agertu eta ozta-ozta eskapatu ziren.

### **821. Emakumeen parte-hartzea (LES-040/031)**

Ikastolako mugimenduarekin batera, emakume aunitz hasi ziren parte hartzen, sekula bertze deusetan parte hartu ez zuten emakumeak. Eta hori garrantzitsua izan zen haiendako.

### **822. Garaiko oroitzapen onak (LES-040/033)**

Pepi kontziente da egindako lanaz. Garai hartan emandako aldaketek eragina izan zutela aipatzen du. Oroitzapen onak ditu Pepik, nahiz eta momentu txarrak ere bizi izan zituen, batez ere, proiektuak suposatzen zuen arduragatik.

### **823. Egindako lanaren balorazioa (LES-040/034)**

Garai hartan egindako lan guztiak Bera euskalduntzeko balio izan zuten.

### **824. Bera gerra aitzinetik, aski erdalduna (LES-040/035)**

Bera aski erdalduna zen; baserritarrak euskaraz aritzen baziren ere, herrian gaztelaniaz egiten zen. Berako familia garrantzitsuak erdaldunak ziren; Lesakan, aldiz, euskaldunak. Gainera, Bera mugako herria izaki, polizia, soldaduak, guardia zibilak... baziren, eta horrek ere euskararen eragina zuen.

### **825. Txoltxanen aurkezpena (LES-041/001)**

Txoltxanea izeneko etxean sortu zen Txoltxan, 69 urterekin egin zaio elkarrizketa. Gazte-gaztetan hasi zen euskararen aldeko mugimenduan, eta orain ere horretan segitzen du.

### **826. Euskararen egoera Lesakan 70eko hamarkadan (LES-041/002)**

70eko hamarkadan, giro erdalduna zegoen Lesakan; Txoltxan bera gaztelaniaz aritzen zen kuadrillakoekin edota kalean. Hala, hautu kontziente baten bidez, kuadrillako batzuek erabaki zuten beren artean euskaraz aritzea. Garai hartan, udala, Eliza, medikuak, eskola.. erreferente ziren erakunde eta pertsona guziak erdaraz aritzen ziren. Txoltxan fraideen eskolarat joan zen, eta han denak euskaldunak izan arren, hitz bakar bat ere ez zuten egiten euskaraz. Neskak mojetara joaten ziren, eta han ere dena erdaraz egiten zuten.

### **827. Lesakako ikastolaren sorrera (LES-041/003)**

70eko hamarkadan, euskararen aldeko mugimendua sumatzen hasi zen. Ordurako, erkidegoan ikastolak martxan ziren, eta Lesakan ere ikastolaren proiektuan lanean hasi ziren. Hala, erkidegoko ikastolakoak herrira joan ziren ikastolaren aldeko solasaldi bat ematera. Bertara, haur ttikiak zituzten gurasoak hurbildu ziren, eta han bertan 6-7 haur elkartu zituzten ikastola martxan paratzeko.

### **828. Jarduerak egituratzeko bilerak (LES-041/004)**

Ikastolaren inguruan, bertze mota bateko kultur mugimenduak sortu ziren; Basterretxearen eskulturez osatutako erakusketa bat antolatu zuten, errate baterako. Hala, jarduera solte horiek nolabait egituratzeko beharretik Bortziri mailako bilerak egiten hasi ziren; lehenbizikoa Etxalarren egin zuten eta jende aunitz elkartu zen. Bilera haietara, mojak, irakasleak, udaleko jendea... agertzen hasi ziren. Gisa horretan, nolabaiteko egituratzea behar zela ikusi zuten, eta lan-taldeak sortu zituzten.

### **829. Euskara mankomunitatearen sorrera (LES-041/005)**

Jarduerak egituratzeko lan-taldeak honakoak ziren: hezkuntza, administrazioa eta kultura. Talde bakoitzean ideia ezberdinak lantzen ziren, eta batzar orokorretan horien berri ematen zioten elkarri. Hondarrean, ideia nagusi batera ailegatu ziren: 5 herrien artean mankomunitate gisako zerbait sortu behar zela. Hala, mankomunitate horren egitura zehaztu zuten: batzorde erabakitzailer bat behariko zen erakundeen ordezkari osatua. Mankomunitate horretan, herriak ere parte hartu beharra zuela ikusi zuten, eta, horretarako, aholkularitza talde bat osatu zuten. Horretaz gain, herriko batzordeak sortu ziren 5 herrietan, nahi zuenak parte har zezan.

### **830. Euskara-sustatzaileak (LES-041/006)**

Mankomunitatearen sorrerarekin batera, euskara-sustatzaile bat behar zela ikusi zuten, eta pertsona bat hartu zuten lan horretarako. Geroago, bi pertsona izan ziren horretan aritzen zirenak.

### **831. Nafarroako euskara-zerbitzuen sorrera (LES-041/007)**

Nafarroako Gobernua ere mankomunitateko proiektuan inplikatu nahi zuten. Horretarako, gobernuko euskara zuzendaritzako buruarekin, Jose Luis

Mendozarekin, harremanetan paratu ziren, eta mankomunitatea martxan paratzeko babes juridiko eta ekonomikoa behar zutela adierazi zioten; Mendoza ados agertu zen. Gisa horretan, Nafarroako lehenbiziko euskarazerbitzua izan zen Bortzirietakoa. Gerora, Nafarroako Gobernuak bertze eskualde batzuetara zabaldu zuen euskara-zerbitzua.

### **832. Euskara mankomunitatearen eraketa (LES-041/008)**

Euskara mankomunitatea Arantzan kokatzea pentsatu zuten, Bortzirietako herririk euskaldunenean. Batzorde erabakitzailea eta aholkularitza batzordea nola osatu zituzten aipatzen du Txoltxanek. Mankomunitatea finantzatzeko, Nafarroako Gobernutik jasoko zuten laguntza, eta Bortzirietako udal bakoitzak aportazio bat eginen zuen. Herriko batzordeek euskararen inguruko mugimendua antolatzen zuten herrietan, bakoitzak bere herrian.

### **833. Komunitateak diruz laguntzen dituenak (LES-041/009)**

Bortzirietako beharrak zeintzuk ziren ikusita, euskaltegia sortu zuten. Euskaltegia, Ttipi Ttapa, irratiak... euskararen aldeko proiektu horiek guztiak diruz laguntzen ziren euskara mankomunitatearen bidez. Horren harira, egun, euskara ikastea doakoa dela aipatzen du Txoltxanek, baita Ttipi Ttapak eta Xorroxin irratiak izan duten garapena ere.

### **834. Mankomunitatearen sorreran parte hartu zutenak (LES-041/010)**

Mikel Legarra izan zen mankomunitatearen ideiaaren sustatzaile nagusietako bat; bera hasi zen jendea mugiarazten. Halere, euskararen inguruko jendea segituan hurbildu zen bilera haietara. Pello Apezetxea eta Patxi Iñigo ere horretan aritu ziren buru-belarri.

### **835. Herri-indarra mankomunitatearen sorreran (LES-041/012)**

Hautetsi batzuek bertze batzuek baino hobeki ikusten zuten mankomunitatearen afera. Dena dela, gibeletik herri mugimendu handia zegoenez, aitzinerat egin zuten. Bigarren euskara-sustatzailea kontratatatzeko orduan, hautetsi baten batek oztopoak paratu zituen.

### **836. Euskararen egoera Lesakan, Txoltxan ttikia zelarik (LES-041/013)**

Txoltxan gaztea zelarik, Lesakako karriketan ez zen euskararik aditzen; baserritarrak joaten zirelarik bakarrik aditzen zen. Etxetik hartu zuen euskara Txoltxanek, nahiz eta gero karrikan erdaraz egin. Garai hartan, edozein gauza egiteko erdaraz egin behar zen; euskarak ez zuela deusetako balio pentsatzen zen.

### **837. Hizkuntza ohitura aldatzen (LES-041/014)**

Gaztetan erabaki zuen Txoltxanek hizkuntza ohitura aldatu eta euskaraz solastatzea. Garai hartan, nazio kontzientzia zabaltzen ari zen, eta harekin batera lotzen du Txoltxanek hizkuntza. Hala, herdoildua zuen euskara poliki-poliki findu zuen.

### **838. Euskararen egoera txarra Beran eta ona Arantzán (LES-041/015)**

Beran egoera Lesakan baino makurragoa zen. Han karrketan ez zen euskara aditzen, eta batzuek jakin ere ez zekiten. Horren inguruko pasadizo bat kontatzen du. Arantza, aldiz, herri hagitz euskalduna zen; beraiendako, arnasgunea.

### **839. San Ferminetan, euskal girorik ez (LES-041/016)**

Garia hartan, San Ferminetan euskal girorik ez zegoen, ezta euskal musikarik ere. Gerora, kontzientziazio prozesuarekin batera, euskal giroa sartzen joan zen poliki-poliki. Errate baterako, Incansables txaranga sortu zen, eta haiek euskal kanta batzuk jotzen zituzten. Geroxeago bestetako programak ere euskaraz egiten hasi ziren.

### **840. Ikastola eta eskola bateratzeko saiakera (LES-041/017)**

Ikastola martxan paratuta, eskolan ere euskara txertatzen hasi ziren, guraso batzuk kontra izan arren. Hala, Nafarroako Gobernutik ikastola eta eskola fusionatzeko proposamena ailegatu zitzaizen ikastolakoei. D eredurik ez zegoen orduan, eta gobernutik egindako proposamenaren arabera, 5. mailan gaztelaniazko ikasgai batzuk txertatzeko aukera irekia utzi nahi zuten. Ikastolakoei, ereduaren zehaztasun falta ikusita, proposamen zehatza idatziz emateko eskatu zieten, eta hortxe eten zuten gobernuak proposamena.

### **841. Ikastola eta eskolaren arteko urruntzea (LES-041/018)**

Gobernuak egindako proposamena bertan behera uzteak eskola eta ikastola urrunarazi zituen. Lehen, ikastolako haurrak eskolako jantokira joaten ziren eta baserrietan bizi ziren haurrek ere eskolako autobusa erabiltzen zuten. Proposamenaren ondotik, bi gauza horiek debekatu zituzten.

### **842. Ikastolaren alde eta kontrakoak (LES-041/019)**

Lesakan, baziren ikastolaren alde eta kontra zeudenak. Batzuek begi onez ikusten zuten euskaraz ikastea eta proiektu didaktiko berritzaile bat garatzea. Bertze batzuek, aldiz, politika eta borroka armatuarekin lotzen zuten.

### **843. Bortzirietako ikastolen arteko harremana (LES-041/020)**

Txoltxan 6 ikasturtez aritu zen ikastolan irakasle. Bortzirietako ikastolen artean bazuten harremana, baina ez harreman instituzionala. Lesakako ikasleak Berara joaten ziren azken bi mailak han egitera, Lesakan ez baitzegoen halako aukerarik.

### **844. Euskara mankomunitatearen lana (LES-041/021)**

Gauza aunitz egiten dira euskara mankomunitatearen eskutik, baina jendeak ez du horren pertzepziorik; badirudi betitik hor egon direla gauza horiek (Ttipi Ttapa, Xorroxin, euskaltegia, udalekuak...). Momentu honetan, mankomunitatea egituratze berri baten prozesuan dago.

#### **845. Euskara mankomunitatearen egituratze berria (LES-041/022)**

Bortzirietan mankomunitate bakarra sortzeko prozesuan daude (euskara, hondakinak, gizarte zerbitzuak eta berdintasun zerbitzua). Bertzalde, Bortziri mailako Bor-bor euskaltzaleen mugimendua martxan hasi da berriki. Bi gauza horiek euskara mankomunitatearen egituratze berrian eraginen dute.

#### **846. Aholkularitza batzordearen papera (LES-041/023)**

Euskara mankomunitatearen barnean den aholkularitza batzordeak herriaren ordezkartza bermatzen du; beheitik goitirako mugimenduaren isla da.

#### **847. Erronka berriak euskararentzat (LES-041/024)**

Urte hauetan guzietan egindako lanari argi-itzalak ikusten dizkio Txoltxanek, baina argiei erreparatzen saiatzen da. Aurrerapauso handiak egin dira, baina erronka berriei aurre egin beharko zaie, errate baterako, etorkinen etorrerari.

#### **848. Pertsona erreferentzialen garrantzia (LES-041/025)**

Euskararekin lotura duten pertsona erreferentzialak izatea garrantzitsua da. Halako pertsonak hizkuntza aldatzea eragin dezakete.

#### **849. Egindako lanaren balorazioa (LES-041/026)**

Txoltxan kontziente da egindako lan guziak eragina izan duela euskararen berreskurapenean.

#### **850. Euskararen aldeko borroka, etengabekoa (LES-041/027)**

Lan handia dago oraindik ere euskararen alde egiteko. Egun, Txoltxanen ustez epaitegietatik egiten da hizkuntza politika; gaztelaniaren aldekoa eta euskararen kontrakoa. Hortaz, euskararen aldeko borroka, etengabeko borroka da.

#### **851. Herriaren independentzia, euskararen biziraupena (LES-041/028)**

Txoltxanen ustez, arrunt zaila da herriaren independentziarik gabe euskarak irautea. Independentzia lortuta ere, lan handia egin beharko da euskarak bizirauteko.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-05-28*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com